




**MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA**



---

**HUMANITATE ETA  
HEZKUNTZA ZIENTZIEN  
FAKULTATEA**

---

## **IKASTE KOADERNOA**

---

<b>Izena:</b>	Erlantz Agirre
<b>Gradua:</b>	Lehen hezkuntza
<b>Maila:</b>	1.maila
<b>Tutorea:</b>	Amaia Pinacho
<b>Materiako irakaslea:</b>	Olaia Jimenez
<b>Ikasgaia:</b>	1.7. materia. Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategi metodologikoak
<b>Data:</b>	2011-03-22

---

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### AURKIBIDEA

#### I.FASEAREN A MULTZOA

- Sarrera	2orr.
- Ongi etorri 1.7 materiara	2-5orr.
- 1.3 eta 1.7 materiaren arteko lotura	5-10orr.
- Pigmaleon efektua	11-16orr.
- Begirada aldaketa	16-23orr.
- Tutoretza plana	23-29orr.
- Komunikazioa eta Alderdi emozionala	30-39orr.
- Zeharkako konpetentziei begirada	39-45orr.
- Ikaste koadernoak	45-50orr.
- Motibazioa eta gatazka	50-58orr.
- Motibazio arrakastatsuak	58-63orr.
- La clase filmaren lanketa	63-71orr.
- I.Mintegia eta kasu ebazpena	72-83orr.

#### I.FASEAREN B MULTZOA

- Estrategia metodologiakoak	83-89orr.
- Neurri arruntak eta laguntza sistema	89-94orr.
- 2. mailako ikasleen hitzaldia	95-101orr.
- Aniztasunari erantzuteko taldeko eta bakarkako estrategiak	102-117orr.
- II.Mintegia	118-121orr.
- Ondorioa	122-123orr.
-Bibliografia	123-127orr.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### SARRERA

Lehen hezkuntzako ikasle bat naiz eta gaur egun 1.maila ikasten ari naiz. Txosten hau 1.7 materiari dagokio. Lan honen helburua, 1.7 materiari landutako saioen jarraipen bat egitea da. Lan honetan landutako saioak urtarrila eta martxoa bitartean burutu genituen.

Txostenaren egiturari dagokionean, saio bakoitza lau atal ezberdinetan banatuta egongo da. Lehena, **edukiak**. Hemen, saioetan **zer** landu dugun aipatuko dut. Adibidez, hitzaldiak, lanak, galderak... Hau bi zatitan egongo da banatuta: 1.fasearen A multzoa eta B multzoa. Bigarrena, **metodologia**. Atal honetan, edukiak **nola** landu ditugun azalduko dut. Esate baterako, taldeka, power point, bakarka... Hirugarrena, **hausnarketa** izango da. Esparru honetan, edukien inguruan hausnartuko da, saio bakoitzean landutako konpetentzi bai espezifiko eta zeharkakoen ikaste emaitzen hausnarketa egin eta saio bakoitzetik identitate profesionala aberasten dituen elementuen inguruan gogoeta landu. Laugarrena eta azkena, informazio gehigarria izango da eta hemen gaiarekin lotutako bideoak, artikuluak edota interneten topatutako informazio aurki daiteke.

Txostenari amaiera emateko, saio guztiak kontuan hartuta ondorio pertsonala txertatuko dut. Non edukiak, metodologia eta identitate profesionalaren inguruko hausnarketa egingo dut..

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### 1.FASEA. A.MULTZOA (PRINTZIPIO PEDAGOGIKOAK)

#### 2011/01/11 ONGI ETORRI 1.7 MATERIARA

Gaurkoan, bigarren hiruhilabeteko materia berri batekin hasi gara, 1.7 materia. Materia honetan Aniztasunari erantzuteko printzipioak eta estrategia metodologikoak aztertuko ditugu. Materia hau, guztiontzako eskolan kokatzen da.

Nire aurrezagutzetatik abiatuz, esango nuke gaur hasi dugun materia guztiontzako eskolan kokatzen baldin bada, 1.3 materiarekin lotura baduela ziurtatuko nuke. Horrez gain, 1.3 materiaren landutakoa sakonago jorratuko dugula uste dut.

#### EDUKIAK

**1.Saio** honekin hasteko, materia honen helburuak zeintzuk diren argitu ditugu:

- Ikasleen aniztasun adierazpide guztiak aintzat hartzea eta erantzukizunaz jabetzea.
- Hezitzaile bezala aniztasunari aurre egiteko beharrezko jarrera lantzea.
- Aniztasunari erantzuteko oinarri pedagogikoak ezagutzea eta neurri arrunten bidez aplikatzea.

Ondoren, gure tutoreak, bere burua aurkeztu du eta bere ikastolako garaiko hainbat esperientzi kontatu dizkigu. Berak amaitutakoan, gutako bakoitza aurkeztu egin gara eta gure ikastetxeko esperientzi bat kontatu dugu. Mota guztietako esperientziez hitz egin dugu, positiboak zein negatiboak.

Gelakide guztiak, hitz egin ondoren, orain arte ikasitakoari buruz hitz egin genuen 1.3 materiako ideiak freskatzeko. Ideia guzti hauekin 1.7 materiaren zehar ikasiko ditugun edukiak, egingo ditugun lanak, lan bakoitzak zenbat ordutan egin beharko dugun ... azaldu zigun. Baina konpetentzien inguruan nabarmendu zen gehiago. Bai konpetentzi espezifikoak azalduz eta bai zeharkakoak.

Honela eman genion saioari amaiera.

Data: 2011/03/22

3.Orrialdea

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### METODOLOGIA

Atal honetan, landutako edukiak zein dinamikaren bitartez landu ditugun azalduko dut.

Gaurko saioa lehendabizikoa izanda **U forman** izan gara eta **gela osoari** zuzendutako informazioa jaso dugu.

#### **1.Gela osokoa**

Lehenik eta behin, Olaia irakasleak bere aurkezpena egin du gela osoari zuzendu eta ondoren materia berri honetako helburuak zeintzu diren zehaztu ditu. Hau ere, guztioi zuzenduta.

#### **2.U formako dinamika.**

Ondoren, U forman jarri gara eta ikaskide bakoitzak bere aurkezpena egin behar izan du eta eskolan izandako esperientzia positibo edota negatibo bat azaldu behar izan du. Aurkezpenekin amaitzean, 1.3 materialen ikasitakoari buruz burua freskatu genuen.

### HAUSNARKETA

Hausnarketaren bitartez, saio bakoitzean eduki, konpetentzi eta identitate profesionalaren inguruan jardutea da nire helburua.

Gaurkoan **edukirik** ez dugu landu eta gaurko saioa materia berri honi kokapena egiteko balio izan du. Erabili den metodologia oso ondo iruditu zait gai bati kokapena egiteko. Hau da, lehendabizi materialen helburuak azaldu eta ondoren ikasle bakoitzaren aurkezpenarekin batera eskolarekin lotura duen esperientzi pertsonal bat kontatzea. Beraz, materialari sarrera emateko erabili den metodologia oso egokia eta aproposa iruditu zait. Azken finean, lehen eguna izanda, ikasleak itxita daude oraindik.

## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

**Konpetentzien** inguruan esan beharra daukat gaurkoan ez dugula bat ere barneratu. Hala ere, irakasleak argi eta garbi utzi digu konpetentzien garrantziaz eta lanketa nola egin behar den. Lehenik eta behin, konpetentzi espezifiko bakoitzaren ikaste emaitzaren azterketa dagokion ikaste koadernoaren saioari egokitzea. Ondoren, zeharkako konpetentzien ikaste emaitzak hirutan banatu: ikasten ikastea, talde lana eta komunikazio eraginkorra. Hau guztia saioz saio landu beharko dugu.

**Identitate profesionala** jorratuko dut saioz saio. Atal honetan, nire identitatea aberastuko denaz aipatuko dut. Gaurkoan badut nire identitatea aberastu duen zerbait. Esate baterako, aurkezpen saio bat nola gauzatu behar den eta zein modutan gauzatu behar den. Gaurkoa, U forman lanketa eginez alegia. Azken batean, lehendabiziko saioak ikaslearengana hurbiltzeko balio izaten dute eta hori da gaurkoan barneratu dudana.

### **INFORMAZIO GEHIGARRIA:**

#### **2011/01/14 1.3 ETA 1.7 MATERIEN ARTEKO LOTURA. (MURALA)**

Lehendabiziko saioa aurkezpen gisa eta irakaslearengana hurbiltzeko balio izan zuen. Gaurkoan, bakoitzak osatua duen identitatea profesionalaz eta 1.7 materia, 1.3 materiarekin lotura egingo dugu mural baten bitartez.

Nire identitate profesionalari begira esperientzia nahikoa eta formazio ona dudala uste dut. Hala ere, ibilbide berri onek borobiltzea espero dut. Materiari dagokionean, aurrekoan esan nuen moduan, 1.3 eta 1.7 materiak erlazionatuta daudela uste dut baina, 1.7 materia askoz ere sakonagoa izango dela uste dut. Gehienbat, praktikara gehiago egongo dela enfokatu uste dut.

### **EDUKIAK**

**2. Saio** honen hasieran, aurreko saioan aztertutako gidaliburuaren inguruko zalantzak argitu ditugu. Ondoren, 1.3 materiako ideiak oinarri hartuta 1.7 materiarekin duen lotura aztertu dugu. Lotura hau aztertzeko mural bat egin behar izan dugu. Murala aurkeztu eta ondorio batzuk atera ditugu orokorrean.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

Dinamika hau amaitzean, beste dinamika bat burutu dugu eta bakoitzak bere buruaz irakasle izango denaren inguruan identitate profesionala nolakoa den aztertu dugu. Hau egiteko, ondorengo egoeraren aurrean kokatu behar izan dugu gure burua:

*“ 2015ean gaude eta gaur ostirala da. Astelebeanean deituko naute ikastolan ordezkapen bat egiteko. Elkarrizketa bat izango dut eta alderdi profesional eta pertsonalei buruz bitz egin beharko dut.”*

	Alderdi Profesionalak	Alderdi Pertsonalak
<b>Aiora</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- MU (Heziketa Fisikoa)</li> <li>- 16 urtetatik haurrekin esperientzia</li> <li>- Herriko begirale dinamizatzailea</li> <li>- Hizkuntzak unibertsitatean indartu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 24 urte</li> <li>- Harreman ona haurrekin</li> <li>- Esperientzia txarrik ez</li> </ul>
<b>Lander</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- MU (Lehen Hezkuntza)</li> <li>- 15 urterekin entrenatzaile</li> <li>- Ezagutzak martxan jartzeko gai.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- 27 urte</li> <li>- Lasarte</li> <li>- Harreman handia haurrekin ez</li> <li>- Ilusioa</li> <li>- Interes handia</li> </ul>
<b>Joseba</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- MU (Lehen Hezkuntza)</li> <li>- Aisialdiko begirale titulua</li> <li>- Eskola kirolak</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Legazpi</li> <li>- 23 urte</li> <li>- Ilusioa, gogoa, interesa...</li> <li>- Ikasitakoa praktikan</li> </ul>

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

	(Haztegi Ikastolan)	jarri.
	- Hizkuntzak (ingelesa indartuta)	
	- EGA titulua	
<b>Erlantz</b>	- MU (Heziketa Fisikoa)	- Legazpi
	- Aisialdi begirale titulua	- 26 urte
	- 18 urtetatik	- Langilea
	Sorgintxulo Aisialdi Taldeko partaide.	- Konstantea
	- Eskola kiroletako entrenatzailea.	- Pazientzia handikoa
	- Ingelesa asko indartuta	- Ikasitakoa praktikan jartzeko gogoz.
	- EGA titulua.	

Ondoren, beste dinamika bat egin dugu eta behaketa lanetan aritzea egokitu zait gidoi bat jarraituz. Beste batzuk, egoera antzeztu behar zuten bitartean. Behaketa egiteko egoera bat aztertu behar genuen eta honela zioen:

*“Ikasle batzuk ingurune ikasgaietan daude eta txango bat antolatu behar dute.”*

Egoera honen hurren ikasle hauek daude:

- Leire: Baztertua
- Unai: Bista arazoak
- Mikel: Liderra
- Itsasne: Alperra



## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Antzezpena egin eta gero, ondorengo aztertu behar izan dut:

- Ikaskide guztiek parte hartzeko aukera izan dutela esango zenuke? Uste duzu denek talde horretan partaideak direla sentitzeko aukera izan dutela? Zertan oinarritzen zara?

Ez. Unai nabarmen baztertu dute ez zuelako ondo ikusten eta Leireri bizkarra eman diote. Gainera, Itsasneri gauzak prestatzeko agindu diote eta gehiago konprometitzeko. Horrez gain, Mikelek zioenari denok baiezkota ematen zioten, era berean, Leirek egin duen proposamen bat baztertu egin dute.

Saioari amaiera emateko, “Una clase dividida” ikusi dugu eta bertan ikusten zen nola irakasle batek bere ikasleei sentiarazten zien zer zen baztertuta egotea. (Begi nini ezberdinen bitartez).

### **METODOLOGIA**

Saio honetan dinamika ezberdinak egin ditugu 1.7 materia kokatzeko. Baina saioa talde lanean oinarritu da.

#### **1. Talde lana**

##### **1.1 Murala.**

Lauko taldeak osatu ditugu eta orri zure handi batean 1.3 materia eta 1.7 materia nola lotzen genuen irudikatu dugu. Lotura egiteko, futboleko oinarritu gara eta kuaderno bat eta futbol zelai bat irudikatu dugu. 1.3 materia futboleko kuadernoari dagokio eta teoriarik landu ditugu koadernoaren agertzen diren ezaugarriak. (Guztiontzako eskola, alderdi emozionalak, ikaslea aktibo bat lortzea...) Futbol zelaiaren ordea, praktikari dagokio eta 1.3 materia ikasitakoan praktikan jarriko dugula irudikatu dugu.

##### **1.2 Identitate Profesionala.**

## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Ikastolako lanposturako izango dugun elkarrizketa kontuan hartuta, taula bat osatu dugu taldeko lau partaideekin. Ondoren, banan-banan eta adi entzunez bakoitzak bere alderdi profesional eta pertsonalak bota ditu, taula osatzen genuen bitartean.

### **1.3 Txangoa antolatu. Egoera batean behaketa.**

Gelan bi talde osatu ditugu: Batzuk antzezleak eta beste batzuk behatzaileak. Antzezleen artean 4 boluntario kalera irten behar izan dute momentu batean. Gainontzeko antzezleei esan zaie zein paper izango duten 4 boluntarioek eta hori antezarazi beharko dute, 4 boluntarioak ezer jakin gabe. Behatzaileak bitartean gidoi bat jarraituz gertatzen dena aztertu dugu. Lana errazteko, galdera bat banatu dugu behatzaile bakoitzari.

### **2. Bideoa. Una clase dividida filma.**

Talde osoan jarri gara eta proiektorearen bitartez filma ikusten hasi gara. Denboraz larri ibili gara eta ez digu denborarik eman dena ikusteko. Hala ere, nondik norakoak antzeman ditugu.

## **HAUSNARKETA**

Jarraian saio honetako eduki, konpetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

Edukiei begira, Saio hau oso garrantzitsua iruditu zait materiaren kokapena egiteko. Hasiera batean zehazki ez genekien zertaz arituko ginen. ( Jarrerez, Harremanez, komunikazio egoerez, iritziak, entzuten jakitea, gatazkak kudeatzen jakitea, planifikazioa... azkenean konturatu naiz hori dena landuko genuela baino gure helmuga konpetentzien ikaste emaitzak gogor jorratzea direla. Edukiak dinamiko bihurtu direla uste dut, lan ditugun metodologiarengatik. Baina horrek ez du esan nahi gutxiago ikasten denik, gustu kontrakoa, dinamika esanguratsu batean edukiak landuz gusturago egiten dituzu eta errazago barneratzeko gai garela uste dut.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Saio honi dagokionean, **konpetentzi espezifiko**en ikaste emaitzei begiratuz, Guztiontzako Eskola markoaren oinarrien erabilera ikaskuntza berriekin lotu ditugu. Hau da, muralaren bitartez, 1.3 eta 1.7 materiak lotu ditugu. Talde guztiok ikusi dugu 1.7 materia, 1.3 materian ikasitako ezaugarrien praktikan jartze moduan. **Zeharkako konpetentzien (ikasten ikastea)** ikaste emaitzei begira, materien arteko lotura egiteko, baliabideen aurreikuspena egin dugu eta muralan plasmatu dugu modu esanguratsu batean (eskema) azaltzeko gai izan garela uste dut. Horrez gain, murala taldean azaltzerakoan taldekide guztiok erakutsi dugu landutakoa ahoz azaltzeko gaitasuna. Hala ere, lehendabiziko saioak direla kontuan hartuz, hobetzeko asko ditugula uste dut. Esaterako, keinuak, ahots tonua, hartzaileari gehiago begiratu... **Talde lanari** dagokionean, gure kasa eratu behar izan ditugu taldeak eta ondo elkar ezagutzen ginenak bildu gara. Murala osatzerakoan, denbora limite bat genuen murala amaitzeko eta denon arteko koordinazioa lortuz garaiz amaitzeko denbora eman digu. Ondoren, azalpena egitean taldeak osotasunean azaldu du eta azalpenak osatzeko elkarren laguntza ere izan dugu. Beraz, oso gustura sentitu naiz, 2.saio honetan egindako talde lanarekin. **Komunikazioari** so eginez, eraginkortzat hartuko nuke. Lehenik eta behin, bakoitzaren identitate profesionala osatzen egon garenean, elkarri entzun diogulako eta hitz egiteko txandak errespetuz mantendu ditugulako. Bigarrenik, muralaren azalpena egitean, arazorik eta oztoporik ez dela egon ziurtatuko nuke. Ez igorle eta ez hartzaileen partetik.

**Identitate profesionalari** dagokionean, orain arte egindako praktika guztietan, hurrez inguratuta egotea oso eroso sentiarazten ninduen. Momentu gatazkatsuak konpontzeko gai izan naizela uste dut eta horrek pazientzi gehiago izatea ahalbidetu nauela uste dut. Horrek, aipatutako gatazkak hain zuzen ere, zerbait positiboa eskaintzen dizu zure pertsonari eta horrela identitatea aberasten dela uste dut. Horrez gain, gaurko saioan nire identitate profesionalerantz ekarriko nuke, azalpenak emateko gaitasun hori poliki-poliki hobetzen doala eta irakasle taldean jardun beharko dugula eta saio hauetako talde lanak irakasleen taldeak irudikatzen dituela. Beraz, talde lanean lan egiteko gai naizela erakutsi dudanez, irakasle talde batekin lan egitean arazorik ez dudala izango uste dut.

### INFORMAZIO GEHIGARRIA:

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Bideo hauen bitartez, irakasle batek eginiko esperimentu bat erakusten da, non ikasleak baztertuta sentiarazten ditu eta ikasle hauek bazterketa horretatik ikasten dute zerk dakarren baztertua sentitzea. “Una clase dividida.”

<http://www.youtube.com/watch?v=yaimGghfcpM>

<http://www.youtube.com/watch?v=LXwCKwrXmoY&feature=related>

### 2011/01/18 PIGMALEON EFEKTUA

Aurreko saioan, antzerkiaren bitartez, etiketak zer ziren ikusi genuen. Gaurkoan, bi artikuluko landuko ditugu non ikasleen hainbat arazo ikus ditzakegun eta etiketen gaia sakonduko dugu Pigmaleon efektuaren hitzaldi batekin.

Aurrezagutzetatik abiatuz, Pigmaleon efektua entzun dudanean oso ezaguna egin zait hitza. Orduan etorri zait bere esanahi. “La profecía autocumplida.” Esaterako, askotan pentsatuz gero erori egin zarela, azkenean erori egingo zara.

## EDUKIAK

**3.saio** honetarako bi artikuluen irakurketa eta ideia nagusiak eginda ekarri behar genituen ez-presentzialeko lana bezala. ( *Alumnos con problemas emocionales y de conducta* eta *Relación profesor-alumno y alumno-alumno*):

### **1. Artikulua.** *Alumnos con problemas emocionales y de conducta.*

- Ikasleak bere gurasoekin izan duen harremana oso garrantzitsua geroagoko ikasketetan.
- Harrak bere sentimenduez gurasoekin hitz egiten baditu ikasketetan nabarmenduko da.
- Irakaslearen harremana ikasleekin garrantzi handia du ere.
- Irakaslea haurren eredua da eta haietaz ikasitakoa geroago martxan jarriko dute.
- Egoera deserosoak ekiditeko 3 pauso:
  - o 1. Ikasgela giro egokia, konfiantzazkoa...

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

- 
- 2. Hurrekin dugun erlazioa.
  - 3. Ikastolako giroa familiarra.
- Badaude zenbait egoera non irakasleak ez dakite nola jokatu → Zigorra.
  - Arauak egotea garrantzitsua. Hurrei moldatuta.
  - Ikasleen arteko gatazkei nola aurre egin? Denon hitza entzunez.

### 2. Artikulua. *Relación profesor-alumno y alumno-alumno.*

- Gure erlazio ikasleekin arabera, positiboa ikaslearen heziketan. Erlazio profesionala.
- Erlazio orokorra: Agurrak, ekintza bat antolatu, gai bat azaldu...
- Erlazio zehatza: Ahozko galderak, ebaluaketak, klaseko lehendabiziko eguna...
- Lan profesionala eta eraginkorra. Ikaslearen arrakasta lortu nahi dugu eta ez porrota. Garapen integrala indartu.
- Ikasleen artean bi eremu daude: lehiakortasuna eta elkarlana.
- Egoerak sortu ikasleak berain artean hitz egiteko. Lanak egingo dituzte baina gauza gehiago lortu nahi dira.
- Elkarrekin lan egiten ikasi.
- Egoera negatibo batetik gauza positibo asko atera daitezke.
- Gure baloreak ezagutu. Egoera batzuen aurrean agian ez dugu ezer ikasiko baina bai zeintzuk diren bakoitzaren baloreak. Horretarako, komunikazio beharrezkoa da.

Ez-presentzialeko lana eginda, saioa aurreko eguneko filma bukatzen hasi dugu. Ondoren Pigmaleon efektuaren inguruko hitzaldi bat jaso dugu:

### **PIGMALEON EFEKTUA ( Bere kabuz betetzen den profezia) Hitzaldia.**

- Norbaitek gertakari bat aurreratzen duenean. “ Hau ikasle alperra da.”
- Hiru alderdi:
  - 1. Gertakari batean sinestea
  - 2. Beteko den itxaropena izatea.
  - 3. Honen gauzatzea bultzatzen duten mezuekin laguntzea.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- Hezitzaileok itxaropen positiboak ekarri behar ditugu.
- **ESTEREOTIPOAK**
- Giza talde batzuei buruzko irudi sinplifikatuak (+/-) dira.
- Informazio konplexua antolatzen laguntzen digute
- Osagaiak:
  - o Mailaketa ( Autonomia eta independentea izatea sozialki positiboa)
  - o Konparaketa ( Gizonezkoa autonomia eta independentea eta emakumea menpekota)
  - o Atribuzioa ( Emakumea = menpekotasuna, ahulagoa)

Hitzaldia jaso eta gero hiruko taldetan jarri gara landuta ekarri behar genuen testuko ideiak konpartitzeko.

Dinamika hau amaitzean irakasleak 2 pasarte eman dizkigu eta hiruko taldetan lehendabiziko pasarteaz aztertu behar izan dugu.

### Testuaren ideia:

- Hasieran irakasle- ikasleen arteko harremana oso ona da eta irakaslea asko pozten da. Geroago, ikasle batzuen desobedientziak irakaslea itotzen dute.

### Testua artikuluekin lotura egin:

- Gelako klima egokia.
- Autoritatea mantendu behar du.
- Irakasleak oreka emozional eza.
- Arauak adostu.

→ **Hurrengo saioan sakonago azalduta.**

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### METODOLOGIA

Gaurko saioan landu ditugun eduki guztiak, atal honen bitartez, zein metodologian oinarrituta landu ditugun azalduko dut. Saio hau **taldeko lanean** eta **hitzaldian** oinarritu dira.

#### 1. Talde lana

##### 1.1 Ez-presentzialeko artikuluen lanketa.

Hiruko taldetan bildu gara eta etxetik landuta ekarri ditugun testuen ideiak banaka irakurtzen joan gara. Ondoren, artikuluen inguruko ideien multzo bat bildu dugu orri zuri batean.

##### 1.2 Pasarteen lanketa

Hiruko taldeetan gaudela, pasarte bat irakurri behar izan dugu. Garrantzitsuena azpimarratu dugu. Ondoren, hiruron artean ea berdina ulertu dugun hizketan egon gara. Jarraian, hiruron artean testuaren ideia atera dugu. Hau amaitzean, aurreko artikuluekin lotura egin dugu eta klase guztiarekin konpartitu dugu.

#### 2. Hitzaldia

Hitzaldia klase guztiari azaldua izan da power point baten bitartez. Ez da oso luzea izan eta gainera nahiko modu esanguratsuan zegoenez egituratuta, ulerterraza izan da. Gainera, hitzaldi erdian azalpenak ematen zituen eta gure parte hartzea sustatu du irakasleak.

### HAUSNARKETA

Jarraian saio honetako eduki, konpetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Edukien inguruan esan beharra daukat, diskriminazioa mundu osoan zabaldua dagoen fenomeno oso negatibo eta atzerakoia da. Fenomeno hau eskoletara ere iritsi da eta bere eraginak aztertzea oso interesgarria izan dela iruditu zait. Nire ustez, diskriminazioa eskoletan izatea kolpe zuzen eta gogor bat da ikasleen arteko harremanean. Diskriminatuarekin gainontzeko ikasleek ez dute harremanik izan nahi eta horrela argi eta garbi ikusten da ikasle guztiak ez daudela maila berean. Ondorioz, diskriminatuaren etiketa pisu handikoa da eta egoera altxatzeko zailtasuna ikaragarria dela uste dut. Horrez gain, diskriminatuak beraien irudi negatiboa sortzen dute besteen erruz eta gauzak egiteko ezintasunean bizi dira. Esate baterako, haur bat diskriminatua sentitzen da eta bere gelakideek ez diote futboleant gehiago jolasten uzten. Ondorioz, haur horrek pentsatuko du ez dela gai futboleant jolasteko... horrela adibide asko jar ditzaket. Gainera, azpimarratu beharra daukat etiketek asko eragiten dutela, harremanean eta harreman horretan erabiltzen den komunikazio estiloan. Hain zuzen ere, ikasleak ez dira berdint zuzentzen liderraren etiketa duenarengan edo alperren etiketa duenarengan. Hau gutxi balitz, etiketak irakasleengan eragina dutela uste dut. Ez luke horrela izan behar baina nire uste apalean horrela gertatzen da. Hala nola, Irakasleak notak jarriko ditu ikaslea den arabera. Beraz, gaurko edukiak asko balio izan didaten eskoletan bizi den errealitateaz jabetzeko.

Saio honetako konpetentzien ikaste emaitzei begira honakoa esan dezaket. **Konpetentzi espezifikoent** artean, Pigmaleon efektuaren oinarriak jaso ditugu eta etiketen eraginaz jabetu gara uste dut. **Zeharkako konpetentzien (ikaste ikastea)** ikaste emaitzei begira esan beharra daukat, gaurko eginbeharrei erreparatuz, ez- presentzian landu beharrekoa modu egoki eta argi batean garatu eta ulertu dudala uste dut. Hau da, testua irakurri eta ondoren ideia nagusiak azpimarratu. Hau amaitzean, ideia nagusiak kontuan izanda laburpena egiteari ekin diot. Nire ustez, testuari beharrezko zukuia ateraz. Bete behar hau erraza eta ulergarri egin zait baina astea lanez beteta izan dugu eta hutsune bat aurkitzea lan hau lasai egiteko ez da erraza izan. Beraz, lana egiteko denbora izan dut, aldezt aurretik asteen eginbeharrekoen plangintza burutu dudalako. **Talde lanari** begira, gaurkoan ere ondo aritu gara esango nuke. Lehendabizi, testua ulertzeko denon artean lagundu garelako. Ondoren, denok parte hartu dugulako testuen arteko lotura egiten eta amaitzeko, bozeramaileak gure lana aurkeztean gainontzeko taldekideak informazio osatzen lagundu diogulako. **Komunikazioari** begira esan beharra daukat, lehendabiziko egunak direnez irakaslea neurtzen ari gara eta hitzaldiko mezua argi eta garbi iritsi zaigula esango nuke.



## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Talde lanean, komunikazio inguruan ez dugu arazorik izan, elkarri entzun baitiogu. Beraz, komunikazio eraginkorra gaurkoan ere.

Gaurko saiotik **nire identitate profesionalerantz** eramaten dudana honakoa da: Nire ustez, irakasleak ez lirateke etiketen menpe egon behar eta etiketei aurre egin. Lehenik eta behin irakasleak lasai egon beharko lirateke eta ikasgelan klima egoki bat sortu. Ondoren, egoera bat sortu non baztertuak parte hartuko duten eta hau lortzeko beraien indar-guneak ezagutu behar dituztela uste dut. Dinamika mota hau aurrera egin ezean, begi ninien filmean bezalako dinamika bat prestatuko nuke. Horrela, enpatia landuko genuke eta diskriminatua sentitzea zer den denok ezagutuko genuke.

### **INFORMAZIO GEHIGARRIA:**

#### **2011/01/ 21 “IMPLICACIONES PARA EL CAMBIO EDUCATIVO SURGIDAS DEL CAMBIO EN LA MIRADA.”**

Aurreko saioan bi artikulua landu genituen ikasleen jarrera arazoen inguruan eta irakasle-irakasle eta irasle-ikasle inguruan. Ondoren Pigmaleon efektua landu genuen. Gaurkoan ordea, heziketaren inguruan begirada atzerantz botako dugu eta etorkizunean topa nahi duguna.

Honen inguruan esan beharra daukat antzinako heziketan ikaslea zela bere heziketaren erantzule bakarra eta irakasleen muturrerako zorrotasunak ikasle askori ikasketak uzteari eraman dietela. Hau guztia heziketa kudeatzen ez jakiteagatik. Gaurkoan esan dezakegu, ikaslea dela bere heziketaren protagonista eta bere heziketan aktiboki bilatzen dela ikasle guztien partaidetza. Aldaketa honek, eskola uztea gutxitu du eta unibertsitaterako bidea ikasle gehiagok hartzen dute.

### **EDUKIAK**

**4.Saio** honetarako, lan ez-presentzial moduan artikulua bat irakurri eta ideia nagusiak atera behar genituen eta ondorengo landu nuen:

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- Begirada ezberdintasunetan jartzen dugunean, ondorioz, aldaketa eskatzen dugu hezkuntza hobekuntza nabarmentzeko → 4 aldaketetan oinarritzen da.
- **3.1)** Ezberdintasunak guztioi eragiten digute. Ez begiratu ezberdina denari baizik eta guztioi eragiten digu hori. Inteligentzi mota ezberdinak topa ditzakegu (Musikala, Linguistikoa...) Hezkuntzaren oinarria hobetzekotan ikasle ororen ezberdintasunean datza.
- **3.2)** Ezberdintasunak subjektuetan ikustetik, hezkuntzak aurre egin behar dituen behar bezala ikustea. Zergatik?
  - o **3.2.1)** Ezberdintasunak multzokatuak izatea bidezkoa ez da
  - o **3.2.2)** Subjektuetan aldaketa emateko, ingurua oinarri.
  - o **3.2.3)** Inguruak ezberdintasunei erantzuteko gaitasun eza.
- **3.3)** Ezberdintasunak hezkuntza prozesua oztopatzetik, aberasgarri bezala ikustea.
  - o Oinarrizko euskarria baloreen garapenean (Tolerantzia, eskuzabaltasuna, errespetua...)
- **3.4)** Ikaslea ikasle ikustetik, hiritar ikustera eta irakasletik hezitzaile bezala ikustera.
  - o Pertsona hiritar bezala integratu (konpromisoa, arazoei aurre egiteko gai...)
  - o Ikaslearen garapen pertsonala lortuz.
  - o Beti ere, ezberdintasunak ardatz hartuta.

Ondoren, testua zatitu dugu eta puntu bakoitzari mamia atera diogu:

### 3.1)

#### Idea nagusiak:

- Guztiok gara ezberdinak beraz, ikasteko modu ezberdinak. Adimen anitzak. Ikasteko eta irakasteko (erak).
- Garai batean eredu diferentziala → ikasle etiketatuak (Zu itsua zara!, Zu gorra zara!).
- Berak konpondu behar du bere egoera.
- Begirada aldatu behar dugu aniztasun trataerarentz.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

**Hitz gakoak:** Aniztasuna, Eredu diferentziala

**Adibidea:** Ikaslea ez da ona ikasketetan, baina bai xakean. Xakearen bitartez ikasgaiaren oinarriak irakatsi. Hau egiteko denbora eza Curriculumean.

### 3.2 a)

**Idea nagusiak:**

- Ikasleen beharrei erantzuna. Guztiok ditugu beharrak ( Komunak eta Espezifikoak)
- Antzinako eskolan, mailaketa eta homogenizazioa gertatzen zen.
- HPB (Hezkuntza Premia Bereziak) → Haurraren ezintasunak eta testuinguruak bat egon behar dira.
- Ariketa batean itsu bat daukagu. Hor behar bat sortzen da eta inguruak du arazoa beraz ingurua egokitu behar da ez haurra.

**Hitz gakoak:** Homogenizazioa, kategoria, egokitzapen

### 3.2 b)

**Idea nagusiak:**

- Garai batean ikasleak zeukan erantzukizuna.
- Ikasleen gaitasunak, trebetasunak aztertu eta indartu
- Erantzule nagusia, Sistema (Hezkuntza saila), ikastetxea eta irakasle taldea.

### 3.3)

**Idea nagusiak:**

- Aniztasuna arazoa
- Ezberdintasuna ikasteko aukera
- Gizarte demokratikoa...

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

### 3.4)

#### Idea nagusiak:

- Ikaslea hiritar moduan ikustea eta irakaslea hezitzaile moduan.
- Ikasleak nola hezi → Gizarteko kideak hala izango dira.

**Hitz gakoak:** Ezberdintasuna oinarri moduan, hiritar, garapen pertsonala eta soziala eta aukera berdintasuna.

#### Adibidea:

Ikasleari egunerokotasunean sortuko diren arazoak, pertsona ezberdinekin sortuko zaizkion harremanak berdintasunez eta errespetuz tratatu.

Begi ninien adibidean diskriminazio zer den irakasten diete eta horrela, pertsona diskriminatu bat nola sentitzen den ikasten dute. Modu honetan, empatia landuz pertsona diskriminatuekiko.

Artikuluaren azterketa sakona egin eta gero, aurreko egunean erdizka utzi genituen 2 pasarteko ideiak denon artean plazaratu ditugu:

AFEKTIBITATEA	ORDENA
<b>1.PASARTEA</b>	
- Sentimenduak/emozioak	- Ohiturak lantzea, ardurak hartzea, AUTONOMIA/PORTAERAK/JARRERAK
- Giro ona mantendu	- Lankidetzak: Joko kooperatiboak
- Profesionaltasuna: autoritatea	- Arauak adostu: IMPLIKAZIOA, KONPROMEZUAK HARTZEA
neurrian → Oreka emozionala/ auto-kontzeptu (+).	- Talde heterogeneoak → Oreka, gelako giro lasaiagoa, elkartasuna...
	- Arazoei aurre egin: Behatu,

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

aztertu, ikuspegi osoa izan,  
erabakiak hartu → Arauak hautsi=  
neurriak aplikatu.

### 2.PASARTEA

- |   |   |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none"> <li>- Gertutasun fisikoa: lasaitasuna/konfiantza</li> <li>- Motibazioa, auto-kontzeptua, eskerrak eman, goraipamenak...</li> <li>- Ikasleen sentimenduak (antzeman, ulertu, landu)</li> <li>- Integrazioa/elkarlana</li> <li>- Garapen integrala → Jarrera eta emozionala</li> <li>- Planifikazioa: Helburuen lorpena</li> <li>- Elkarreragina: Elkar laguntza.</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>- Osasun mentala zaindu</li> <li>- Irakaslearen trebetasunak: sozializatzeko, arazoak konpontzeko, trebea frustrazioaren aurrean.</li> <li>- Arazoei aurre egin: Behatu, aztertu, ikuspegi osoa izan, erabakiak hartu → Arauak hautsi=<br/>neurriak aplikatu.</li> </ul> |
|---|---|

Gure ustez, bi pasarteak ordenan eta afektibitatean banatuta egon behar dira. Hala ere, bizipenetan bateragarriak direla uste dugu, hau da, bien artean oreka bat egon behar da. Esaterako arauk jartzean (ordena) kontuan izan behar ditugu( alderdi afektiboak).

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### METODOLOGIA:

4. Saio honetan zein eduki landu ditugun azaldu dut eta jarraian eduki hauek zein metodologiaren bitartez landu ditugun azalduko dut. Gaurko saioa hiru dinamika nagusietan banatu da: **Bakarkako lana, Talde lana eta Gela osoko lana.**

#### **1. Bakarkako lana (Ez-presentziala).**

Saio hau gauzatu al izateko ez-presentzialean artikulu baten lanketa egin behar genuen. ( Implicaciones para el cambio educativo surgidas del cambio en la mirada). Hau egiteko, lehenik eta behin, artikulua behin irakurri dut, nondik norakoak zeintzuk ziren identifikatzeko. Ondoren, paragrafo bakoitzeko ideia nagusiak azpimarratuz identifikatu ditut eta amaitzeko ideia nagusien inguruan eskema bat gauzatu dut.

#### **2. Talde lana.**

Ez-presentzialeko lana egina ekarri dugularik talde txikitan jarri gara eta talde bakoitzak artikulua paragrafo bat aztertzea egokitu zaio. Bertan, ideia nagusiak, hitz gakoak eta adibideak jarri behar genituelarik. Lehendabizi, paragrafoa berriro irakurri dugu eta ondoren, bete beharreko 3 puntuak betetzen joan gara denon hitza errespetatuz eta entzunez. Ondoren, gela guztiarekin azken emaitza partekatu dugu.

#### **3. Gela osoko lana.**

Talde txikietan eginikoa amaituta, aurreko eguneko erdizka utzi genituen pasarteei heldu diegu. Pasarte bakoitza bitan banatu dugu, alde afektiboa eta ordenaren aldea. Betebehar hau, denon artean egiten joan gara ideiak arbelean apuntatuz, hitz egiteko txandak errespetatuz eta Olaia gure irakasleak dena koordinatuz.

### HAUSNARKETA:

Jarraian saio honetako eduki, kompetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Saio honetan landu ditugun **edukien** inguruan esan beharra daukat oso egokiak iruditu zaizkidala garai bateko hezkuntza eta etorkizun batekoa alderatu ditugulako. Garai batean ikasketa prozesuaren inguruan bakarra zegoen eta horren bidea jarraitu behar izaten zen. Bide hori jarraitu ezean bazterketaren bidea zuzen zuzenean hartzen zenuen ikasteko aukera galduz. Gaur egun, heziketak bizi duen egoerarekin alderatuz, garai batekoa zulo ilun bat zen. Egungo heziketan, ikasteko modu ezberdinei erreparatzen zaie (Jokoak, abestiak...), ikasleen artean ikaste erritmo ezberdinak daude eta erritmo hauei jarraipen bat eman behar zaie. Baina, ba al dago denborarik, haur bakoitzaren erritmo ezberdinak jarraitzeko? Nire ustez, erantzuna ez da. Curriculumean ezarritako plangintza eta erritmoari jarraitzen dela uste dut eta denbora horren barnean behar guztiei erantzuteko esfortzua egiten da eta kito! Nire ustez, denbora da arazoa, beti denborapean egiten dugu lan, presaka eta estres handiarekin. Hala ere, ez dakit zein izango litzatekeen denborarentzako konponbide egokia Horrez gain, Hezkuntza Premia Berezia beharrezko tresna ikusten dut gaurko heziketan. Horrela, ez gaitasuna bat edo beste duen haur batek gelako taldean edozein dinamika egiterako orduan aukera berdina izateko eskubidea izango du eta hori benetan oso pozgarria iruditzen zait hezigarritasuna maila guztiontzat berdina lortzen ari garelako. Ondorioz, ikasle guztiok heziketa integral bat jasoz. Baina, zerbait gaizki doanen erantzuleak behar ditugu eta nire ustez heziketa batean, hezkuntza sistema, ikastetxea eta irakaslez gain, hezkuntza komunitatea osatzen duen beste faktore batek erantzukizun handia du. Hain zuzen ere, Familia. Hortaz esan dezaket haur eta gurasoen harremana lehendabiziko urteetan oso garrantzitsua dela eta harreman hori nolakoa den kontuan hartuta, hauraren garapena alde batetik edo bestetik har dezake bidea. Hortaz esango nuke, familiak erantzukizun handia duela heziketan. Edukiekin amaituz azpimarratu beharra daukat, erantzukizun handiz ibili behar garela heziketa bat ematerako orduan azken finean, hezten dugun moduan horrelako gizartea izango baitugu.

Konpetentziei dagokienean eta hauen ikaste emaitzen inguruan, 4.saio honetan eta ez-presentzian honakoa landu dudala uste dut. **Konpetentzi espezifikoei** begira, landu ditugun bi pasarteekin, gelan eragina duten aldagaiak izendatu eta deskribatu ditugu eta hauek adibideen bitartez azaldu eta arrazoitzen jakitea. Hortaz aparte, M.Ainscow-en lau ideia gakoak lanketatik Hezkuntzaren begiradaren aldaketaren oinarriak ulertzea eta horren inplikazioak ikustea. **Zeharkako konpetentzien** ikaste emaitzei dagokienean, **(Ikasten**

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

**ikastea**) metodologian azaldu dudak bezala artikulatu eta pasarteak aztertzerako orduan hauen azpimarratzea gauzatu dut eta ondoren eskema-laburpena egin dut. Lan hau ez-presentzialan egiteko, arazorik ez dut izan denbora kontuetan nahiko ondo planifikatu ditudalako egin beharreko gainontzeko lanak eta talde lanak. Honekin batera uste dut, artikuluen ulertze eta hauen laburpenekin saio honetako helburua bete dudala uste dut. **Talde lanari** so eginez, metodologian esan bezala, artikuluen lanketan oso gustura egin dut lan guztion hitza entzun dugulako eta ondoren bakoitzak gaiaren inguruan idatzi beharrekoa partekatu dugulako. Ondoren, gure emaitza talde handira plazaratu dugu eta hitz egite txandak oso ondo errespetatu dira, gainontzeko ikasleek entzute aktibo bat praktikan jarri. Beraz, talde txikian bai handian egoki egin dugula lan uste dut. **Komunikazioari** dagokionean, 4. saio honetan komunikazio oztoko gutxi izan direla uste dut eta egon direnak irakasleak eraginkor jokatu du hauek ekidinez.

Gaurko saiotik, **nire identitate profesionalera** eramango nuke lehenik eta behin, klasean giro on bat izatea. Horrela egin beharreko jardueretan motibazioa sortuz. Hala ere, beti ez dira egoera errazak izango horregatik, auto-kontrola lantzeko gaitasun handia izango dudala uste dut. Hau da, pazientzi handiko pertsona kontsideratzen bainaiz. Horrez gain, nire ikasle guztiak heziketa berdina jasotzeko egingo dut lan eta erritmo ezberdinen aurrean behar den denbora eskainiko dut. Oro har, nire identitaterantz eramaten dut, pertsona ezberdinez gela bat osatua egoteak (Itsua, Afrikarrak, Errusiarak...) elikatu eta aberastu egiten gaitu bai kulturalki eta bai bizikidetzan errespetatuz. Hortaz, irakasle izango naizenean, edukiez gain, egungo bizitzan gertatuko diren arazoei aurre egiten irakatsi nahiko nieke eta pertsona guztiak errespetatzen jakitea. Horrela, gizartea hobetzeko bultzada txiki bat emanez.

### INFORMAZIO GEHIGARRIA:

[2011/01/25](#)

### TUTORETZA PLANA

Aurreko saioan, hezkuntzan inguruko begirada aldaketan eta gelan eragina duten faktoreen inguruan artikulatu bat eta bi pasarte landu genituen. Gaurkoan ordea, tutoretza planari



## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

helduko diogu eta bertan irakasleak bete beharreko funtzioak eta hauen preferentziak aztertuko ditut.

Tutoretza planaren inguruan esan beharra daukat irakasleentzako ikasturte baterako gida moduan ikusten dut non bertan azalduko den nola jokatu behar duen hezkuntza komunitateko kide guztiekin. (Ikaslea, irakaslea, familiak, elkarteak...).

### EDUKIAK

**5.saio** honetarako lan ez-presentzial moduan tutoretza planaren inguruko irakurketa egin behar genuen. Saio honetan honako gidoia jarraitu dugu:

1. Tutoretza plana irakurgaia.
2. Tutorearen funtzioak zeintzuk diren.
3. Aurreko artikuluekin lotura
4. Dekalogo sortu. **Hausnarketan**

Irakurketa eta ideia nagusiak ez-presentzian landu ostean, 2. puntuari heldu diogu eta tutorearen funtzioak tutoretza planean oinarrituta zeintzuk diren aztertu ditugu:

### **2.Tutorearen funtzioak:**

Laburbilduz: Ikasle bakoitzaren eta talde osoaren ikasketa eta heldutasun prozesuari jarraipena eta laguntza ematea.

	<i><b>Ikasleei lotutakoak</b></i>	<i><b>Irakasleekin lotuta</b></i>	<i><b>Familia eta beste gizarte eragile batzuei.</b></i>
<b>Tutorearen funtzioak</b>	- Integratzea lagundu eta	- 3 bilera egin beharko dituzte	- Ikastetxe eta hezkuntza
<b>Tutoretza planean</b>	parte hartzea bultzatu.	taldeko irakasleekin.	etapen berri. - Banakako

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

<b>oinarrিতuta.</b>	- Une larrietan ikasleei aholkuak eman	- Tutoretza plana jakinarazi, adostu eta garatu.	hezkuntza prozesuaren jakinaren gainean jarri.
	- Ikasketa prozesuen jarraipen orokorra egitea.	- Ikasleen ezaugarriei buruzko informazioa ematea maila horretako irakasleei.	- Familiak eman dezakeen informazioa jasotzea
	- Ikaskuntza egoerak sortarazi ikasleen orientazioa bultzatuz.	- Ikasleen ebaluazio prozesua koordinatu eta ebaluazio- prozesua egiteko saioak antolatu eta horien buru izan.	- Gurasoei aholkularitza eman
	- Kezkak bideratu.	- Ikasleen zailtasun orokorrei erantzuna (Programazioa n egokitzapenak)	- Seme-alaben parte hartzeaz informatu
		- Curriculumaren egokitzapeneta n laguntzea.	- Familien parte hartzea ikastetxean bultzatu.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

- Eskola
orientazioko
banakako
txostena egitea.
- Irakasgaien
datuak bete.

Tutoretza funtzioak landu ostean, aurreko saioko artikuluko eta pasartearekin loturak egin ditugu:

### 3. Aurreko artikuluekin lotura:

- Ikasleei lotutakoak
  - o Integrazten lagundu/gizarteratzea
  - o Ikaslearen ikaste-prozesuan arduratzea/ beharrei erantzutea.
- Irakasleei lotutakoak
  - o Irakasle taldea eta ikasleen ebaluazio prozesua koordinatu.
  - o Erantzukizuna partekatua da.
- Familia eta beste gizarte eragileei lotutakoak
  - o Irakasleak aholkularitza ematea familiei.
  - o Familien parte hartzea sustatu.

Tutoretza planaren irakurra alde batera utzita, adimen urritasuna duen ikasle baten film laburra ikusi dugu, “Ser y tener.” eta honen inguruan ondorio batzuk atera ditugu:

- Tutoreak duen papera ikusi dugu.
- Beharrei erantzuteko nola egin duen lan. Irakasle, familiarekin, eta ikasle berarekin.
- Komunikazio estiloaren aldaketa hartzailearen arabera.
- Helburua, integrazioa eta garapen pertsonala.
- Irakaslea entzute aktiboa praktikan jartzen du eta hurbilekoa da.
- Ikaslearen potentzialak azpimarratzen ditu. (Ortografia).
- Helburu nagusia bera gainontzekoekin integratzea da.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### METODOLOGIA

5 saio honetan egindakoa azaldu eta gero landutakoa zein metodologiarekin landu dugun azalduko dut. Saio hau bi dinamikatan oinarritu da gehienbat. **Bakarkakoan** eta **Taldeakakoan**.

#### **1. Bakarkako lana (Ez-presentziala eta Dekalogo)**

Saio honetarako Tutoretza planaren irakurra landuta ekarri behar genuen. Denbora kudeaketa eskasa eta gainontzeko lanek gainezka egi didatenez, gainetik egin dut irakurketa eta ezin izan dut laburpenik egin. Ondoren, saioan dekalogo bat osatu dugu eta irakasleen funtzioetan oinarrituta osatu dut.

#### **2. Talde lana**

Tutorearen funtzioak aztertzeke, hiruko taldeetan jarri gara eta irakurra gida genuela, funtzioak eskema moduan apuntatzen joan gara. Ondoren, irakaslearen funtzioak idatzita genituelarik, aurreko artikuluetan antzeko ideiekin lotura egin dugu. Hau egiteke hirurok parte hartu dugu eta azkarrago egin dugu ideien lotura. Saioarekin amaitzeko, talde handian film batean pasarteak ikusi ditugu eta guztion parte hartzearekin pasartearen ondorioak atera ditugu irakurrairekin bat zetozenak.

### HAUSNARKETA

Jarraian saio honetako eduki, konpetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

Gaurko saioan landu dugun tutoretza plana oso beharrezkoa iruditzen zait irakasle batek heziketa mailan egingo duen bidean. Hau da, bertan izango ditu bete beharreko funtzioak egoera eta entitate ezberdinekin.(Irakasle,Ikasle eta Familia edo beste batzuekin). Irakaslea batek funtzio hauek jarraituz gero irakasle perfektuarekin egingo genuen topo. Posible izango al litzateke funtzio horiek beteko lituzken tutorerik? Nire ustez, tutoretza plan honen funtzioak gehiegizkoak dira eta ez dut posible ikusten hauen betetze maila %100

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

beteko denik. Gehienbat funtzio ezberdin asko daudelako, Curriculumaren plangintza jarraitu behar delako, denbora ondo planifikatu behar delako... Hala ere, beharrezkotzat ikusten dut tutoreen funtziok tutoretza plan batean ezartzea baina funtzio kantitatea beraien denbora eta plangintzetara egokituta egotea premiazko funtzioak bete al izateko behintzat. Adibidez, integrazioa bultzatu, gurasoei aholkularitza eman, zailtasunei erantzuna eman programazio aldatzarekin...

Tutorearen funtzio garrantzitsuenak “ser y tener.” filmean antzeman nituen. Nire ustez, hurbiltasuna haurrari transmititzea premiazkoa da bera ingurune seguru batean sentitzeko eta komunikazio bat hasteko pausoa izango litzateke. Horrez gain, irakasleak haurrekin edo familiarekin erabili beharreko komunikazio estiloa ezberdina beharrezkoa da hartzailearen inguruan funtsezkoa den informazioa ateratzeko. Esate baterako, haurra oso itxia dago, ez du hitz egin nahi, horren aurren saiatuko ginateke bai edo ez erantzuneko galderak eginez, tonu goxo bat erabiliz... Horrez gain, haurrak egoera negatibo bat pasatzen ari denean beti eginiko gauza negatiboetan oinarritzen gara eta ohartu behar gara horrekin haurraren auto-estimua ahultzen ari garela. Horregatik, haurrak dezente badu bizi duen egoera negatiboarekin beraz bere indar-guneak azpimarratzea beharrezkoa ikusten dut, bere auto-estimua indartzeko eta poliki-poliki aurrera egiteko.

Saio honetako kompetentziei eta hauen ikaste emaitzei dagokienean, ez-presentzialean eta saio honetan honakoa landu dut. **Kompetentzi espezifiko**en inguruan, tutoretza plana aztertu dut baina sakontasun gutxi emanez eta “ser y tener” filmaren inguruan ondorioak ateratu ditut hauek bai sakontasun handiago batekin. **Zeharkako kompetentziei** dagokienean, ikaste emaitzei begirada bat emanez (**Ikasten ikastea**) esan beharra daukat plangintza eskasa eginagatik eta gainontzeko materietako lanen pilaketagatik, landu beharreko testuaren irakurketa eta azpimarratze soila egiteko denbora izan dut bakarririk. Beraz, tutoretza planaren sakontze lanaren helburua osotasun batean bete ez dudalakoan nago. Kritika honekin azpimarratu nahiko nuke autokritikarako gaitasuna. **Talde lanari** dagokionean, tutorearen funtzioak betetzerakoan, taldekide batek soilik sakonduta zuen irakurketa beraz, bere gidaritzapean burutu dugu dinamika eta talde moduan ez dela jokatu uste dut. Saio honetako **komunikazioari erreparatu**z, tutore funtzioak betetzerakoan taldekide batek hitza zuen eta gainontzekoak bere hitzak entzun ditugu. Entzute aktiboa izan dugu berarengan baina ez da hitzen elkartrukea egon taldekideen artean beraz

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

komunikazioa nahiko pobretzat hartuko nuke. Hala ere, filmaren pasarteak aztertu ditugunean komunikazio paregabea egon dela uste dut, gela guztiaren artean ia denok parte hartu dugulako eta entzute aktiboa denok landu dugulako naiz eta batzuetan irakasle ikasle komunikazioan hainbat oztopo egon (taldekideen ahotsak nireak barne).

Tutorearen funtzioak kontuan hartu eta **nire identitate profesionala** pixkanaka eraikitzeke asmoz. Tutorearen funtzioen artean nire lanbiderako dekalogo osatu dut:

1. **Ikasleen zailtasun orokorrei erantzuna.** *Azken finean denok izan behar dugu modu berean heziketa bat jasotzeko eskubidea. Denok gara hezigarriak.*
2. **Integratzea lagundu eta parte hartzea, egoera emozionalaren adierazpena.** *Edukiei soilik garrantzia emanez ez dugu kontuan hartuko ikaslearen egoera emozionala eta horrek heziketan eragin handia duela uste dut. Beraz, emozionalki eroso sentitu behar dira eskolan.*
3. **Une larrietan ikasleei aholkuak eman.** *Nire ustez, beharrezkoa da sostengu bat izatea, ikasleak moralki ez behera etortzeko.*
4. **Kezkak bideratu.** *Irakaslearen laguntzarekin arazoak xehatu eta ikaslea burua gehiegi ez dezala hartu eta erantzuki ezin guztia ez dezala hartu.*
5. **Familiak eman dezakeen informazioa jaso.** *Irakasleak ez du nabiko informazio eskolakoarekin eta familiaren aldetik gehigarri bat izatea laguntza handikoa izango litzateke hainbat egoeren aurrean konponbideak errazago bilatzeko.*
6. **Familiaren parte hartzea ikastetxean.** *Hezkuntza komunitatea sendotzea ikaslearentzako onura da momentu oro. Horrela familia eta eskolaren arteko heziketa zubia moztuz eta hain alde handikoa ez izaten.*
7. **Komunikazio egoera ezberdinak inguruaren arabera.** *Premiazko nire ustez hurbileko egoera bat lortzeko eta beharrezkoa den informazioa ateratzeko.*
8. **Bitartekaritza lana.** *Beharrezkoa bi alderdien artean komunikazioa sortzeko eta egoera hobetzeko.*
9. **Irakasleen elkarlana.** *Heziketa bateko giltza. Bakoitza bere aldetik badabil ez da zentzurik emango haur ezberdinen heziketari. Arazoak transmititu behar dira, gela ezberdinen egoera elkar partekatatu...*
10. **Aurreko guztiarekin tutoretza planari zentzua eman.** *Funtzioak betetzearen portzentaje altua izatea.*

## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Beraz, esango nuke nire identitate profesionalari begira aipatutako puntuetan oinarrituko nukeela nire lanbidea. Puntu hauekin nire ustez, hezkuntza komunitatearen parte hartzeari eman eta ikasleari garrantzi handia ematen diodala uste dut. Hau da, ikasle heziketaren protagonista gisa.

### **INFORMAZIO GEHIGARRIA:**

Honako atal honetan “ser y tener.” filmaren inguruko pasarteak izango dira ikusgai. Hemendik abiatu ginen ondorioak ateratzeko.

4.pasartea: <http://www.youtube.com/watch?v=D7p0RJC73Xs>

5.pasartea: <http://www.youtube.com/watch?v=VEYJCm3Qo6k>

6.pasartea: <http://www.youtube.com/watch?v=Y9JhQ5S796U>

### **2011/01/28 KOMUNIKAZIOA ETA ALDERDI EMOZIONALA**

Aurreko saioan tutoretza plana aztertu genuen eta bertan irakasleen funtzioen azterketa egin genuen. Horrekin batera, “Ser y tener” pasarte batzuk aztertu genituen. Gaurkoan ordea, komunikazioaren inguruan aritu gara eta alderdi emozionalari ere tartetxo bat eskaini diogu.

Komunikazioa heziketan beharrezko tresna da ikasle irakasleen arteko harremanerako. Hau gabe ez litzateke heziketarik emango. Honekin batera, harremana ematen den momentutik alderdi emozionalak garrantzia handia hartzen du hezkuntzan, dena ez baita eduki hutsean oinarritzen. Eduki eta alderdi emozionalaren artean oreka bat sortu behar da. Ikaslea pertsona ere baita ez ikasteko makina bat.

### **EDUKIAK**

**6.Saio** honetarako ez-presentzian komunikazioaren inguruko irakurtea jorratuta eta eskema ekarri behar genuen eta honakoa izan da emaitza:

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### KOMUNIKAZIOA

#### - KOMUNIKAZIO ASERTIBOA:

- Gatazkaren jatorrian komunikazio urria egoten da. (Gaizki ulertuak)
- Komunikazioa oso alderdi garrantzitsua da gatazkak konpontzeko orduan.
- 3 arrazoiengatik:
  - Komunikazio argia ezinbestekoa da elkar ulertzeko.
  - Onuragarriak diren irtenbideak bilatzea.
  - Komunikazioa lagungarri kultur ezberdintasunak ulertzeko.
- Definizioa: “Mezuak igortzea eta jasotzea.”

#### - OZTOPOAK KOMUNIKAZIOAN:

- Igorlea → Bidea → Jasotzailea.
- 6 oztopo pertsonal ohikoenak:
  - Aurreiritziak
  - Larritasuna edo zama emozionala.
  - Erabilitako mintzaira.
  - Orokortzea
  - Epaitzea edo balioestea
  - Erantzukizuna ez onartzea.
- Inguruneko oztopoak:
  - Zaratak
  - Espazioak
  - Unea
  - Rola
  - Estatusa

#### - KOMUNIKAZIO ERAK:



## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

- Komunikazio **pasiboa**: Sentimenduak adierazteko gai ez. Jaramonik ez egitea.
- Komunikazio **erasotzailea**: Norbere eskubideak defendatzeko molde desegokiak eta mehatxatzaileak.
- Komunikazio **asertiboa**: Sentimenduak adieraztea mehatxurik gabe. Beste pertsonen eskubideak eta beharrak ere errespetatuz.
- Komunikazio asertiboaren teknika nagusietako bat mezuak lehenengo pertsonan egitea da. **Ni-mezuak** igortzea.
- Ni-mezua:
  - Ez dio inori errua egozten eta ez du inor kritikatzten.
  - Jokaera zuzen bati zuzendua egoten da.
  - Hartzaileak entzutea errazten du.
  - Gatazkan goraldia gertatzea galarazten du.
- Ni-mezuaren egitura:
  - Emozioa: Honela sentitzen naiz.
  - Jokaera: Jokaera zehatz bat aipatzen da.
  - Zioa: Zeren eta uste dut
  - Interesa: Behar dut/nahi nuke.

### - **KOMUNIKAZIO ZIRKULUAK:**

- Gure eguneroko komunikazioan: Erantzun → Entzun → Argitu.
- Sarritan igorri nahi dugun mezua entzun gabe erantzuten dugu:
- Entzun → Argitu → Laburtu → Erantzun.

### - **TRESNAK. ENTZUTEAREN GARRANTZIA:**

- Entzuteko 6 era:
  1. Egonarri gutxiko entzutea: Presa sumatu egiten da/mezuak ez dira hautematen.
  2. Entzute egozentrikoa edo auto-erreferentziala: Gure buruaz hitz egiteko aitzakia.
  3. Entzute interbentzionista: Ideia ugari ematen ditu/irtenbideak eskaintzeko joera.
  4. Defentsiban dagoen entzutea: Entzuleak bere burua ustezko eraso batetik babesten saiatzen da.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

5. Epaitzen duen entzutea: Beste pertsona kritikatzeari/ “Zuri gertatzen zaizuna da.”
6. Entzute entzungorra: Erantzuna pentsatzen du/Ez du entzuten.

### - ENTZUTE AKTIBOA:

- o **Zer da?** Solaskide bat guri adierazten ahalegintzen denaren aurrean irekiak izatea eta hala agertzea da, bai ahozko mintzairak, bai hitzik gabeko mintzairaz.
- o **Zertarako balio du?** Entzuten ari garen pertsonari sentiaraztekoa, gauza gehiago kontatzen jarrai dezan, behar bezala ulertzen ari garela ziurtatzeko eta lagundu al izateko.
- o **Nola egiten da?** Jarrera/Hitzik gabeko mintzaira/Ahozko hizkuntza.
- o **Nola ez da egin behar?** Epaituz/ Irtenbideak emanez...

### - GALDETZEA ETA ARGITZEA:

- o Galdera itxiak:
  - Bai edo ez erantzunez.
  - Aditz batez hasi.
- o Galdera irekiak:
  - Solaskidearen erantzuna baldintzatzen ez duten galderak dira.
  - Zer, nola eta noiz galderak dira.
  - Egoera, Jokaera, Helburu edo prozesuei buruz.

Komunikazioaren inguruko laburpen hau ez-presentzialari dagokio eta saio honen hasieran, presentzian hain zuzen ere, **bi pasarte** ikusi ditugu. Bata gelako gatazka batena eta bestea, etxeko arazo batena. Bi pasarte hauen ondorioak atera ditugu:

- Klima egokia bilatzea
- Galdera bidez emozioak aurkitzen ditu.
- Ikaslearen alderdi pertsonalera hurbiltzea irakasle enpatikoa.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

- Adimen emozionala landu.
- Alfabetatze emozionala.
- Gatazkaren aurrean irakasleak bitartekari lana egiten du.
- Txandak kudeatu.


Bi pasarteak aztertu ostean **adimen emozionalaren** inguruko **hitzaldi** bat jaso dugu irakaslearen eskutik:

### 1. D.Golemanen ekarpena.

- a. Sentimenduak ezagutzeko gaitasuna da.
- b. Sentimendu, nortasun eta bulkada moralaren (kulturak eragina) lotura da.
- c. Adimen arrazionala eta emozionalaren arteko oreka.

### 2. Zerk baldintzatzen ditu gure ekintzak?

- a. Joera biologikoetatik eta gure esperientziatik ditugu.  
(Sentimenduak/arrazonamendua)
- b. Bulkada
- c. Emozioak (Kontrola eta oreka ematen dute egoera berrietan)
  - i. Auto-kontrola.(Egoerei nola erantzun)
  - ii. Besteen emozioen kontrola.
- d. Ekintza



### 3. Zer egin dezake eskolak?

- a. Adimen kontziente altua, zoriontasunik ez.
- b. Emozioak lantzearen arabera, bizitzan aurrera edo oztopoak.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

- c. Emozioak irakatsi. Alfabetatze emozionala.
- d. Nola lortu? Proiektuak landuz, tutoretza landuz, gela irekian lan eginez, komunikazioa landuz, autonomia bultzatuz, gaitasun sozialak garatuz, erantzukizuna emanaz...

Hitzaldia jaso eta gero taldeka komunikazio egoera ezberdinen antzezlanak eta hauen azterketa burutu dugu:

Egoerak	Komunikazio estiloa	Oztopoak
<p><b>1. Tutorea- ikaslea:</b> Tutoreak bronka/diskurtsoa botatzen dio ikasleari, komunikazio <u>jarrera</u> <u>erasotzailea</u> adieraziz.</p>	<p>- Komunikazio erasotzailea: Ikasle-ikasle/ irakasle-ikasle.</p>	<p>- Irakaslearen autokontrol eta gatazkak bideratzeko gaitasun eza. - Epaietak une oro. - Testuingurua ez da egokia izan, bertan egin baitu.</p>
<p><b>2. Irakasleak ebaluazio bileran:</b> Komunikazio jarrera ezberdinak ikusi behar dira. Tutoreak <u>pasiboki</u> jokatzeko du.</p>	<p>- Komunikazio pasiboa</p>	<p>- Ebaluazio bilera desegokia - Irakasle isila</p>
<p><b>3. Tutorea- ikaslearen ama: Ama ijitoa da eta tutoreak honek dioena entzun ordez, <u>epaitu</u> egiten du</b></p>	<p>- Komunikazio erasotzailea pasiboa. - Epaiaketa aurreiritzietan</p>	<p>- Hizkuntza eta - Irakasleak ez zion hizketan uzten. - Hurbilpenik ez dago.</p>

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

oinarrituta.

<p><b>4. Tutorea- ikaslearen ama: Ama ijitoa da eta honek diosenaren aurrean, tutoreak <u>entzute aktiboa</u> adierazten du.</b></p>	<p>- Komunikazio aktiboa</p>	<p>-Ez  - Aurreiritzirik gabekoa  - Laguntzeko prest. Alderdi indartsuak azpimarratu.</p>
--	----------------------------------	---

---

<p><b>5. Irakasleak ebaluazio bileran: Komunikazio jarrera ezberdinak ikusi behar dira. Tutoreak <u>asertiboki</u> jokatzeko du.</b></p>	<p>- Komunikazio asertiboa.</p>	<p>-Ez  - Gatazka ondoren nola sentitzen den transmititzen du.  - Tonu eta gorpuz adierazpen egokia inguru egoki bat sortuz.  -</p>
--	---------------------------------	---

---

## METODOLOGIA

6.saio honetan landu ditugun edukiak kontuan hartuta, hauek nola landu ditugun azalduko dut ondorengo puntuan. Saio hau barkakako lanean, taldekakoan eta gela osokoa oinarritu da.

### **1.Bakarkako lana (Ez-presentziala)**

6.saio honetarako komunikazioaren inguruko irakurra landuta ekarri behar genuen. Horretarako, hau etxean landu nuen toki lasai batean lehendabiziko irakurketa egin eta ideia nagusiak azpimarratzen joateko. Ondoren, azpimarratutakoa berriro irakurtzen nuen eta

## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

laburpen eskema osatzen joaten nintzen. Eskema egina nuelarik, begirada bat eman nion. Horrez gain, saio honetan bakarkako dinamika bat gauzatu dugu non egoera x baten aurrean nola sentitu eta zein bulkadak egitera eraman gaituen egoera horrek erantzun behar izan dugu.

### **2. Talde lana.**

Saio honetan talde lanari dagokionean esan beharra daukat egoeren antzezlanetan jardun dugula. Gela osoa lauко taldetan banatu gara eta talde bakoitzari egoera bat egokitu zaio. Egoera horren aurrean taldekide guztiak ideiak bota ditugu antzezlan bideratzeko eta prest geundenean, gainontzeko taldeak ikusten zeuden bitartean talde bakoitza bere antzezlan burutu du ikaskide guztien aurrean.

### **3. Gela osoko dinamikak. (Hitzaldia)**

Gaurko saioko dinamika gehienak gelakide guztien parte hartzea bultzatzeko helburukoak izan dira. Lehenik eta behin, link batzuen bitartez bi pasarte ikusi ditugu eta guztion artean ondorio orokorrak atera ditugu. Ondoren, gela osoari zuzenduta egon den hitzaldi bat jaso dugu, irakaslearen eskutik Power point bidez. Saioaren azkeneko dinamikaren artean, komunikazioa eskolako bizikidetzan duen ondorio positibo eta negatiboak arbelean taula bat osatuz egin dugu. Irakasleak arbelean idazten zuen guk parte hartzen genuen heinean.

## **HAUSNARKETA**

Jarraian saio honetako eduki, konpetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

Gaurko saioan komunikazio eta adimen emozionala gaiei heltzea oso interesgarria iruditu zait. Lehenengoa asko sakondu dugulako honen ezaugarri guztiak mamituz eta praktikan jarritz. Bigarrena ordea, gure aurrezagutzak indartzeko baliogarria izan delako.

Komunikazioaren gaia aztertuz, esan dezaket komunikazioa heziketa lanean nola lantzen den beharrezkotzat jotzen dut. Horregatik, komunikazioa jorratu dugunean ezinbestekotzat

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

ikusi dut hezkuntza mailan irakasle, ikasle, familia eta hezkuntza komunitateko parte guztien artean komunikazio asertiboa, oztoporik gabekoa (Zaratak, aurreiritziak...) eta entzute aktibo batekoa izan behar dela. Hau egin ezean, hezkuntza komunitateak komunikazio urria eta eskasa izango luke bertako kideak direnei beraien garapen pertsonala eta profesionala oztopatuz. Komunikazioaren premiazko ezaugarriak lantzeko oso dinamika aberasgarria praktikan jarri dugula uste dut. Izan ere nire ustez, kasu batzuk antzetzuz modu egokiago batean identifikatzen dira komunikazioaren ezaugarriak. Honen bestez Rol playing bat egin dugu, ikusten genituen komunikazio ezaugarri bai positibo eta negatiboak mamituz. Dinamika honetan asko ikusi eta identifikatu ditudala uste dut eta landutakoarekin koherentzia aurkitu diodala uste dut. Komunikazioaren alderdi positibo eta negatiboak aztertuta taula bat osatu dugu eta horrela banatuko genituela uste dugu:

POSITIBOAK	NEGATIBOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>→ Entzute aktiboa</li> <li>→ Galderak</li> <li>→ Komunikazio asertiboa (Ni-mezua)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>→ Pertsonalak eta inguruko oztopoak (aurreiritziak, orokortzea, zaratak, unea...)</li> <li>→ Komunikazio erasotzailea/pasiboa</li> <li>→ Komunikazio zirkuluak (erantzun, entzun eta argitu)</li> </ul>

Adimen emozionalari erreferentzia eginez, oso baliagarria egin zait nituen aurrezagutzak indartzeko. Esate baterako, ekintzen baldintzapenen eskema. Sentimenduak → Bulkada → Emozioak → Ekintza. Adimen emozionalarekin lotuta bizitako esperientzi bat aztertu dut non hainbat emozio antzeman nituen: HUHEZI unibertsitatean onartua izateko momentuak. Momentu horietan sekulako urduritasuna eta ezinegona neukan, bada aurreko urtean kanpoan geratu nintzen nire zalantzenatik eta aurten ez nuen nahi berdina pasatzea. Lista ikusi nuenean ordezkoen zerrendan aurkitzen nintzen, momentu horretan okerrena pentsatzen nuen, berriro kanpoan! Baina egun batean bat-batean, dei bat jaso nuen plaza nuenaren berri esanez. Momentu horretan, sekulako poztasuna izan nuen, azken finean

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

betidanik gustatu izan zait irakasle ikasketa berri hau jasota lasaitasun sakon batetik uda parte ederki gozatu nuen.

Saio honetako kompetentziari eta hauen ikaste emaitzei dagokionean, ez-presentzian eta saio honetan honakoa landu dut. **Kompetentzi espezifiko**ei begira eta hauen ikaste emaitzei zuzenduta, gaurkoan, pasarte, komunikazioaren gaia eta adimen emozionalaren hitzaldiarekin, gatazka sortu aurreko baldintzak ezagutu eta azaldu ditugula uste dut (gelako klima, bizikidetzaren, komunikazio eraginkorra...). **Zeharkako kompetentziari (ikasten ikastea)** dagokionean, ikasten ikasteari eta honen ikaste emaitzak aztertuz esan beharra daukat saio honetarako, bai presentzial eta ez-presentzian, plangintza zuzen bete dudala eta horren ondorioz, landu beharreko testuaren lanketa, laburpena eta eskema egin dut, beraz, gaurko saioaren helburu nagusia bete dudala uste dut. **Talde lanari** dagokionean, pasartean antzezlanetan talde moduan ez dugula jokatu uste dut. Antzezlanetan denok prestatu dugu baina gero antzezlan horren parte hartzean bi pertsonen soilik hartu dute parte nire taldean. Ondorioz, esango nuke hanka motz geratu zaigula talde lan hori pasartean antzezterakoan. **Komunikazioari** aipu bat eginez, gaurkoan komunikazio egoki eta oztopo gabea izan dela uste dut. Bai pasarteak entzuterakoan eta bai hitzaldia azaltzerako orduan. Beraz, oro har entzute aktibo batez jardun dugula esango nuke.

Amaitzeko, saio hau kontuan hartuz eta nire **identitate profesionala** eraikitze bidean, gaurkoan nire identitate profesionala aberastu dezaketen oinarriko kontzeptu batzuk azpimarratu nahiko nituzke. Lehenik eta behin, adimen emozionalari eman nahiko nioke garrantzia. Hau nire ikasleei irakastea ezinbestekotzat ikusten dut ikasleak edukiak barneratzeaz gain eguneroko bizikidetzan sor daitezkeen egoeren aurrean aurrera egiteko. Azken finean ikasle izateaz gain hiritar bezala prestatu behar ditugula uste dut. Emozionalki prestatu ezean oztopoak sor baitaitezke eguneroko bizikidetzan. Hala ere, emozionaltasuna ez dago nire esku baizik eta izango naizen eskolaren proiektuen oinarrietan egon behar da. Horrez gain, aztertu ditugun 2 pasarteetatik hainbat jokabide bereganatuko nituzke nire identitatearentzat gatazkak sortzen diren momentuan. Esate baterako, toki aproposa bilatzea gatazkari bide egokia emateko, irakaslea enpatikoa izatea eta haurren egoera jartzen saiatzea, familiarekin harreman ona izatea eta haurren informazio gehigarria eskuratzea gatazkak bideratu ahal izateko... Beraz, gaurko saiotik nire identitate profesionalerantz gatazkei aurre egiteko hainbat pauso eta emozionaltasunaren lanketa bereganatuko nituzke.



## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### **INFORMAZIO GEHIGARRIA:**

Ondorengo pasartea irakasle batek familiarekin izatearen harremana zein garrantzitsua den azpimarratzen du.

<http://www.youtube.com/watch?v=dA1ogXCwHmI>

### **2011/02/01 ZEHARKAKO KONPETENTZIEI BEGIRADA**

Aurreko saioan komunikazio eta adimen emozionalaren inguruan aritu ginen. Gaurkoan, komunikazio eza eta adimen emozionalaren garrantzi faltagatik hainbat gatazka sor daitezke ikasgelan. Hortik, gatazken bidez nola hezi landuko dugu gaur. Horrez gain zeharkako kompetentzietan tokia eskainiko diogu gaurkoan.

Gatazken inguruan esan beharra daukat egunerokotasunean sortzen den egoera dela gizakiaren arteko harremanen ondorioz. Hala ere, gatazka tresna pedagogiko egokitzat hartzen dut bertatik gauza positibo asko atera baitaitezke nahiz eta, negatiboki kalte gehiago egin. Irakasleontz betebeharra gatazkei konponbidea ematea da, suhiltzaileak sua itzaltzen duen moduan.

### **EDUKIAK**

**7.saio** honetan, ez-presentzialean egin beharreko irakurketa *“Educar en y para el conflicto.”* landuta ekarri behar genuen eta honakoa izan da emaitza:

Gatazkan **4 alderdi** identifika ditzakegu:

#### **1. Gatazkaren alderdi positiboa:**

- a. Ikasteko aukera bezala ikusi.
- b. Ezberdintasunak aberasgarri bezala ikusi
- c. Gatazka ez da indarkeria

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- d. Gatazka prozesua: beharrak, arazoa eta honi aurre egin ezean, krisia.

### 2. Esku-hartze prozesua:

- a. Ingurune egokia eta konfiantzazko bat sortzea.
- b. Beraien identitatea sortzen laguntzea.
- c. Besteak errespetatzen irakastea.
- d. Beraien arteko komunikazioa landu.
- e. Adostasun erabakiak hartu.
- f. Kooperazioa landu.

### 3. Analisia eta negoziazioa:

- a. Pertsona, prozesua eta arazoa bereiztea.
  - i. **Pertsonak:** Beraien iritzia adierazi eta besteena entzuten ikastea, bakoitzaren sentimenduak aitortu eta onartzen ikastea, beraien irudia zaintzea eta potentzien arteko oreka mantentzea.
  - ii. **Prozesua:** Dinamika suntsitzaileak kontrolatzen ikastea, prozesuak jarraian aztertzea eta gatazka konpontzeko arau batzuk komunean jarri.
  - iii. **Arazoa:** Arazoa zein den jakiteko, bakoitzaren beharretan arreta jartzea, hauek kanporatzen eta aitortzen jakitea.
    1. Irtenbideak topatzea: eskura ditugun baliabideak ikuskatzea.
    2. Metodologia: ikuskatze teknikak lantzea: kontuan hartzea aspektu arrazionala eta emozionala, enpatia, arazoen zergatia aztertzea, irtenbideak pentsatu...

### 4. Bitartekaritza lana:

- a. Gatazkak beraien artean konpontzen saiatu ondoren eta lortu ezean, bitartekari baten laguntza eskatzea.
- b. Bitartekaria ez du zertan neutrala izan behar, batzuetan botere gutxien duenaren alde jarri behar baita, botere hori orekatua izan dadin.

*“Educar en y para el conflicto.”* aztertu ondoren binaka jarri gara eta testuaren inguruko ideia nagusiak partekatu ditugu. Hau amaitzean, binaka ere, zeharka kompetentzici heldu diegu

## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

eta hauen betetze maila norainokoa den eta hobetzekoak identifikatu ditugu. Ondoren, klase osoan ideia guztiak partekatu ditugu. Hala ere, puntu hau hausnarketan landuko dut kompetentzien ikaste emaitzekin batera.

### **METODOLOGIA**

7. saio honetan jorratutako dinamika nagusiak hiru izan dira. Bakarkakoa, binakakoa eta taldekoa.

#### **1. Bakarkakoa (Ez-presentziala).**

“Educar en y para el conflicto.” irakurgai jorratu dut. Lehenik eta behin, azaleko irakurketa egin nuen eta ondoren ideia nagusiak azpimarratu. Hau egin ostean, paper mutur batean eskema gauzatzen hasi nintzen ideia nagusiak kontuan hartuta eta gaiari lotura eta kohesioa emanez.

#### **2. Binaka**

Txandak errespetatuz, irakurgairen inguruko ideiak partekatu ditugu bakoitzak genituen eskemetako ideiak osatuz. Ondoren zeharkako kompetentzien betetze maila aztertu ditugu bakoitzak nola lan egiten duen inguruan bata besteari entzunez eta indargune/hobetzekoak aztertuz.

#### **3. Talde lana**

Binaka zeharkako kompetentzien indar-guneak eta hobetzekoak binaka aztertu ondoren klase guztiaren parte hartzearekin, eta irakaslearen laguntzaz, hainbat proposamen eman genituen hobetzeko alderdiei begira eta indartzekoak mantentzeko bidean.

### **HAUSNARKETA**

Jarraian saio honetako eduki, kompetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

7. saio honetan landutako **edukien** inguruan ez naiz asko luzatuko. “*Educar en y para el conflicto.*” aproposa iruditu zait azken finean gatazka ezberdinak kudeatzen jakin behar baitugu. Aurretik esan bezala, suhiltzaile baten betebeharra sua itzaltzea baldin bada, irakaslearena gatazkak kudeatzea izango litzateke. Horrez gain, gatazka bakoitzaren iturria ezberdina izango da eta iturburua ezagutu behar dela ikasi dugu. Gainera, gatazkari testuinguru egoki bat eman behar zaiola ikasi dugu gatazka konpontzeko bidean eta erabili beharreko komunikazioa hurbila eta ez erasokorra izan behar dela. Gaurko saioan jorratutako edukia oso erabilgarria iruditu zait etorkizuneko praktiketarako. Hala ere, hori da saio honi falta izan zaiona agian, testua landu eta gero hainbat pasarte antzeztea landutakoa bertan ikusiz eta praktikan jarritz.

Saio honetan eta ez-presentzian landutakoa konpetentziak eta hauen ikaste emaitzak honakoak izan dira. **Konpetentzi espezifikoei** dagokionean eta hauen ikaste emaitzak aztertuz, gaurko saioan, gatazkan nola hezi behar den ikasi dugu eta nola gatazka ondo kudeatu ezean ikaste prozesua oztopo dezakeela konturatu gara. **Zeharkako konpetentziak (ikasten ikastea)** aztertuz gaurkoan azalpen zabalagoa eskainiko dut gelan binaka hau landu baitugu. Lehenik eta behin, pertsonalki testua ordu ez-presentzialetan aztertzean denbora aldetik oso ondo aritu naiz eta lasai-lasai aztertu dut testua lehendabiziko irakurketa batekin. Ondoren, ideia nagusiak azpimarratzen joan naiz eta azkenik ideiak oinarri hartuta eskema gauzatu dut. Hasiera batean eskemaren bitartez gaiari koherentzia ematea kosta egin zait baina azkenean eskema gauzatu dut. Eskema egina nuelarik ikasitakoaren kontzienteago nintzela ohartu naiz, eskemaren bitartez argia ikusten baintuen ideien arteko lotura. Zeharkako konpetentziekin jarraituz eta presentzian landutakoa kontuan hartuta, binaka (Irati.J) zeharkako konpetentziak nola betetzen genituen eztabaidatzen izan gara eta hauxe izan da emaitza:

- **Indar-guneak**
  - o Irakurri eta azpimarratu. (Ulertzea errazten du)
  - o Laburpenak. (Ideiak paragrafo alboetan)
  - o Baliabideen aurreikuspena egin. (Denborarik ez da galtzen)
  - o Autokritika egiten dugu. (Hurrengorako hobetzeko)
- **Hobetzekoak**

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

- o Eskemak ez ditugu egiten. (Ideiak hobeto antolatu behar ditugu)

Binakako lana amaitzean, zeharkako kompetentzien inguruan gela osoa irakaslea barne hainbat proposamen bota ditugu, gure zeharkako kompetentziak hobetze aldera.

1. Ohiturak hartu
2. Eskemak egitea
3. Leku egokia aukeratu
4. Autokritika neurrian
5. Hitz gakoak erabili
6. Helburu lorgarriak formulatu

Gaurko saioan **talde lanari** dagokionean ez dugu asko sakondu, soilik binaka lanean aritu garenean oso ondo koordinatu garelako informazioa tartekatzean eta taldekide guztien artean proposamenak botatzean parte hartzea ugaria izan denez erraztasun handiagorekin egin dugula. Orokorrean ondo egin dugula lan esango nuke. **Komunikazio eraginkorrari** dagokionean esan beharra daukat binaka aritu garenean hasieran lotsa pixkarekin aritu garelako ez baitugu harreman oso estua baina poliki-poliki komunikazioa arintzen joan da. Entzute aktiboa landu dugu, bata besteari adi entzunez eta esaten duenari garrantzia emanez. Talde osoan zeharkako kompetentzien inguruan proposamenak botatzen hasi garenean, irakaslearen koordinazioarekin, txandak errespetatuz ideiak ematen hasi gara. Beraz, gaurko saioan komunikazioan oztoporik ez eta egoki komunikatu garelako esango nuke.

Gaurko saiotik nire **identitate profesionalerantz** jorratutako dena eramango nuke. Alde batetik, gatazkaren testua oso baliogarri iruditzen zait zeren eta irakasle izango garen bide honetan mila gatazkarekin topatuko garelako eta hauei irtenbidea nola eman behar zaien jakin behar dugulako. (Bitartekari bat ezarri, giro egokia ezarri, familiarekin harremana...)

Bestetik, zeharkako kompetentzien inguruan bata bestearen baloratzea premiazkoa iruditzen zait, azken finean irakasle bilera asko izango ditugulako eta beste irakasle baten ikasleak ere baloratu beharko ditugulako. Horretarako, beharrezkotzat ikusten dut irakasle mailan kritika eraikitzaileak zure ikasle baten inguruan egitean onartzen jakin behar dugula eta ez ikasle horrekiko dugun ikuspegian ixten.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### **INFORMAZIO GEHIGARRIA:**

Testu hau, “ Educar en y para el conflicto.” bezala, ez-presentzian landu behar izan genuen. Bertan, gatazka nola bizikidetzaren parte dela eta zein dinamiken bitartez egin daitekeen aurre gatazka hauei. (Rol playing-ak, asanbladak, idatzizko lanak...)

 [Hik Hasi aldizkaria: Blanca Kerejetaren artikulua](#)

### **2011/02/04 IKASTE KOADERNOA ETA EGOEREN AZTERKETA**

Aurreko saioan zeharkako konpetentzia (ikasten ikastea) aztertu eta gatazkaren testua aztertu ondoren, gaurkoan ildo beretik lan egingo dugu. Lehenik eta behin, ikasten ikasteari dagokionean nola lantzen ditugun testuak eta ikaste koadernoak. Bigarrenik, gatazkaren gaiarekin jarraituz 2 egoera aztertu ditugu.

Ikasten ikasteari dagokionez, lanak edo eginbeharrekoak nahiko eguneratuta eramaten ditudala uste dut. Beraz, helburuak eta plangintza egokia eramaten dudala uste dut. Gatazkaren arloari dagokionean, oso garrantzitsua iruditzen zait egoera praktikoekin teoria lantzea, azken finean, horrekin egingo baitugu topo irakasle izandakoan.

### **EDUKIAK**

**8.saio** honi hasiera emateko, 3 ikasle arbelera irten dira beraien eskemak egiteko era azaltzera. Honela, ikasten ikastea konpetentzia landu dugu (planifikazio-eskema). Ikasle baten adibidea honakoa izan da:

#### 1.Adibidea.

*1.Izēnburua*

*2.Ideia nagusiak*

*2.1 Azpi ideiak*

*3.Adibideak*

*4.Hitz gakoak nabarmendu (kolore ezberdinak)*

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

Beste ikasleen eskemen egiturekin alderatuz hainbat antzekotasun eta desberdintasun sumatu ditugu. Horrez gain, hobetzekoak gehitu ditugu.

- Antzekotasunak: Izenburuak, zenbakiak, azpimultzoak...
- Desberdintasunak: Bakoitzak antolatzen du, testuaren arabera antolaketa, hitzak erabili loturak egiteko...
- Hobetzekoak: Adibideak gehitu, ideiak nire erara gehitu, galderak ezarri.

Dinamika hau amaitu ostean, **binaka** (Miriam) jarri gara eta ikaste koadernoan egiteko erabiltzen dugun metodologia elkar trukatu dugu.

### MIRIAM:

- Antolatuta: Edukiak, metodologia eta hausnarketa.
- Indartzekoak: Zeharkako konpetentziak aipatu, identitate profesionalera hurbildu, eskema edo irudien beharra.
- Indar-guneak: Informazio gehigarria eta taulak.

Ikaste koadernoan egitura binaka partekatu ondoren, **talde handian** indartzeko eta indar-gune gehiago identifikatu ditugu.

INDARTZEKOAK	INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>- Ikaste emaitzak azaldu.</li> <li>- Aurrezagutzak aipatu eta lotu.</li> <li>- Dinamikak helburuekin lotu.</li> <li>- Identitate profesionalerantz hurbildu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Antolaketa (Saioka eta orokorra)</li> <li>- Sentimenduak</li> <li>- Garbia/argia</li> <li>- Materien arteko lotura. 1.3 eta 1.7</li> <li>- Konpetentziak aipatu (Zk eta Ke)</li> <li>- Adibideak bizipenak.</li> <li>- Informazio gehigarria → Iruzkina</li> <li>- Loturak.</li> </ul>

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Gaia aldatuz, gatazkei heldu diegu ondoren eta 2 egoera ezberdin kontuan hartuta, “Educar en y para el conflicto.” Eta B.Kerejetaren artikuluen ideiak aplikatu behar izan ditugu **taldeka** egoerak ebazteko.

### **1. Egoera:** *Irakasle klastroan gatazka handia dago. (“Educar en y para el conflicto.”)*

- Lehendabizi gatazka modu positibo batean planteatu.
- Momentu negatiboetatik zerbait positiboa ateratzen jakin behar da.
- Elkarren arteko errespetua landu. (Entzun, txandak errespetatu,...)
- Erabakiak adostuta hartzea eta talde moduan jokatzera. (kooperazioa)
- Beharrak identifikatu gure ahalgunei erreparatu eta bitartekoak ezarri.
- Enpatia aplikatu, auto-kontrola...
- Bitartekaritza eta mugak jarri.

### **2.Egoera:** *Bi haur talde eta tarteka erasoak beraien artean.(B.Kerejeta, Hik basi)*

- Haurrak beraien artean gatazka konpondu irakaslearen laguntzaz.
- Alderdi positiboak identifikatu.
- Eskola, familia erantzukizun bera dute.
- Metodologia ezberdinak erabili:
  - o Rol playing.
  - o Hausnarketak.
  - o Kooperazioa.
  - o Asanblada.
  - o Bitartekaritza.
  - o Koloretako betaurrekoak.



## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### **METODOLOGIA**

Gaurko 8.saio hau nahiko dinamikoa izan dela nabarmendu daiteke. Gaurkoan, talde osoan, binaka eta talde txikien bitartez lan egin baitugu.

#### **1. Binaka (Miriam)**

Binakakoari dagokionean ikaste koadernoaren egituraketa nola lantzen dugun partekatu dugu. Lehendabizi batek hitz eginez eta ondoren besteak. Bakoitzak hitz egiten genuenean ikaste koadernoaren antolaketa, indartzekoak eta zein indargune somatzen genituen azpimarratzen genituen.

#### **2. Talde osoan**

Talde osoari erreferentzia egiten diodanean, klase guztiarentzako dinamika denean diot. Dinamika honetan txandak errespetatuz, eta irakasleak txandak ondo kudeatuz, ikaste koadernoarentzako gehitzeko dauden indar-guneak eta hobetzekoa identifikatu ditugu arbelean plasmatur.

#### **3. Talde txikiak (4)**

Saio honetan egoerei ebazpena emateko talde txikietan jardun dugu. Landuta genituen irakurketak aplikatuz, egoera bakoitzari ebazpenerako ideiak botatzen joan gara txandak errespetatuz eta ideia bakoitza ondo entzunez eta eztabaidatuz. Lan hau egiteko klasearen espazio guztiez baliatu gara taldeak ondo sakabanatuta egonda eta lana lasai egiteko aukera izanez.

### **HAUSNARKETA**

Jarraian saio honetako eduki, konpetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

8. Saio honetarako eta honetan landu ditugun **edukiei** begirada bat emanez, probetxu handikoak iruditu zaizkidala uste dut. Arrazoi nagusia da, teorikoki landuta genituen artikuluak, bai P.Cascón eta B.Kerejetarenak, egoera erreal ezberdinei aplikatu ditugulako, egoera horiek ebazteko helburuarekin. Egoerak ebazterakoan, bi aspektu oso garrantzitsuak iruditu zaizkit, gatazka bat aurrera ateratzeko oinarrizkoak ikusten ditudalako. Alde batetik, gatazka batetik zerbait positiboa aterako dugula beti. Nire esperientzia pertsonalera begirada atzera bueltatuz, nire anaiarekin istiluak izaten nituenean, etxean zerbait desagertzean, (orrazia, jokoren bat, arroparen bat...) beti erruduntzat hartzen nuen eta hortik, bion arteko gatazka bortitza hasia zegoen. Gaur egun, helduagoa naizela, ikasi dut aurretiaz inor epaitzea ez dela eraginkorra zer edo zer bilatzearen bide horretan eta orain, galdutako hori aurkitzean etxeko kide guztiei galdetuz eta informazioa eskuratuz, objektu hori aurkitzea lortzen dut. Horrela, gatazka batetik jarrera positibo bat lortuz. Bestetik, gatazka baten aurrean, funtsezkoa ikusten dut gatazka horretan partaide direnen arteko errespetua, hau da, bertsio ezberdinak elkar entzutea. Hau gertatu ezean, gatazka ez da bide egokian amaituko eta ez du ezer positiboa ateratzeko balio izango uste dut. Beraz, nire ustez, gatazka batean errespetua baldin badago, gatazka bide onetik joango da eta tresna pedagogiko moduan erabilgarria izan daiteke bertatik gauza positibo asko ikasteko.

Gaurko saioko konpetentzietan dagokienez eta hauen ikaste emaitzei ondorengoa esan dezaket. 8. saio honetan landu dugun **konpetentzia espezifikoa**, ikaste zailtasunei aurre hartzen jakitea eta horretarako oinarrizko printzipio pedagogikoak ulertzea eta hezkuntzaren egoeran identifikatzea. Hau da, egoera gatazkatsuak ebazteko landutako artikuluen laguntzaz. **Zeharkako konpetentziak (ikasten ikastea)** aztertuz, gaurko saiorako ez dugu honetan asko jorratu. Azken finean, ez dugu etxerako lanketarik izan. Hori bai, asteko plangintza egina badut ikaste koaderno hau aurreratzen joateko bidean eta hau landu dut ordu ez-presentzialetan. **Talde lanari** heldu diogunean, zeharkako konpetentzien inguruan informazioa elkar trukatzeko izan gara. Esaterako, ikaste koaderno honen indar-guneak eta indartzekoak identifikatuz. Esan beharra daukat, lanketa hau bai binaka eta talde handian egin dugunean, asko balio izan zaidala ikaste koadernoari beste egitura bat emateko eta horrela, nire ustez, ikaste koaderno gehiago aberastuz. **Komunikazio eraginkorrari** dagokionean, eraginkorra izan dela oso esango nuke. Binaka lanean aritu naizenean, oso ondo aritu gara elkarri entzunez eta informazioa partekatzen. Ondoren, talde handian, arbelean ideiak partekatzen hasi garenean, agian txandak

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

errespetatzeko arazoren bat egon da, baina irakasleak berehala konpondu du txandak hobeto kudeatuz. Orokorrean, nahiko saio kompetentea izan dela uste dut, denetarik pixka bat landu eta bete dugulako.

Gaurko saiotik, nire **identitate profesionalean** txertatuta nuen ezaugarri bat landu dudala uste dut. Gatazka modu positiboan ikustea hain zuzen ere. Hala ere, gaurkoan beste alderdi batzuk txertatu dizkiodala uste dut nire identitateari. Alde batetik, gatazkei aurre egiteko, hainbat metodologia eraginkor ezagutu eta barneratu ditut. Hots, hausnarketak, rol-playing, taldekideen arteko kooperazioa, asanbladak, koloretakoa betaurrekoak... Bestetik, jarduera guzti hauek aurrera eramateko ezinbestekoa dela iruditzen zait, elkar lana taldekideen artean, errespetua ardatz hartuta.

### INFORMAZIO GEHIGARRIA:

#### 2011/02/08 MOTIBAZIOA ETA GATAZKA

Aurreko ostiraleko saioan ikaste koadernoaren lanketarekin jardun genuen eta 2 egoera ezberdin ebatzi edo aurrera atera genituen bi testuen gidaritzapeanean. Gaurkoan, ikaste koadernoan alde batera utziko dugu eta aurreko eguneko egoerak talde handian osatuko dugu eta motibazioa eta gatazka gaiak landuko ditugu.

Nire ezagutzetatik abiatuz, esan dezaket motibazioa funtsezko tresna dela ikasketa batzuk aurrera ateratzeko bidean. Izan ere, ikaslea motibaturik ez badago, ikasketa prozesuari ez dio zentzurik aurkituko. Hau horrela izanik, ikaslea gatazkarako bidea hartzeko erraztasun handiagoa duela iruditzen zait.

### EDUKIAK

**9. Saio** honi hasiera emateko, ordu **ez-presentzialetan** 2 artikulua irakurri behar izan genituen motibazioaren inguruan. Alde batetik, “ Motivaciones que tienen éxito” eta bestetik, “Estrategias motivadoras en el aula.”

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### 1. Artikulua. “Motivaciones que tienen éxito.”

- Motibazioa eraginkorra izateko kontuan hartu beharreko puntuak
  - o Testuinguru lagungarria.
  - o Ikaste maila egokia ikasle bakoitzarentzat.
  - o Helburu ulerkorrak.
  - o Motibazioaren erabilera kontrolatu.
- Arrakastarako bidea kontuan hartuta motibatzea
  - o Arrakastarako programatu.
  - o Helburuak planifikatzen irakatsi.
  - o Ikasleari ahaleginak eta emaitzak ikusten.
  - o Zailtasunen aurrean azalpen argi gehiago.
- Motibazio kanpo pizgarrietatik abiatuz.
  - o Sariak lan onenarengatik (Ahozkoak)
  - o Lehia egokiak prestatu.
  - o Gogor jardun ekintza akademikoen balioan.
- Motibazioa barne pizgarrietatik abiatuz.
  - o Eginbeharrak ikasleen interesei lotu.
  - o Berrikuntza eta monotonia eza.
  - o Erabaki autonomoak.
  - o Berehalako feedback-a.
  - o Irudimenaz jokatu.
  - o Jokoak integratu.
  - o Goi mailako helburuak.
  - o Berdinkideekin sozializazioa. (Eztabaidak)
- Ikaste motibazioa sustatzea metodologia ezberdinak kontuan hartuta.
  - o Interesa sustatu. (Telebista programak)
  - o Itxaropen helburuak plazaratu.
  - o Ikaslearen ardura dena ondo egitearekin lotuta dagoena ekidin.
  - o Interesaren bidea erakutsi.
  - o Eduki abstraktuak.
  - o Ikaslearen auto-motibazioa. (Lehentasunen zerrenda).
  - o Aurretiaz, orientatu eta helburuak ezarri.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### 2. Artikulua. “Estrategias motivadoras en el aula.”

- Eginbearra:
  1. Klasea egituratzeko modua.
  2. Eginbearren zailtasun maila ertaina, motibazioa sustatuz.
  3. Eginbearren, zatiketa.
    - a) Lehen → Eginbeharrerantz orientatu.
    - b) Bitartean → Lanketarantz orientatu.
    - c) Ondoren → Indar-guneak eta hobetzekoak azaldu.
  
- Autoritatea
  - o Irakaslea autoritarioak
  - o Irakasle permisiboak
  - o Irakasle demokratikoak → motibazioaren garapenerako egokiena.
  
- Errekonozimendua
  - o Zer eta nola onestu.
    - Publikoan
    - Pribatuan
  
- Taldean egin beharreko ekintzen ebaluazioa.
  
- Zein ebaluazio?
  - o Arau- iritzi ardatza
  - o Prozesu- emaitza ardatza
  - o Publika- pribatu ardatza.
  
- Denbora: Epe jakin bat ezarrita izateak urduritasuna areagotzen du.
  - o Larritasunean oreka bilatzea.
    - Arrakastaren bidearen ondorioz sortutakoak.
    - Balorazio negatiboak ekiditen ditu.

Artikuluak ez-presentzialen landu ondoren, beste bete behar genuen ez-presentzialeko orduetarako. Hain zuzen ere, bizitako egoera bat idatzi behar genuen non gatazka ikusten zen, talde lana eta komunikazioa barne zeudelarik. Honakoa da nire egoera:

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

*“Taldeko hainbat kideen alferkeriaren aurrean, ez da kide horiekin hitz egiten eta taldeak izango lukeen eraginkortasuna ez da hobetzen”.*

9.saioaren presentzialari dagokionean, aurreko saioko 2 egoerak aztertu ditugu **talde handian** eta talde guztiak proposamen ugari plazaratu ditugu. Hona hemen emaitza:

<b>1. EGOERA</b>	<b>2. EGOERA</b>
- <b>Bertsioak entzun</b>	- <b>Denbora hartu</b>
- <b>Espazio/leku aproposa</b>	- <b>Beraiek konpondu</b>
- <b>Ni mezua erabili</b>	- <b>Haurrak arazoak aurkeztu</b>
- <b>Bitartekaritza</b>	- <b>Entzute aktiboa</b>
- <b>Giroa lasaitu</b>	- <b>Kideen iritzia errespetatu</b>
- <b>2 alderdien beharrak/entzute aktiboa</b>	- <b>Asanblada, ikasle laguntzailea</b>
- <b>Komunikazio eraginkorra</b>	- <b>Simulazioak, rol-playing-ak</b>
- <b>Guztion beharrak asetu: guztiok irabazle</b>	- <b>AUTONOMIA</b>
- <b>Pertsona-gatazka bereizi guztion artean irtenbidea bideratu</b>	- <b>Probentzioa gaitzea</b>
- <b>Posizioa (statusa)</b>	

- **Prebentzioa:** Gatazka bat sortu aurretik, haurrak prestatzea.
- **Probentzioa:** Gatazka aurrean izanda, hartu beharreko neurriak.

Egoerak ondo aztertu ondoren, **hitzaldi** dialogikoa jaso dugu irakaslearen eskutik eta gatazkaren gaia jorratu dugu.

### **GATAZKAN ETA GATAZKARAKO HEZI. (P.CASCÓN)**

#### **1. Gatazkaren ikuspegia:**

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- ☉ Ideia orokortua: zerbait ezkorra, zerbait txarra.
- ☉ Oldarkortasunarekin eta bortxarekin lotura.

### 2. Bortxa, gatazka oker kudeatzearen ondorioa:

Gatazka egoeratan

- ☉ Emozio sendoak izaten dira.
- ☉ Denbora eta energia behar da.

### 3. Ez gaude gatazkak kudeatzeko prest:

Horrek beraz...

- ☉ Segurtasun eza
- ☉ Frustrazioa
- ☉ Ezintasuna
- ☉ Ezjakintasuna

dakar eta ondorioz...

- ☉ Guraso eta hezitzaile eredu EZ baliagarriak ditugu.

### 1. Gatazkaren ikuspegi baikorra:

- ☉ BETI izango dira gatazkak: giza-harremanen parte dira.
- ☉ DESBERDINAK gara: aniztasuna
- ☉ Gizartea alda daiteke: ez dago formula berezirik, BIZIKIDETZA gatazkaz osatzen da

### 2. Gatazka baikorra da:

Eraldaketa sozialerako akuilua:

- ☉ Gatazka hazteko eta eraldatzeko aukera da.
- ☉ Aldaketa orok ez du zertan ona izan behar: nola egiten den da gakoa.

### 3. Tresna pedagogikoa:

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak


Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

- ⊙ Gatazka ikaskuntzarako gunea.
- ⊙ Garrantzitsua hezitzailearen rola: poliziarena, suhiltzailearena, epailearena, ostruka, arbitro, ...
- ⊙ Gatazka = heziketa tresna.
  - > Denbora eskaini gelan.
  - > Ikasleen protagonismoa.: erabakiak, ideiak ematen.

### 3.1 Gatazka prozesu bezala:

1. Jatorria: Beharretan (emozionalak, biologikoak, kulturalak, ...)
2. Beharren kontraesana: arazoa sortzen da.
3. KRISIA: eztanda.
  - > Krisia iritsi arte zain egoten gara.
  - > Une zailenean kokatzen gara: emozioek gain hartuta, jarrera aldaezinak, barneko zauriak, atzera bueltarik gabeko ondorioak.
  - > Berehalako erantzunak eskatzen ditu: Erlojuaren kontrako lehia.
  - > Norbaitek arreta jartzeko modu bortitzak erabili beharra.

### 4. Gatazka aurreko jarrerak: bi ardatz eta lau jarrera:





## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### **METODOLOGIA:**

Gaurko saiorako ordu ez presentzialetan lan dezente egin dugu eta presentzialeko saioa 3 dinamikatan oinarritu da. Lehenik eta behin, **bakarkako lana**. Bigarrenik, **talde handian** eta hirugarrenik, **hitzaldia**.

#### **1. Bakarkako lana (Ez-presentziala)**

Ez-presentzian motibazioaren inguruko 2 artikulua aztertu ditut. Lehena, “Motivaciones que tienen éxito”. Azterketa sakona egin ditut honen inguruan. Ideia nagusiak azpimarratuz eta zati bakoitzaren alboan hitz klabeak hau hobeto ulertzeko. Ondoren, paper mutur batean niretzako ulergarri izan den eskema bat egin dut. 2.artikuluari heltzerako, estrategiena hain zuzen ere, nahiko justu ibili naiz denboraz eta azpimarratzea egitera heldu nahiz bakarrik, ideia nagusienak batuz.

#### **2. Talde handian**

Ez-presentzialen, artikuluen lanketa egin genuelarik, ezagutza horietan oinarrituz, aurreko eguneko egoerak osatzen joan gara. Horretarako, mintegietako taldeetan jarri gara gela osoa eta taldez talde irakasleak txanda kudeatzen joan da egoerak betetzeko asmoarekin. Dinamika honekin, eta talde guztien bozeramailearen partaidetzarekin, egoerak osatu ditugu.

#### **3. Hitzaldia**

Taldekako dinamika amaitzean, hitzaldi bat jaso dugu gatazkaren ingurukoa eta klase guztiari zuzendua izan da. Hitzaldia emateko erabili den baliabidea Power point-a izan da. Denboraz nahiko larri ibili garenez saio amaieran, hitzaldia nahiko esanguratsuki eta arinki azaldua izan da.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### HAUSNARKETA

Jarraian saio honetako eduki, konpetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

Gaurko edukiei begira eta motibazioaren artikuluei helduz, esan beharra daukat, nire uste apalean motibazioa ikaste prozesuaren giltza dela hau aurrera eramateko bidean. Hau da, ikasle asko daude zeintzuk ez dute batere gogoko ikastea eta ikasketekin motibaturik sentitzen ez direnak. Horregatik, ikasle hauek beraien interesguneekin lan egiten, testuinguru egoki batekin, egindako lana errekonozitzen, jokoen bitartez... ikasle hauei ikastea erakargarri bihurtzea izango litzateke helburua. Azken finean, ikaste esanguratsu batekin, ikastea eraginkorragoa bilakatu daiteke. Beraz, esan dezaket motibazioaren inguruko bi testu hauekin asko ikasi dudala, motibazioaren inguruan erabili beharreko puntuetan. Horrez gain, testuen lanketa egina izateak ondorengo taldeko dinamikarako oso baliagarria izan dela esango nuke. Izan ere, egoerak aztertzean eta testuen lanketa talde guztiek egina genuela, egoerak oso ondo osatu ditugu guztion ideiak kontuan hartuz eta oso lan ona egin dugulakoan nago. Horrez gain, gatazkaren inguruan izan dugun hitzaldi dialogikoa oso garrantzitsua izan dela uste dut. Batez ere, aurretik gatazkaren inguruan lanketaren bat egina genuelako eta gaurkoan aurreko ezagutza horiek indartzeko baliagarriak izan direlako. Ez hori bakarrik, beste saioetan esan dudana bezala, gatazketan konpetenteak izatea beharrezkoa ikusten dut, gure rola hori delako, gatazkak kudeatzeko gai izatea, suhiltzailea sua itzaltzeko gai den bezala. Hau guztia kontuan hartuz, gaurko saioa teorikoki irakasle izaterako bide horretan baliagarrienetakoa izan dela uste dut, gehienbat irakasle izateko premiazko aspektuak lan ditugulako. Motibazioaren bizipen bat azpimarratuz eta gaur egungoa gainera, esan behar daukat 1.3 materian aurrera egitea eta lanak eraginkortasunez egiteko giltza motibazioa zela esango nuke. Izan ere, saio hasiera guztietan, joko, bideo edo ipuin pasarte bat irakurtzen zizkigun saioak gogotsu hasteko. Horrela, emaitza oso onak lortu nituen eta orduz geroztik, motibazioaren eraginaz kontzienteagoa naiz.

Gaurko saioan landu ditugun konpetentzien ikaste emaitzak aztertuz, lehenik eta behin **konpetentzi espezifikoak** landuko ditut. 2 artikuluen lanketarekin, ikaste motibazioa eragiteko estrategiak ezagutu ditugu eta egoeretan aplikagarritasuna martxan jarri dugu. Horrez gain, gatazkan dagoen begirada ere aztertu dugu saio amaieran. **Zeharkako**

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

**kompetentziei** dagokionez (**Ikasten ikastea**) artikuluen lanketan, irakurketa eta azpimarratzea bietan landu dut. Eskema egiteko garaian, 1.artikulua sakonki aztertu dut eta 2.artikuluaren eskema egitean oso gaintik egin dut denborak harrapatu nauelako. Beraz, esango nuke plangintza pixka bat motz geratu naizela eta hemendik egiten dut autokritika hurrengo batean denboraz larri ez ibiltzeko. Horrez gain, ordu presentzialetan, teoria egoeretan aplikatu dugunean, ikaskuntza ezberdinen kontzientzia agertu dugu eta argudiatuz, egoerekin lotzen jakin dugu. **Talde lanari** dagokionean, egoerei aurre egin diegu eraginkortasun osoz talde guztiek eta egoerei borobiltasuna eman diegu. Beraz, talde lana eraginkorra izan dela esango nuke egoerak bikain osatu ditugulako eta ebazpen posibleak eman ditugulako. **Komunikazioari** dagokionean, egoeren azterketa egiten hasi garenean, irakasleak taldez talde joan da txandak ondo kudeatuz eta mezuak ondo iritsi dira arbelean plazaratzeko bidean. Horrez gain, hitzaldian denok nahiko adi egon gara eta mezua ondo iritsi zaigu. Aurkezpena, pixka bat aberastu dela esango nuke ikasle ezberdinen parte hartzearekin. Beraz, gaurkoan komunikazio eraginkorra izan dugula esango nuke.

**Identitate profesionalerantz** gauza asko eramango nituzke gaurko saiotik. Izan ere, irakaslearentzako premiazkoak diren ezaugarriak jorratu baititugu. Motibazioaren inguruan, testuinguru egoki bat aurkitzea bezala, ahozko sariak, jokoak erabiltzea... Hala ere, gaurkoan landutako ezaugarri eta eduki asko praktikara eramaneke gai izango naizela uste dut baina, beste asko bidean galduko direla uste dut eta lanean gaudela berriro hartu beharko ditugu ahaztu ez ditzagun. Orokorrean, gaurko saioan gatazka eta motibazioaren inguruan asko ikasi dut eta nire identitate profesionalaren oinarria itxura hartzen doala uste dut irakaslearentzako premiazkoak diren ezaugarriak barneratuz, motibazioa eta gatazka bezala.

### INFORMAZIO GEHIGARRI:

#### **2011/02/11 MOTIBAZIO ARRAKASTATSUAK AZTERTUZ**

Aurreko saioan motibazioa eta gatazka jorratu genituen. Motibazioa bi artikuluen bitartez eta gatazka hitzaldi baten bidez. Horrela, gaurkoan, motibazio arrakastatsuen irakurgingaia sakonduko dugu estrategia bakoitza non aplikatu eta zein onura dakartzan.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Motibazioaren inguruan aurreko saioan ikasitakoa nire aurrezagutzak indartu ditu motibazioaren alorrean. Baina, ikasitako aplikatzea funtsezkoa dela iruditzen zait. Aurretik, esperientzi gutxi izan dudanez, ez nahiz kontziente izan nola aplikatu eta zer aplikatu behar zen. Honekin, gaurkoan aplikagarritasuna ikusiko dut.

### EDUKIAK

**Sorpresa!** Nerea agertu zaigu bideo batekin “Por cuatro esquinitas de nada.” Hau ikusi eta hausnarketarako utzi digu.



*Irudia. Por cuatro esquinitas de nada.*

**10.Saio** honetan motibazio arrakastatsua aztertuko ditugu, aplikagarritasuna eta onurak antzemanez. Taldetan banatu gara eta honako estrategiak egokitu zaizkigu:

- **27-28) Interesaren bidea erakutsi.**
  - o *Zein egoeretan aplikatu?* Desinteresa dagoenean, edukiak zailak direnean...
  - o *Zein onura ateratzen dugu bortik?* Ikaslearen motibazioa lor daiteke.
- **29) Ezagupenak arazo.**
  - o *Zein egoeretan aplikatu?* Eduki bat sakontzerako orduan, ikaslearen egitura kognitiboa desoreka sortu.
  - o *Zein onura ateratzen dugu bortik?* Egitura kognitiboaren berreraiketa.
- **30) Edukiak abstraktu.**
  - o *Zein egoeretan aplikatu?* Gaiak arrotzak direnean eta gertutasun falta dagoenean.
  - o *Zein onura ateratzen dugu bortik?* Ikaslearen konfiantza indartu.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- **31) Ikaslearen auto-motibazioa. (Lehentasunen zerrenda)**
  - o *Zein egoeretan aplikatu?* Motibazio eza dagoenean.
  - o *Zein onura ateratzen dugu bortik?* Autonomia sustatu, automotibazioa...
- **32) Aurretiaz orientatu eta helburuak ezarri.**
  - o *Zein egoeretan aplikatu?* Lana antolatzerakoan arazoak daudenean.
  - o *Zein onura ateratzen dugu bortik?* Ikasten ikastea irakatsi.

Ondoren talde bakoitzak bere pasarteak partekatu ditu klase guztiarekin. Honekin amaitzean, hurrengo saioetan ebatzi beharreko kasuari heldu diogu. Hau hurrengo saioetan sakonago landuko dut. Hala ere, ebazpen batek izan beharreko puntu garrantzitsuak aztertu ditugu:

- Kasuaren gakoak (Zer ulertzen dugu, susmoak) → Puntu guztiak azaldu.
- Hipotesiak → Loturak → Ondorioak → Zergatik? Zertan oinarritzen gara?
- Zer prozedura martxan jarri edo zer pauso eman behar ditugu.
  - o **JUSTIFIKATU!**

## **METODOLOGIA**

Saio honi abiada emateko, 3 dinamikatan oinarritu gara. Lehenik eta behin, opari bideo batzuk ikusiz (Nerea), ondoren taldeka egoera jakin batzuk aztertuz eta amaitzeko talde osoan jardun dugu.

### **1.Nerearen bideoak (Cuadradito)**

Saio hastear zegoela, Nerea etorri da klasera ikaste koadernoak entregatzera. Hau egin ostean, Youtube-ren bitartez, bideo oso esanguratsuak jarri dizkigu hausnarketarako eta opari moduan. Bideoak klase osoari zuzenduak izan dira.

### **2. Taldeka (Mintegietakoak)**

Bideoak amaitzean, mintegietako taldeetan banatu gara eta motibazio arrakasten artean 5 pasarte egokitu zaizkigu. Hauek taldeko kide bakoitzari bat banatu eta bakoitzak bere kasa

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

jorratzen joan da. Bakoitzak bere pasartea landu ostean, taldekoak dena partekatu dugu eta banan-banan bakoitzak bere pasartea azaltzen joan da.

### 3.Talde osokoa (ebazpenaren puntuak)

Talde txikietan pasarteak aztertu genituela, talde osoan aritu gara ondoren. Talde bakoitzak idazkari bat aukeratu dugu eta irakaslea taldez talde galdezka joan da pasartearen informazioa plazaratzeko eta gainontzeko taldekoekin partekatzeko. Amaitzeko, bakoitza bere tokietara joan gara eta hurrengo egunetan gauzatu beharreko ebazpena denon artean irakurri eta ebazpen batean landu beharreko puntuak azpimarratu ditugu.

### HAUSNARKETA

Jarraian saio honetako eduki, konpetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

Gaurko saioari dagokionean eta hain zuzen ere, **edukietan** murgilduz esan beharra daukat gaurko edukiak nahiz eta asko ez izan, interesgarriak eta etekina ateratzekoak direla uste dut. Izan ere, praktikara enfokatuta daudelako. Hau guztia horrela, lehenik eta behin, bideoa aztertzean, “Por cuatro esquinitas de nada.” Konturatu naiz nola Hezkuntza Premia Bereziatara bideratuta zegoela. Ikasgelan behar bat sortzean, testuingurua da egokitu behar dena eta ez haurra. Horrela, ikasle guztien artean aukera berdina izanez. Bideo hau oso baliagarria iruditu zait eskola inklusibo horretarako bidean aplikagarria delako eta pertsona guztiak berdina garelako eta ezberdintasunak inguruaren egokitze ezak sortzen duelako. Gaurkoan motibazio estrategiak aztertzearekin batera, gauza oso baliagarria ikasi dugula uste dut. Teorikoki jakin behar ditugu, baina praktikan jartzea funtza dela iruditzen ikaslearen ikaste prozesuan. Adibidez, edukiak astunak edo ulergarritasun gutxi dutenean, jokoaren bidez azaltzea, adibide errealekara jotzea beraien interesa suspertzeko. Bizipen batera salto eginez, motibagarriak diren txangoak (Ingurunea), erosketak egitera (Matematikan)... bizi ditut eta horrelako dinamika esanguratsuak asignatura ez baztertzera lagundu ninduela uste dut. Orain unibertsitatean nago eta gaurko saioan motibazio printza bat jaso dugula uste dut Nerearen bideoarekin. Honekin, saioa gogotsu hasi garela uste dut. Amaitzeko, ebazpenaren puntuak aztertzea oso beharrezkoa ikusi dut, azken finean lanaren gida izango

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

delako eta horretan oinarrituko garelako. Horrez gain, hurrengo ebazpenetan aplikagarria dela iruditzen zait

Gaurko saioan landu ditugun kompetentzien ikaste emaitzei dagokienean, espezifikokoak eta zeharkakoak landu ditugu saio guztietan bezalaxe. **Kompetentzi espezifikoei** begira, gaurkoan aurrekoan modura, ikaste motibazioa eragiteko estrategiak ezagutu ditugu eta egoeretan aplikagarritasuna martxan jarri dugu. Saio honetan, aplikagarritasunari indar gehiago jarritz. **Zeharkako kompetentziei (Ikasten ikastea)** erreferentzia eginez, gaurkoan ez dugu ez-presentzialerako lanketarik egin behar izan eta beraz kompetentzi hau gutxi sakondu dugu. Hori bai, gaurkoan ikasten ikasteari dagokionean, motibazio estrategien inguruan kontzienteago naizela uste dut. Hau da, aplikagarritasuna ikusita, konturatu naiz zein kasuetan eta zein onura ekar ditzaken. **Talde lana** aztertuz, pasarteak banatzean eta hauek lantzean oso ondo aritu garelako uste dut. Bakoitzak bere pasarte egiteko denbora kudeatu dugu eta ondoren, partekatzea ere neurtu dugu. Partekatzean txandak errespetatu ditugu eta gainontzeko pasarteak osatzeko oztoporik ez da egon. Gainera, bozeramaile gure pasartearen inguruan hitz egiten zegoenean gainontzeko taldekideek parte hartu dugu bere lana erraztu eta talde lan hori borobilduz. **Komunikazioari** dagokionean, eraginkor aritu garelako esango nuke. Gehienbat, talde barnean informazioa partekatzen aditasuna landu dugulako entzute aktibo batekin eta horrek informazio guztia jasotzera lagundu digu. Horrez gain, saioaren amaieran, ebazpenaren puntuak aztertzean, nahiko zarata sortu da azken minutuak zirelako eta nahiz eta dena ondo ulertu irakasleak gogor saiatu behar izan da aditasuna eta komunikazio egokia lortzen.

Gaurko saiotik **nire identitate profesionalerantz** praktikotasuna nola eraman behar den ezagutu dut eta hemendik aurrera zerbait praktikan jartzean landutako aspektu asko aztertuko ditudala uste dut. Esaterako, noiz aplikatu behar diren estrategiak eta zein onura ekartzen dituen ikaslearentzako. Beraz, gaurko saiotik ondorioztatuko nuke, aplikagarritasuna lantzen ikasi dudala eta horrek aberastuko nauela motibaziorik ez dagoen kasuetan. Horrez gain, hauen ondorioetan lan egin behar dela barneratu dut. Orokorrean, esan dezaket nire identitate profesionala saio hau eta gero, nire pentsamendua aldatu da eta ez da estrategia bat aplikatzen aplikatzeagatik, baizik eta horrek dakarren onuraren eraginarengatik.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### INFORMAZIO GEHIGARRIA:

Nerea 1.3 materiako irakaslea ekarritako bideoa “Por cuatro esquinitas de nada.” da eta hausnarketarako oso baliagarria egin zait. Bertan, Hezkuntza Premia Berezia nabarmendu nahi duela uste dut eta Testuingurua dela beharrari aurre egin behar diona.

<http://www.youtube.com/watch?v=OVf1GhKDtW8>

### 2011/02/15 LA CLASE FILMAREN LANKETA

10. saioan motibazio estrategien sakontzearekin aritu ginen eta ez presentzian landu beharreko kasu ebazpenaren oinarriak finkatu genituen. Gaurkoan, dinamikaz aldatuko dugu eta kasua alde batera utziz film baten lanketa egingo dugu bakarka eta ikasitako guztia aplikatzeko balio izango du pasarte ezberdinak aztertuz.

Nire ikasketak kontuan hartuta ez dut gogoratzen filmen lanketarik egin dudarik baina ziur nago oso baliagarria izango dela. Azken finean, gazteleraz esaten den bezala, “Una imagen vale más que mil palabras.” Eta ikasita gauza asko antzemango ditugula ziur nago.

### EDUKIAK

**11.saio** honetarako, ez-presentzian, ikaskide bakoitzak film bat aukeratu behar zuen “Los chicos del coro, La clase eta Todo empiezan hoy-en” artean eta muddleko foroan, filmaren buruzko lanketa bat egin behar genuen ikasitako printzipioak identifikatuz. Nire aukeraketa La clase filma izan zen eta honako lanketa egin nuen 3 pasarte aztertuz:

#### 1. Pasarte: 1go klase eguna (3:40-7:30)

Lehenengo eguna da institutuan eta irakasleak gela batean biltzen dira beraien ordutegiak eta ikasle zerrendak jasotzeko. Bertan ikusten da nola irakasle batek ikasleen inguruan zein den ona eta zein den txarra esaten du. Hau ikusita landutako printzipio batekin erlazionatuko nuke. Hau da, **Pigmaleon efektuarekin**. Azken finean irakasleak ikasleen



## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

gainean **etiketak** ezartzen ditu eta beste irakasleak, gauzatuko den mezu horrek lagundu egiten dio ikuspegi hori izatea. **(3.puntua)**.

Klasea hasi aurretik, preferentziak ikusten dira, bati txapela kentzeko esanez eta beste bati ez dio ezer esaten. Horrez gain, klase hasieran iskanbila handi sortzen da **eta inguruko oztopoak** azaltzen dira. **(Zaratak)**.

Ondoren irakasleak erabiltzen duen tonua ez da batere egokia eta ondorengoa esaten du: “Quiero que quede claro.” Beraz, esango nuke tarte honetan **komunikazio erasotzailea** ematen dela.

Denbora oso garrantzitsua da irakaslearentzat eta klasera igotzen zenbat denbora galtzen duten urtean azaldu die. Era berean beste institutu batean denbora galerarik ez dagoela esanez eta ondorioz hobeak direla. Egoera honen aurrean esango nuke, **oztopo pertsonal** bat ematen dela **orokortzearena** eta ondoren **estereotipoak** agertzen direla egoera horretan. Hau da, **mailaketa** (denbora galtzaileak), **konparaketa** (denbora gehiago galtzen dutela) eta **atribuzioa** (eskasagoak).

Pasarte honekin amaitzeko, irakasleak dinamika bat antolatzen du beraien artean ezagutzeko. Horretarako, ikasle bakoitzak paper batean bere izena idazten du eta bere mahai gainean jartzen du. Ikasleak denbora behar dute beraien izen idazteko eta irakasleak esaten du izena idazteko minutu batean egitea nahikoa dela. Beraz, esango nuke motelez **etiketatu dituela eta orokortu** egin duela batzuk denbora barruan amaitu baitute.

Horrez gain, atzealdean eserita daudenak **komunikazio pasiboa** eta **entzute entzungorria** praktikan jartzen dute. Hau da, ez dute jaramonik egiten.

### 2.Pasartea. Irakaslea oso haserre bere ikasleekin.(25:40-27:14)


Irakasle bat irakasle gelara abiatzen da amorrutik eta bere gelako ikasleen gainean epaiketa gogorrak egiten ditu. Hala nola, “ Payasos, no valen para nada, parece que estuvieran en celo, te miran como si fueras una silla, son de una mala fe, barrios marginales de mierda...” Irakasle batek haizea hartzera lagundu dio.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Egoera honetan argi eta garbi ikusten da, irakaslearen komunikazio erasotzailea, etiketak ezartzen ari dela eta momentu oro bere ikaslea epaitzen. Era berean, gainontzeko irakasleek entzute aktibo bitartez aditasunez entzun eta ulertu dute egoera. Irakasle honen egoera adimen emozionalaren grafikoari jarraitu diola esango nuke.



Irakaslea itota → Gauza negatiboak esateko inpultsua → Autokontrol eza → Gauzak esan, gaizki egin duela onartu eta haize hartzera joan.

### **3. Pasartea. Gurasoekin bilera. (56:31-1:02:38)**

Irakasleak ikasleen jarraipenari buruz hitz egiteko, bost guraso ezberdinekin izango ditu bilerak.

#### **1. Txinatarrak.**

Irakaslea jarrera hurbila agertzen du, jaiki egiten da harrera ematera. Bere semearen indarguneak aipatzen ditu (Amable...) Baina notetan oinarrizten da. Ondorioz, esan dezaket komunikazio asertibo batean jardun dutela eta entzute aktiboa bat praktikan jarri dutela beti ere tonu egoki baten laguntzaz. Horrez gain, familiaren inguruko informazio jasotzen du, beraz, irakasle funtzioa betez. (Duerme hasta muy tarde, ordenador, ojos cansados...)

#### **2. Marokotarrak.**

## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Bilera honetan, Aita egon da hizketan gehienetan. (Queremos que haga..., queremos sentirnos orgullosos de el...) Beraz, esango nuke, irakasleak entzute aktiboa landu duela aitak esaten zuenaren inguruan.

### **3. Ama bat.**

Bere semea justifikatzen du, bere semearen indar-guneak aipatuz eta ea zergatik irakaslea ez datorren bat berekin. Egoera honetan antzeman dut, ama entzute defentsiboan eta auto-erreferentzialean jardun duela eta irakasleak aktiboki entzun diola.

### **4. Ama eta haurra.**

Bere semearentzat onena nahi du eta ez dagoela maila onik esaten du eta maila gutxi dutenak bere semearen aurrerakuntza oztopatzen dutela. Egoera honetan, amaren epaiketarik ikasleekiko argia da maila eskasa dutela esanez. Horrez gain, beti bere semeaz hitz egiten ari da, entzute auto-erreferentziala landuz. Irakaslea ordea aktiboki entzun dio.

### **5. Suleimanen anaia eta ama.**

Irakasleak Suleimanen gauza negatiboak aipatzen ditu eta gauzarik gabe etortzen dela eskolara eta ez dituela lanak egiten. Amak, ez duenez ulertzen hizkuntza dela eta anaiak jaso du mezua eta honek amari helarazi dio. Amak esaten du oso langilea dela eta irakasleak dioena gezurra dela. Irakasleak orduan, arazoen berri al zuten galdetzen die. Egoera honetan, irakasleak komunikazio erasotzailea erabiltzen duela uste dut eta ama defentsiban dago bere semearen lana defendatzen. Beste alde batetik, komunikazio aldetik hizkuntza oztopo dela nabaria da. Azkenik esango nuke, irakasleak ez duela bere funtzio bete eta familiarekin komunikazio eza dago. Etiketek eraginik izango dute horretan?

## **ONDORIOA**

Pasarte hauetan printzipio hauek ezartzearen ondoriok nire ustez nahiko argiak dira. Alde batetik, klasean dagoen zalaparta metodologia ez dinamiko batekin lotuko nuke. Honek,

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

aldi berean ikasleak motibatu ezinik. Horrez gain, nabaritu dut edukiei garrantzia ematen zaiela (Noten inguruko aipamena, arbelean ariketa...) eta ikaslea pertsona bezala ez dela ikusten nahiz eta irakaslea batzuetan hurbiltzen den. Honekin esan nahi dudana da, ez dagoela adimen arrazional eta emozionalaren arteko orekarik. Amaitzeko, institutu batean Hezkuntza komunitatearen partaideak beharrezkoak dira eta film honetan ez dut familia partaide bezala ikusten. Soilik seme alaben notak ikusteko eta egoera negatiboan aurrean aurpegia emateko. Laburbilduz, esango nuke hauek direla egoera hauek gertatzearen ondorio. Metodologia eskasa, Adimen emozional urria eta Familiaren parte hartze nulua.

### **KRITIKA**

Film hau XXI. mendean kokatua egongo litzateke eta institutu bateko egunerokotasuna eta gatazka batean kudeaketa nola ematen den azpimarratzen du. Hezkuntzari begira eta oinarri pedagogikoei begira, ikus dezakegu institutu hau ez dagoela biharko eskolara bideratuta. Adibidez, edukiei garrantzi handia, adimen emozionalari aditasun urria, metodologia ez egokiarengatik ikasleen motibazio falta eta ondorioz klaseak oztopatzeko erraztasuna....


Film hau oso interesgarria iruditu zait, instintuan dauden hutsuneak antzemateko eta hobetzeko bide bat badagoela topatzeko. Amaitzeko, esango nuke "La clase." filma ikustearekin, ikastetxe asko islatuta geratuko liratekeela eta baliagarria izango litzatekeela hobetzeko.

Gai honen inguruan ez dut filmik ezagutzen baina klasean landu beharreko "Los chicos del coro." edo "Todo empieza hoy." gomendatuko nituzke lantzen ari garen gaiarekin erlazioa baitute.

Film honen lanketa egin ondoren, film berdina aztertu dugun taldetan bildu gara eta aurkezpen bat prestatu behar izan dugu gainontzeko ikaskideentzat. Gainera, pasarte deigarri bat aukeratu dugu aurkezpenerako. Hain zuzen ere, nik aztertu dudana 2.pasartea. Aurkezpena prestatzeko puntu batzuk izan ditugu kontuan: Testuinguraketa, printzipioak eta ondorioak. Hau kontuan izanik honako aurkezpena prestatu dugu:

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez



*Irudia. "La clase" filma*

### LA CLASE

#### - Testuinguraketa

- Frantzian kokatzen da eta kultur anitzen klase batean gertatzen diren jokabideak aztertzen ditu.

#### - Printzipioak

- Estereotipo eta etiketak; (PIGMALEAON) ikasleekiko aurreiritziak.
- Auto-kontrol eza.
- Komunikazio estiloa: asertiboa- erasotzailea. (Tutorearen papera)
- Gatazken kudeaketa (Irakasle guztiak bat eginik)
- Motibazioa
- Garapen emozionala
- Hezkuntza komunitatean → Gurasoek parte hartu ez.
- Komunikazio oztupoak. (Guraso kanpotarra bileran)

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### - Ondorioa

Irakaslea atzoko eskola eta gaurko eskola erdibidean ikusten dugu. Bi etapetako pintzeladak ditu.

Gure aurkezpena amaitzean, gainontzeko bi taldeak entzun ditugu eta saioa amaitu dugu.

## **METODOLOGIA**

Gaurko saio eginbeharrekoei erreparatuz, dinamika ezberdinak erabili ditugu hauek aurrera eramateko. Horrela, honako dinamiketan oinarritu da gaurko saioa: Bakarkako lana, talde lana eta hitzaldia.

### **1. Bakarkako lanketa (ez-presentziala)**

Saio honetarako “La clase” filmaren lanketa egin behar nuen eta horretarako lehenik eta behin pelikula oso ikusi nuen. Ondoren, teorikoki landuta genituen printzipioak antzematen eta apuntatzen joan nintzen bigarren aldiz ikusten nuen bitartean. Idei zaparrada hau amaitzean, 3 pasarte aukeratu nituen lanketa egiteko eta Word-en lana garbira idazten hasi nintzen. Lan hau amaitzean, muddleko forora igo nuen eta gainontzeko taldekideek eginiko lanak ikusi nituen.

### **2. Taldeko lana.**

11. saio hau asteko pelikulak landu genituen arabera osatu genituen taldeak. Gure filmaren inguruan aurkezpen bat egin behar genuen eta taldekide bakoitzak bere lanketaren ideia nagusiak bota zituen. Ideia guztiak kontuan hartuta, fitxa bat bete genuen non testuinguraketa, printzipioak eta ondorioa azaltzen genituen.

### **3. Hitzaldia**

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Aurkezpena egitean, fitxa hau ikasle guztiei zuzendua izan zen taldean hautatu genuen bozeramailearengandik. Bakoitza bere taldean zegoelarik aurkeztu zuen eta ez arbelera irtenda. Aurkezpenari amaiera emateko, filmaren pasarte esanguratsu bat erakutsi genuen eta hau proiektorearen bitartez ikusi genuen. Aurkezpena hasi baino lehen pasartea prestatuta genuen aurkezpena hasi aurretik denbora galerarik ez egoteko.

### HAUSNARKETA

Jarraian saio honetako eduki, konpetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

Gaurkoan **edukien** inguruan esan beharra daukat nahiko saio arina eta entretenigarria izan dela. Izan ere, 1 fasearen A multzoa amaitzen ari gara eta saio honekin gauza asko birpasatu ditugula uste dut. Hots, pelikularen lanketarekin orain arte landutako printzipio guztiak antzeman eta identifikatu ditugulako. Horrez gain esan beharra daukat edukien birpasarako oso metodologia ona iruditzen zaidala eta gainera, oso baliogarria printzipioak identifikatzeko. Beraz, gaurkoan edukien euskarria filma izan dela esan dezaket. Pelikularen inguruan Irakasleak, galdetu digu ea zergatik emango genioken saria gure filmari. Nire erantzuna argia izan da nire barnean: *“Irakasle ikasle harremanak topatu, metodologia ezberdinak ikusi, irakasleen arteko lanketa miatu, ezberdintasunak aberasten duela... azken finean hezkuntza gaur egun dagoen egoera ikusten delako eta etorkizunera begira hobetze puntuak identifikatu, gizarte hobe baterako bidea eraiki dezakegulako.”* Oro har, esango nuke gaurko saioa eduki guztiak alde batera ez uzteko eta birpasa bat egiteko baliogarria izan dela.

Konpetentzien ikaste emaitzei dagokienean nahiko saio osoa izan dela esango nuke. **Konpetentzi espezifikoei** dagokienez ikaste motibazio estrategiak, gatazka sortu aurreko baldintzak, guztiontzako eskolaren printzak ikusi dira filmean (Metodologia esanguratsua), M.Ainscow-ren lau begiradak ikusi ditugu (ikasleak gizarteratzeko prestatzen zituen irakasleak, arazoei aurre egiten irakatsiz...), ikaste prozesuaren oztupoak ikusi dira (gatazkak)... hala ere, gatazketatik beti zerbait ikasten dela azpimarratu nahiko nuke. **Zeharkako konpetentzien (ikasten ikastea)** ikaste emaitzei erreferentzia eginez, esan beharra daukat filmaren inguruko eskema eta laburpena gauzatu nituela, horrela 3 pasarte aukeratuz eta horien gainean lanketa eginez. Lan hau egiteko denbora nahiko ondo kudeatu

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

dut eta astean zehar egin beharreko guztiak ondo planifikatu ditut filmari tartetxo bat utziz. Horrez gain, filmaren lanketarekin ikaskuntza ezberdinak lotzeko balio izan dit. Esaterako, gatazka identifikatzea, motibazio estrategiez ohartzea, etiketak antzematea... Hori gutxi balitz, aurkezpena egin dugunean, ikasitakoa gai izan gara nahiz ahoz eta idatziz egiteko. Oro har, pertsonalki uste dut ikasten ikasteari dagokionean nahiko garrantzitsua izan dela gaurko saioa. **Talde lanean** aurkezpena prestatzen aritu garenean, primeran koordinatu gara aurkezpenaren puntuak betetzeko txandak ondo errespetatuz. Hala ere, aurkezpenarako bozeramaile bat behar zen eta ez dugu arazorik izan boluntario bat izan dugulako. Beraz, gaurko talde lana kooperatiboa izan dela esango nuke. **Komunikazioari erreferentzia** eginez, taldean aritu garenean ondo jokatu dugu eta ez da arazorik sortu. Parte hartzean txandak errespetatu ditugu eta entzute aktibo batez entzun gara elkarri. Gainera, aurkezpena egitean, gainontzeko taldeak aditasuna maila altua eskaini dutela esango nuke eta mezua ondo iritsi dela ziur nago.

Gaurko saiotik nire **identitate profesionalerantz** eramango nukeena zera da: Ikasleak aho bitartez saritzea. Gaurkoan Olaia gure irakaslea foroan egindako lanketaren inguruan hausnarketa egin du orokorrean. Hausnarketa honetatik, hitz positibo asko eskaini dizkigu gure lanketari eta hori benetan ikaslea naizen aldetik eskertzekoa da. Izan ere, gogo gehiago pizten zaizkizu lanerako. Beraz, ahozko sariak egitea beharrezkoak ikusten ditut ikaslearen auto- kontzeptuan modu positiboan eragiteko eta ez gauza negatiboak soilik esanez. Horrez gain, nire identitate profesionala nahikoa indartu dela uste dut film soil batekin eduki teoriko guztiak laburbildu daitezkeela eta hauen arteko loturak errazago ikusi. Egia esan ziur nago neri filmarekin bezala, irudiekin gauzak errazago antzematen dira. Hori gutxi balitz, irakaslea naizen bide honetan aurkezpenak egiterako orduan geroz eta lotsa gutxiagoa daukat eta hitz egiterakoan naturalago jokatzen dudala uste dut. Beraz, beste puntu bat nire identitate profesionalerantz.

### INFORMAZIO GEHIGARRIA:



## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

### 2011/02/18 I.MINTEGIA ETA KASU EBAZPENA

Pasaden eguneko saioan, filmaren lanketarekin printzipio guztiak lantzea lortu genuen eta gaurkoan mintegiaren bitartez printzipio guzti hauek borobiltzea falta zaigu. Gainera, borobiltze hau emateko, aipatutako kasua ebatziko dugu, etxean taldekide bakoitzak landu behar genituen atalen laguntzaz. Horrela, I.Fasearen A multzoari (Printzipio pedagogikoak) amaiera emanez.

Mintegien inguruan esan beharra daukat, orain arte izan ditudan guztiak 1.3 materiakoak izan dira eta irakaslearekin izaten genuen elkarrizketa formal bat besterik ez zen. Baina, gaurko mintegia edukietan gehiago zuzenduta egongo zela esan digu irakasleak. Kasu ebazpenaren inguruan esan beharra daukat, egoera errealetan burua kokatzeko eta aurrera nola ateratzeko asko balio dutela. Horrez gain, jarraitu beharreko egitura aurreko saioetan landu genuen eta beraz ideia garbi bat dugu honen inguruan.

### EDUKIAK

**12.Saio** honi hasiera eman baino lehen, ez-presentzialean kasu ebazpenaren paragrafo bat landua ekarri behar genuen landuta taldekide bakoitzak eta saioan zehar kasua borobiltzen joan.

Mintegiak hasi dira eta gure taldea kasuaren ebazpenean lanean hasi gara. Kasua ondorengo da:

#### **KASUA:**

*Nire praktiketako lehenengo astean 5. mailako gela batean, behatzaile papera egitea tokatu zait. Hasieran oso urduri nengoen, inoiz ez bainaiz horrelako egoera batean izan eta ez nekien nola erantzungo nion egoera horri baina egia esan, lehenengo astetik oso ongi moldatu naiz bertan.*

*Asteak aurrera egin ahala, ikastolak aurrera eramaten duen metodologia ezagutzeko parada izan dut. Egia esan, nahiko metodologia tradizionala da, denetarako*

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

*dauzkate liburuak eta eman beharreko gaiak finkatuta daude, zer, noiz eta nola eman, horrela hurrei aukeratzeko aukerarik eman gabe.*

*Matematiketarako eta ingurunerako, liburuxka bat daukate ariketekin eta irakasleak, Anak, ematen dien azalpenekin liburuako ariketak egiten aritu dira astean zehar. Ariketen zuzenketarako, fitxa batzuk dituzte eta horretaz baliatuz bakoitzak bere ariketa propioak zuzentzen ditu. Egia esan, ez dituzte fitxa horiek askotan erabiltzen eta gehienetan irakaslearengana jotzen dute. Alde batetik, irakasleak zuzentzea egokiagoa dela iruditzen zait, horrela ez baitute tranparik egiten baina beraien autonomia garatzeko, atzerapauso bat izango litzateke.*

*Ostiralean, inguruneko orduan – goizeko azken ordua- irakaslea gai berri bat azaltzen hasi zenean Josu ikaslearekin haserretu zen. Josuri kostatu egiten zaio eskolan arreta mantentzea, (gelako alperrena da) eta, askotan, denbora galarazten die ikaskideei. Gaur ere hori gertatu da, Josu aspertuta zegoenez Edurne negartia zirikatzen hasi da, eta neskak oso haserre bota dio mahaian zeukan dena. Momentu horretan eztabaida sortu da beraien artean eta Anak oso haserre parte hartu du Josu eta Edurne kaleratzen.*

*Pasilloan geratu dira eta han eztabaidatzen jarraitu dute, Anak paso egin du baina alboko gela bateko irakaslea irten da eta beraien egon da hitz egiten. Minutu batzuk pasatu ondoren gazteak ez ditugu entzun eta denok oso lasai geratu gara.*

*Klasea bukatu denean Josu eta Edurne klasean agertu dira, Anak beraien hitz egin du eta kurtso hasieran adostutako arauen arabera komentatu die taldea izorratu dutenez konpentsatu egin behar dituztela eta haiek aukera dezaten egin nahi duten lana. Gazteak gela batzea eta txukun jartzea erabaki dute eta hori izan da beraien zigorra.*

*Hurrengo egunean Anak komentatu dit Edumeren aitak telefonoz deitu diola zuzendariari eta ahotsaren tonua gogorra izan dela, zuzendariari irmoki esan dio bere alaba ez dela garbitzailea eta ez dela arratsalde bat gehiago ere geldituko garbiketa egiten. Sekulakoak esan omen ditu Anari buruz. Azkenean, gurasoak, zuzendaria eta tutorea hurrengo egunean biltzekotan geratu dira, adostasuna lortzen saiatzeko.*

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

*Ez dut gaurko egunkaria bukatu nahi esan gabe irakasleen gelan ere entzun behar izan dudala gure gelan gertatutakoa eta gainera Begoñak – klasetik irten den irakaslea eta beraiekin hitz egin duena- , Anari buruz esamesaka aritu omen delako: Anak gainerakoei gehiegi -eta bere buruari, aldiz, ez horrenbeste- eskatzen diela eta ez da inoiz gauzak zergatik gertatzen diren jakiten saiatzen esan omen du Begoñak. Suposatzen dut Anak hau ez duela oso ondo biziko enteratzerakoan eta eskola txikia izanik ez da denbora gehiegi pasatuko hori gerta dadin... ZELANGO EGUNA!!!  
KASLEEN TONTEKERI BATEK ZER ERAGINA IZAN AHAL DUEN IKASTETXEAREN BIZITZAN!!!!*

Kasu hau kontuan hartuta eta taldekide bakoitzak egindako lanaren ondorioz, honako ebazpena gauzatu genuen saio honetan:

### **SARRERA**

Lan honetan praktikak egiten hasi den irakasle baten egoeraren azterketa, interpretazioa eta kasuaren ebazpena egin dugu. Honetarako, 1.7 material landutako printzipio pedagogikoetan oinarritu gara. Lan hau egiten hasi aurretik, planifikazio bat egin genuen eta bakoitzak 2 paragrafoen lanketa egin dugu. Ondoren, guztion artean paragrafo bakoitzaren azterketa partekatu dugu, hau ordu ez presentzialetan landuz.

Ebazpenari dagokionez, garrantzitsua iruditzen zitzaigun, denon artean egindako ariketa bat izatea. Kasua ebazteko modu asko dauden arren, taldeko kideen artean emandako eztabaiden ondorioz adostasun batera heltzea lortu dugu komunikazioa egoki eta eraginkor bat erabiliz. Honela, talde lanak emaitza positiboak eman dituela uste dugu.

### **KASUAREN AZTERKETA ETA INTERPRETAZIOA**

**1.paragrafo** honetan, irakaskuntza ikasi duen ikasle bat praktiketara doala aipatzen da. Praktiketako lehenengo astearen aurrean aurkitzen da eta 5. mailako ikasleekin egongo da behatzaile papera betetzen. Hori dela eta, ez daki zerekin aurkituko den baina lehenengo astea pasa ondoren, oso ondo moldatu dela esaten du.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

**2.paragrafoan** aldiz, Asteak aurrera joan ahala behatzailea, erabiltzen diren metodologia guztiez jabetzen hasten da. Metodologia, **tradizionala** dela esaten du, hots, irakasleak ikasleei guztia liburuen bidez ematen die eman beharreko gaiak jadanik finkatuta izanez: NOIZ ETA NOLA EMAN. Beraz, hitz eta eskubidea soilik irakasleak izango ditu, haurrak ez dute aukeraketarik egiteko eskubiderik.

Hipotesian murgilduz, eskola hau atzoko eskolan murgildurik dagoela esan daiteke. Ez dabilta biharko bidea eraikitzen baizik eta **metodologia tradizionalarekin** jarraitzen dute. Hori dela eta, honako moduak erabiltzen dituztela aipa daiteke. Irakaslea klasera heldu eta umeei liburuak mahai gainera ateratzeko eskatzen die. Irakasleak liburukoa irakurtzen du gelditu ere egin gabe. Saioa amaitzean, ea galderarik duten esan eta berehala klasetik irteten da. Ez dio axola ez umearen ulergarritasunak, ez umearen egoera, motibazioa, afektibitatea...hau da, bakarrik NOIZ ETA NOLA EMAN esaldia du bereganatuta irakasle honek.



**3.parrafoari** dagokionez, hainbat oinarri psikopedagogiko topa ditzakegu. Lehenik behin, esaldi honetan, *“liburuxka bat daukate ariketekin eta irakasleak, Anak, ematen dien azalpenekin liburuko ariketak egiten aritu dira astean zehar.”* ikus daiteke, **Curriculumaren edukiei**

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

garrantzia ematen zaiola. Bigarrenik, *“Ariketen zuzenketarako, fitxa batzuk dituzte eta horretaz baliatuz bakoitzak bere ariketa propioak zuzentzen ditu.”* esaldi honetan, tutoretza planaren barruan eta **tutoreen funtzioen** artean **parte hartzea ez da bultzatzen**. Hau da, azaldu eta egin mekanismoa jarraitzen dute. Paragrafo honen azterketarekin amaituz, perpaus hau aztertu nahiko nuke. *“Fitxa horiek ez dituzte askotan erabiltzen eta gebienetan irakaslearengana jotzen dute.”* Esaldi honetan bi printzipio kontrajarrita ikus daitezke. Alde batetik, irakaslearengana joaz **Autonomia** sustatzen ez dutelako. Bestetik, Irakasleari zuzenduz, **interakzio pertsonala** ematen delako ikasle-irakasle artean.

**4. paragrafoari** erreparatuz, landutako oinarri psikopedagogikoak nabariak direla esan dezakegu. Paragrafoaren esaldi bati helduta, *“Ostiral goizeko azken orduan irakaslea gai berri bat azaltzen hasi zenean Josu irakaslearekin baserretu zen.”* Hemen **Curriculumaren plangintzari** jarraipena ematen zaio eta ikasle irakasle arteko gatazka ematen da. Gainera paragrafo honetan **etiketak** ematen dira. Adibidez, *“Alperra.”* eta *“Negartia.”* Horrez gain, **gatazken kudeaketaren** printzipioa eman da ondorengo esaldian. *“Josu aspertuta zegoenez, Edurne negartia zirikatzen hasi da, eta neskak oso haserre bota dio mahaian zeukan dena.”* Esaldi honetan ere, Josu eta Edurneren artean **komunikazio erasotzailea** gertatu dela nabaria da. Paragrafo honi amaiera emateko, ondorengo perpausa aztertzea beharrezkotzat ikusten dugu. *“Momentu horretan eztabaida sortu da beraien artean eta Anak oso haserre parte hartu du Josu eta Edurne kaleratzen.”* Esaldi honetan, irakasle **autoritario** bat ikusten dugu, **auto kontrolik ez** duena, **komunikazio erasotzailea** eta **zigorra** erabiltzen duena gatazka konpontzeko.

2 eta 3 paragrafoak aztertuta suposa daiteke, adimen arrazional eta adimen emozionalaren arteko oreka gela barruan ez dagoela. Izan ere, ez zaio garrantzirik ematen pertsonari eta hauen arteko harremanei eta bai hauek burutzen dituzten ariketei eta zuzentze mailari. Hau guztia erabiltzen den Curriculum motarengatik izan daiteke. Hau da Curriculumaren eduki eta plangintzari garrantzia ematen zaie, nahiz eta, plangintza denboraz ez oso ondo kudeatu eta interakzio pertsonala alde batera utzi. Hortik, adimen emozionalari garrantzirik ez ematea. Hau gutxi balitz, uste dugu, metodologia ez dela bat ere eraginkorra ikasle aktibo

bat sortzeko eta horrek motibazio eza eta Josuren jarrera ezkorra dakar. Metodologiaz gain, irakasleak ez du ikaslearen aktibotasunean ezer laguntzen eta ez du parte hartzea eta

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

autonomia bultzatzen ariketen zuzenketan. Gainera, gatazka bat dagoenean, bere autoritate maila erabiltzen du zigorra erabiltzeko eta gatazka modu batean konpontzeko.

**5.Paragrafo** honetan ikus dezakegun bezala, orain arte emandako hainbat printzipio lantzen dira, **harreman afektiboak, komunikazio estiloak eta gatazken kudeaketa** besteak beste. **Harreman afektibo**ei dagokienez, lasaitasuna mantendu, ikasgelako guztiekin gatazkaren inguruko balorazioa egin, arauak gogoraraziz eta saioa bukatutakoan gatazkan parte hartu duten ikasleekin banaka hitz egin behar, ez da arduratu bere ikasleen egoeraz. Beraz, hemen ikus dezakegu ikasleek izan duten portaeraren aurrean ez duela ongi jokatu. **Komunikazio estilo**ei dagokienez aldiz, alboko gelako irakasleak, **komunikazio asertiboa** erabili duela esango genuke, zeren eta beraiekin hitz egin ostean ikasleak lasaitu direla ikusi baitugu. Seguruena, irakasleak goxo hitz egingo ziren, zer gertatu den galdetu eta beraien iritzia entzunez. Horrela, honek ikasleak lasaitzea lortuko zuen. Azkenik, **gatazken kudeaketari** dagokionez, imajina dezakegu alboko gelako irakasleak modu egokia erabili duela, hauek lasaitzea lortu duelako. Guk suposa dezakegun, lehenik beraien bertsioak entzungo zituen giroa lasaituz, ondoren, gatazka eta pertsona bereiziko zituen beraien lekuan jarritik, horrela, gatazkaren arrazoiak hobeto ulertzeko eta azkenik bere ikuspuntua adieraziko ziren ikasleek txarto egin dutela uler dezaten. Anak aldiz, inplikatuei jokatu du, hau da, gatazka gertatzen denean, inplikatuei ezer galdetu gabe, kaleratzen ditu.

**6.Paragrafoan, gatazken kudeaketa** deritzogun printzipioa nabarmentzen da. Anak ez duela printzipio honen arabera jokatu esango genuke, zeren eta ez ditu gatazka konpontzeko eman behar diren pausuak kontuan hartzen, ez da saiatu zer gertatu den jakiten. Berak, inolako galderarik egin gabe, hau da, ikasleen iritzia eta arrazoiak entzun gabe kanpora bidaltzen ditu eta gainera, paragrafo honetan ikusten den bezala, honen ostean taldea izoratu izanagatik zigor bat ezarri behar diela esan die. Beraz, esan genezake bere jarrera pasiboa dela, hau da, ez zaio axola gatazkaren zergatia jakitea, hau da, ez da gatazka konpontzen saiatzen, ardura zaion bakarrik klasea moztu izanagatik zigor bat jartzea

da. Irakasle honen helburua soilik gelan lasaitasuna izatea da eta ez ikasleei hori egitea txarto dagoela esatea, eta gainera, esango genuke ez dituela pertsona, prozesua eta arazoak bereizten.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Bestalde, berak erabilitako metodologia hau, Skinner autorearekin lotu daiteke. Honek, jokabide batzuk saritu eta beste batzuk berriz, zigortu behar zirela bultzatzen zuen. Egoera honetan, Ana irakasleak, ikasleen portaera ez dela egokia izan ikusita hauek zigortzea erabakitzen du.

**7.paragrafoa** aztertuz, kurtso hasieran adostutakoa betetzen dute eta horrekin klasearekiko konpromisoa erakusten dute bi ikasle hauek. Kasu honetan, Skinnerren teoriarekin lotuta, zigorraren metodoa erabiltzen du irakasleak eta ondoren kurtso hasieran adostutako konpromisoekiko ardura hartzea eskatzen zaie ikasle biei. Egoera horren aurrean gurasoetako baten jarrera ikastetxera deitzea izan da eta erabili duten **komunikazioa oso erasokorra izan** da. Ikastetxeak, **gatazka hau kudeatzeko** umearen inguruan dauden eragile ezberdinak batu eta gatazkari konponbide bat emateko bidean jartzea izan da. Horrela, ikastetxeak **gatazka kudeatzeko** daukan metodoa egokia dela esan dezakegu.

**Azkeneko paragrafoari** erreferentzia eginez, irakasleen bulegoan **gatazkaren kudeaketan** parte hartu duen irakasle batek beste irakaslearen inguruan txarto hitz egiten dabil eta horrek epe motzean ondorio negatiboak izan ditzake. Begoña Anari buruz esamesaka dabil eta gainera esaten du bere buruari ez diola hainbeste eskatzen eta gainerakoei, aldiz, asko eskatzen diola. Honekin erakutsi nahi du berak **gatazkaren kudeaketan** izan duen papera ezinbestekoa izan dela eta Anak hurrei jarritako zigorra ez dela izan egin beharrekoa. Beraz, ikasleen gatazka bat izatetik irakasleen arteko gatazka bat izatera pasa da, agian beraien artean aurretik egon diren hartu emanak ez dira izan egokiak eta gainera gatazka berdinean irakasle bik “muturra sartzeak” egoera hau larriagotzea ekarri du.

### **KASUAREN EBAZPENA**

Hasteko, eskola honetan erabiltzen den metodologia tradizionala da, hau da, Curriculumaren edukiei garrantzia ematen zaie eta hau aurrera eramateko erabiltzen den metodologia ez da parte hartzailea, eta interakzio pertsonala alde batera uzten du.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Horren ondorioz, ikasleen motibazioa ez da egokia gaiarekiko eta honek eragin negatiboak dituela ikusi dugu, hala nola, Josuren jarrera ez egokia. Ikasleak motibatuta sentitzeko metodologia parte hartzaileen erabilera edo beharra ikusten dugu. Materia bakoitza lantzeko planifikazioa egin behar da, horrekin batera momentu egokia bilatuz. Kasu honetan gai berri bat ostiraleko azken orduan emateak gatazka bat sortu duela antzeman dugu eta hau saihestea ezinbestekotzat ikusten dugu haurraren garapenerako.

Hau guztia aurrera eramanez ahal izateko eta ikaslea motibatua sentiarazteko, adimen emozionalari lekua utzi behar diogula uste dugu. Horretarako, metodo desberdinak erabiliko ditugu; hurbiltasuna landu ikasleekin, talde lana bultzatu, aniztasuna, errespetua, komunikazio eraginkorra...

Estereotipoen printzipioari dagokionez, kasu honetan ikus dezakegu “gelako alperrena” esaldia erabiltzeak ikaslearen ikasketa eta garapen prozesua oztopatzen dituela. Hau gerta ez dadin, ikasleari aukera berri bat eman eta gatazka kudeatzen saiatu behar gara, ikaslearen indar guztiak nabarmenduz, eta gainontzeko ikasleekin enpatia landuz.

Irakasle batek gatazkei aurre egiteko adimen emozionala landua izan behar du aurretik. Honekin, gatazka bide egoki batetik eramanez, hau da, gatazkan parte hartu duten ikasleekin komunikazio asertibo bat landu behar du, eta horrela konponbiderako bitartekoak adostuko dira, gatazka tresna pedagogiko bezala hartuz.

Bestalde, ikasten ikasi kontzeptua ez da soilik ikasleak erabili beharrekoa, baizik eta irakasle guztiek aplikatu beharko lukete. Hots, arazo baten aurrean, esperientzietatik abiatuz gatazkek beste modu desberdin baten konpondu ahal izateko. Hau gutxi balitz, esan dezakegu autokritika kontzeptua guztiz beharrezkoa dela irakaslearen egunerokotasunean bai ikasle eta irakasleen onurarako.

Horrez gain, gatazkaren kudeaketa egoki bat emateko ezinbestekotzat hartzen dugu irakasleen artean eman beharreko koordinazioa. Alde batetik, edukiak eta plangintza adosteko eta bestetik, gatazken kudeaketan aurrean irakasle bakoitzak bete beharreko papera zehazteko. Horrela, irakasleen artean sortu ahal diren gatazkek ekidingo ditugu.



## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Ondorioz, Curriculumaren ikuskera ezberdinek gatazkak sor ditzake bai ikasleeta irakasle artean. Gure funtzioa, egoera hauetara heldu baino lehen Hezkuntza Komunitatearen arteko lan bateratu bat bideratzea del uste dugu.

Kasuaren ebazpenarekin amaitzean, mintegirantz abiatu gara betiko taldeetan eta 3 egoera ezberdin planteatu dizkigu irakasleak. Lehendabizikoa bakarka erantzutekoa eta ondorengo biak binaka erantzutekoak. Esate baterako, planteatu digun egoera bat honakoa izan da:

- Bi ikasle liskarrean aritu dira jolas orduan eta gatazka oso gogorra izan da. Zer egingo zenuke?
  - o Nire erantzuna garbia izan da: Lehenik eta behin, leku egoki bat aurkitu behar da ikasle biek hitz egiteko arazoa konpontzeko bidean. Ondoren, ikasle bakoitzari zer gertatu den galdetu. Ikasleak itxiak baldi badaude bai eta ez bidezko galderak egiten saiatu. Segidan, ikasleen gurasoekin kontaktuan jarri eta gertatutakoa modu asertibo batean kontatu naturaltasun osoz eta familiarengandik informazioa atera. Azken finean, familietan bizi den egoerak asko adierazten da ikasleen jarreretan.

Irakasleak erantzun guztiak jaso dituenean, saioa amaitutzat eman dugu eta etxerantz abiatu gara.

### **METODOLOGIA**

Gaurko saioa landu ahal izateko hiru dinamika nagusietan oinarritu da. Bakarkako lana kasuaren ebazpena paragrafoa etxean aztertzean, talde lana kasua ebazpen osoa gauzatzeko eta mintegia amaitzeko.

#### **1.Bakarkakoa (paragrafoak)**

Bakarkako lan hau gauzatzeko taldekideen artean paragrafo banaketa egin genuen eta taldekide bakoitzari paragrafo ezberdin bat egokitu zitzaion. Paragrafoak adostuta, ez-

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

presentzian, paragrafo horretan ikusten genituen printzipioak identifikatu behar genituen eta ondoren paragrafo horren inguruan gertatzen denaren hipotesia atera.

### 2. Talde lana

Taldeak bakoitzak bere paragrafoa aztertu ondoren, 12. saio honetan taldeak guztiak bildu eta leheni keta behin, ez-presentzian egindako lana irakurri eta bateratu genuen. Hau ondo zegoela ziurtatu genuenean, sarrera, kasu ebazpena eta ondorioak atera genituen taldeak guztien parte hartzearekin.

### 3. Mintegia

Kasua ebazita genuela, mintegirantz joan ginen. Hemen irakasleak mintegiaren nondik norakoak azaldu zizkigun eta ondoren lanean hasi ginen. Leheni keta behin, taldeak bakoitzari egoera bata zaldu zigun eta bakoitzak berea erantzun. Ondoren, beste bi egoera azaldu zizkigun eta binaka egoera horri irtenbidea eman behar genion.

## HAUSNARKETA

Jarraian saio honetako eduki, konpetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

Gaurkoan landu ditugun **edukiak**, kasua bera eta mintegiko egoerak izango lirateke. Hauek landu izana praktikotasunean indarra hartzeko balio izan duela esango nuke. Azken finean, egoera ebazten izan garenean kasu erreal bat lasai asko izan zitekeen eta bertako beharrak eta konponbide posibleak atera ditugu. Beraz, irakasle jardunerako eduki oso baliagarria iruditzen zait. Horrez gain, mintegian berdina egin dugu. Egoera ezberdinak planteatu eta konponbidea eman. Dinamika hau nire ustez, errealitate gehiago hurbiltzen da inprobisazioa eta bat-batekotasunak hori duelako. Hau da, mintegian azaltzen ziren egoerak prestatzeko ez genuen denbora luzerik eta konponbide eraginkorrena eman behar zen lehen baino lehen. Hots, edozein eskolan gertatzen diren egoera ezberdinetan bezalaxe. Orokorrean, esango nuke gaurko dinamika oso baliagarria eta aberasgarria ikusi dudala,

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

irakasle baten praktikotasuna landu dugulako eta praktika bidez ikasten direlako gauza gehienak.

Saio honetako konpetentzien ikaste emaitzei dagokionean, gainontzekoekin antza handi izan du. **Konpetentzi espezifikoekin** hasiz, esan beharra daukat ikaste emaitza identifikatzeko arazoak izan ditut baino uste dut gaurkoan, printzipio pedagogiko guztien lanketa eta praktikan jartzeko lanketa eta barneraketa egitea zela. Horrez gain, printzipio pedagogiko hauek kasuan erabiltzeaz gain, hauen barneratzea mintegiaren bitartez erakutsi behar izan dugu norainokoa zen hauenganako kontzientzia eta uler maila. **Zeharkako konpetentzien (ikasten ikastea)** ikaste emaitzei erreparoa eginez, gaurko bakarkako lanari dagokionean, lehendabizi kasu osoaren irakurketa egin dut eta ondoren nire paragrafoen azterketa zehatza egin dut non agertzen ziren printzipio pedagogikoen azterketa egin dut. Printzipio ezberdin asko identifikatu ditut eta egoera berean elkarren arteko lotura aurkitu dut. Kasu hau burutzeko baliabideen aurreikuspena adostuta genuen (word) eta hau egiteko ez dut arazorik izan denbora aldetik. Beraz, gaurkoan denboraren kudeaketa egokia egin dudala esango nuke. Kasua alde batera utziz, mintegiko egoerei aurre egin behar izan dudanean, ikasitako guztia azaltzeko gai izan naizela (ahoz) konturatu naiz. Oro har, ikasten ikasteari dagokionean, aurrera pausoak ikusten ditut. **Talde lanari** so eginez, oso pozik nago gaurkoan egin dugun lanarekin. Ez-presentzialekoa denok landu dugu eta saioan zehar denok parte hartu dugu kasu osoaren ebazpenean proposamen ezberdinak botaz. Gainera, mintegian egoera batzuen aurrean izan diren zalantzen aurrea bata besteari erreferentzi eginez eta lagunduz aritu gara. Beraz, saio honetan talde kooperatibo moduan aritu garela pentsatzen dut. **Komunikazio eraginkorrari** dagokionean, ondo aritu garela ziurtatuko nuke. Gehienbat, bakoitzak bere paragrafoan egindako lanketa irakurtzean aditasun handia eskaini dugulako eta ebazpena egiten hasi garenean proposamen guztiak entzun ditugulako. Horrez gain, taldekide guztien parte hartzea altua izan denez, horrek gure arteko komunikazioa aberastu du eta ebazpenean lagungarria izan da ideia berriak txertatzeko. Beraz, arazorik gabeko komunikazioa izan dela esango nuke.

**Identitate profesionala** aberastearen garrantzia gaurko saioak erantzukizun pixka bat izan duela esango nuke. Lehenik eta behin, talde lanean erosoago sentitzen naiz eta horrek irakasle ezberdinekin biltzean talde lan horri beldurrik ez dudala izango uste dut.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Horregatik, puntu hau nire identitate profesionalean nahiko aberastuta dudala uste dut. Horrez gain, kasuen lanketak errealiter egokitutakoak izan daitezke lasai asko eta horrek praktikan izandako esperientzia areagotzen du egoera ezberdinen aurrean nola jokatzeko. Hortaz, praktikaren alorrean aberastu naizela esango nuke, baina oraindik praktika asko geratzen zaizkit aurretik eta ziur nago etorkizuneko praktika horiek moldatuko dutela nire identitate profesionala. Horrez gain, planteatzen zaizkidan egoeren aurrean lasaitasuna mantentzen (mintegia) ikasi dudala uste dut eta hori irakasle batean puntu oso garrantzitsua dela esango nuke. Azken finean, irakasleak izan behar du egoeraren kontrola Beraz, nire identitate profesionalaren oinarriak (eskola inklusiboaren ezaugarriak eta printzipio pedagogikoak) ezartzerako bide honetan, oinarri horiek nahikoa egonkortu direla uste dut.

### INFORMAZIO GEHIGARRIA:

## 1.FASEA B.MULTZOA (ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO METODOLOGIA ESTRATEGIKOAK

### 2011/03/01 I.FASEAREN B MULTZOA (ESTRATEGIA METODOLOGIKOAK

Aurreko saioan, mintegiarekin eta kasu ebazpenarekin, I.fasearen A multzoari (Printzipio pedagogikoak) amaiera eman genion. Gaurkoan, I.Fasearen B multzoarekin (Estrategia metodologikoak) hasiko gara.

Estrategia metodologikoen inguruan ez dakit gauza handirik baina ziur nago klase bateko metodologia zehatz bat aukeratzeko eman beharreko pausoak ikusiko ditugula eta metodologia bakoitza nola funtzionatzen duen aztertu.

### EDUKIAK

**13.Saio** honetan, B multzoari sarrera egiteko **hitzaldi** bat jaso dugu materia berri honen nondik norakoak aztertuz. Hau da, estrategia metodologikoak eta AOI metodologia azalduz. B multzo honetan, estrategia ezberdinetan aditu bilakatzea da helburua.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Saioarekin jarraituz, **talde berriak** egin ditugu eta ikaskidetzeta saioa egin dugu. Bertan talde konpromisoak ezarri ditugu eta taldean pertsona ezberdinek izango duten **rolak** banatu. Adibidez, dinamizatzailerak, denboraren kudeaketa eramaten duena, idazkaria...

Ondoren taldean gaudelarik, AOI metodologian eman beharreko 7 pausoak azaldu dizkigu irakasleak beranduago landuko dugun arazo batean praktikan jartzeko. Hauexek dira eman beharreko 7 pausoak:

1. **Kontzeptuak argitu:** Hasteko, aztergaiaren inguruko kontzeptuak argitu behar dira, ez dadin nahaste edo gaizkiulerturik egon. Horrela, partaide guztiek puntu komun batetik abiatu ahal izango dute.
2. **Arazoa zehaztu:** Gaiaren mugak finkatzen dira eginbeharrak zehazteko.
3. **Analisia eta ideia zaparrada:** Gaiaren inguruan taldeak duen ezagutza gaurkotu eta finkatu (aurretiko ezagutza aktibatuz); horretarako, arazoari buruz ahalik eta azalpen, alternatiba edo/eta hipotesi gehien ematen saiatuko dira.
4. **Analisia eta ideia zaparrada ordenatu:** Ideia-zaparrada saioan emaniko azalpenak sailkatu egiten dira; ondoren, beraien arteko erlazioa, zehaztu.
5. **Ikaste helburuak ezarri:** Emaniko azalpenak kontuan izanik, zehaztu egingo dira falta zaizkien ezagutzak edo argi ez dituztenak. Helburua zera da: ikaste helburuak zehatz finkatzea.
6. **Auto-ikasketa:**
  - i. Lanaren antolaketa

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

- ii. Informazio iturriak aukeratu
- iii. Informazio iturria erabili
- iv. Txostena prestatu

### 7. Eztabaida:

- i. Jakitera eraman: Ikasle kideen eztabaidan, erantzunak eta ikaste helburuak informe batean aurkezten dira, galderak egiten dira eta argi ez dagoenari buruz eztabaidatzen da. Eztabaidaren ondoren, ikasle bakoitzak zera daki: ezagutza ulertu duen, gaiari ze mailako sakontasun eman dion, eta, azkenik, gaia beste batzuei azaltzeko gaitasunik duen.

AOI metodologia ikaskidetza saio honetan aztertu ondoren, irakasleak arazo bat eman digu talde bakoitzari AOI metodologia jarraituz ebatzi dezagun. Egoera honakoa da:

- ✓ **Egoera:** Iosu irakasle berri-berria da eskolan. Gaur klaustro osoko bilera bukatzean norbaitek laguntza Irakaslea aurkeztu dio, eta honek bere burua eskaini dio Iosuri laguntza behar badu, deitzeko eta egoteko. Iosuk gonbidapena onartu eta bilera bat adosten dute. Bileran ikastetxeko aholkularia ere presente dago, hiruron artean Iosuren gela ahalik eta bide inklusiboenetik eramateko. Gure hurrengo elkarrizketa 3 pertsona hauen artekoa izango da.

#### Iosu (irakasle berria)



Gelako aniztasuna dela eta baditut zailtasun batzuk eta egia esanda karreran emandako bibliografia errebisatzen egon naiz, ikaste prozesuaz ere irakurri dut, baina orain teoria guzti hori ez dakit oso ondo nola islatu gelako dinamikan, metodologian... are gutxiago zelan erantzun ume guztiei!

Lasai, lasai, jesarri zaitetz. Orain hitz egingo dugu horretaz patxadaz. Horrek kezkatzen bazaitu, hortik hasiko gara. Gela osoarekin aritzeko zailtasunak dituzula diozu. Suposatzen dut ikasle batzuk beste batzuk baino arreta gehiago eskatzen dutela, ezin dutela ikasle guztiek eduki bera landu, zuzen nabil?



## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### Laguntza irakaslea (LI)



Ba bai, horrela da eta nik ez dakit, ze... ezin gara ibili ikasle batzuei gauza bat irakasten eta beste batzuei beste zerbait, talde osoak ikasi beharko du berdina eta modu berean, ezta? Hori da nik pentsatzen nuena baina ikusten dut ezin dudala gauza bera momentu berean guztiekin jorratu... gainera ikasgaiaren denbora hain mugatua da jorratu beharreko guztia jorratzeko!

Bueno, erraza ez da baina posiblea bai. Zuk nahi baduzu LI-k eta nik lagundu ahal dizugu baina horretarako hobeto ezagutu beharko genuke nola egiten duzun zuk lan gelan, zure programazioa zein den, gelako antolaketa zein den, ... Honetaz hitz egiteko gure espazioak beharko ditugu; bilerak noizean behin egin, gelaren behaketa... Prest egongo zinateke gurekin lankidetzan aritu eta gelan ematen duzun erantzuna hobetzeko?



### Aholkularia (A)

Arazoa kontua hartuta, AOI metodologia aplikatuz lanean hasi gara 7 urrats jarraituz.

**1.Kontzeptuak argitu:** Testua inongo arazorik gabe ulertu dugu.

**2.Arazoa zehaztu:** Aniztasunari erantzuteko zailtasuna duela uste dugu.

**3.Ideia zaparrada:** Denbora urria, plangintza desegokia, erritmo ezberdinak ezin ditu landu, helburuak ezin lortu, motibazio eza, materia gehiegi → helburu hurbilak.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### 4. Ideia zaparrada ordenatu:

- Curriculuma:
  - o Zer? Materia gehiegi → helburu hurbilak
  - o Nola? Plangintza desegokiak (Motibazio eza, erritmo ezberdinak...)
  - o Noiz? Denbora urria.
- Irakaslearen identitate profesionala
  - o Esperientzi urria izatea oztopoa
  - o Praktikotasun eza konpetentziak aplikatzeko (talde lana eta komunikazioa)

### 5. Ikaste helburuak ezarri:

- Ikasitako ezagupenak nola praktikara eraman?
- Lankidetzan lana nola aurrera eraman arazo baten aurrean? Nola antolatzen da? Non?
- Iosu, aholkulari eta laguntzailearen jarrera?
- Estrategiak nola erabili?

Araza honen inguruan talde lan hau burutu dugu gaurko saioan. Baina oraindik gure helburuei erantzuna eman behar diegu eta hori hurrengo saioan egingo dugu ez-presentzian landu beharreko irakurketa baten laguntzaz. Hain zuzen ere, R.Mendiarena.

## METODOLOGIA

Gaurko saioko dinamika hiru dinamika nagusitan oinarritu da. Alde batetik, hitzaldia. Bestetik, talde osoari zuzendutakoa eta azkenik, talde lana.

### 1. Hitzaldia ( I.fasearen B multzoari sarrera)

Irakasleak estrategia metodologikoei sarrera emanez power point baten bitartez baliatu da klase guztiari mezua zuzentzeko. Atal berri hau aurreko A multzoarekin loturak egin dituelarik. Horrez gain, AOI metodologia ere azaldu digu hitzaldi honetan.



## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### 2. Talde osoa

Hitzaldia amaitzean, AOI metodologian eman behar diren oinarrizko pausoak irakurtzen joan gara denon artean eta irakurketa aurrea egin ala zalantzak argitzen joan gara. Irakurketa amaitzean, talde berriak osatu ditu.

### 3. Talde lana (Berriak)

Talde berrian gaudelarik, taldekide bakoitzaren artean rolak banatu ditugu. Zozketa bidez egin dugu hau eta idazkari, dinamizatzailerik eta denbora kudeatzen zuena aukeratu ditugu. Ondoren, denon artean inor galdu gabe eta erritmo ezberdinak errespetatuz, arazoa osatzen joan gara 7 urratsak betez. Denborarik ez dugu izan helburuak beteko zituen irakurketa egiteko eta 5. enean geratu gara.

## HAUSNARKETA

Jarraian saio honetako eduki, kompetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

Gaurko saion landu ditugun **edukien** inguruan esan beharra daukat ez nituela ezagutzen eta gaur hauek landu izana nire jakintza maila zabaldu dela esango nuke. Kasu ebazpenak egiterako orduan, jarraitu beharreko gidoia zein den banekien aurretik landutako saioetatik baina arazo bati aurre egiteko gidoia ez nuen ezagutzen. Hortaz oso aberasgarri iruditu zait arazo bati aurre egiteko pausoak zeintzuk diren jakitea. Horrela, hemendik aurrera landuko ditugun hainbat arazoentzako aplikagarria izan daitekeelako. Horrez gain, estrategia metodologiko honetaz gain, ziur nago ezagutzen ditudan asko landuko ditugula eta harritu egingo naizela estrategia bakoitzak betetzen dituen helburuak, irakasle rola... Beraz, edukiei helduta esango nuke strategi metodologikoen inguruan AOI-n eman beharreko pausoak oso erabilgarriak edo aplikagarriak iruditu zaizkit arazo bati aurre egiteko. Aldez aurretik ez bainuen ezagupenik arazoei nola aurre egin behar zaien eskola testuinguruan.

Saio honetan hainbat kompetentzien ikaste emaitzak landu ditut. **Kompetentzi espezifikoekin** hasiz esan beharra daukat AOI metodologiaren urratsak eta hauek

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

aplikatzen ikasi dudala. Izan ere, irakasle berri batek duen arazoari taldean aurre egin diogu eta urrats errespetatuz borobildu dugu. Zeharkako kompetentzien (ikasten ikastea) ikaste emaitzei erreferentzia eginez, ez ditut kompetentzi asko landu etxerako lanik ez baitzegoen. Hala ere, kompetentzi baten lanketa topatu dut. Hots, ideia zaparradaren ordena ezartzean, aurretik ikasitako printzipioen arteko lotura egin dugu eta horren zergatia azaldu dugu beraz horretan behintzat kompetente izan naizela esango nuke. **Talde lanari** begiradaxo bat emanez, esan beharra daukat nahiz eta talde berrian lan egin oso gustura sentitu naizela egokitu zaizkidan pertsonekin. Lan giro ederra sortu dugu eta egin beharrekoak arazorik gabe burutu ditugu taldekide guztion proposamen eta parte hartze ezberdinak errespetatuz. Horrez gain, hurrengo saiorako irakurketa dena ez irakurtzearen taldekideen artean banatu dugu. Lan kooperatibo bikaina! **Komunikazioari dagokionean**, irakasleak hasiera batean hitzaldia ematen hasi denean zarata batzuk egon dira ikasle artean eta irakasleak atentzioa deitu behar izan die. Horrez gain, talde berriak egitean, iskanbila ederra sortu dugu. Ez dakit emozioengatik izan ote zen. Horrela, AOI metodologiaren urratsak entzuteko arazoak izan ditugu. Taldeko komunikazioari dagokionean, ez dugu inongo arazorik izan eta lana egitean hitz egiteko txandak errespetatu eta entzute aktibo bat praktikan jarri dugu. Ez ordea irakaslea azaltzen egon denean. Beraz, komunikazioa gaurkoan ez da oso eraginkorra izan irakasle ikasle artean.

Gaurkoan kasu ebazpenak egiteko gidoiarekin bezalaxe, AOI metodologiaren urratsekin nire **identitate profesionala** indartzea besterik ez dut lortu. Aurretik esan bezala ez nekien horrelako pausoak jorratu behar zirela arazo bati irtenbide emateko. Gaurkoan ordea, irakasle izango naizenean eta arazo bat suertatzean irtenbiderako pauso batzuk eman behar direla gogoaraziko dut. Hala ere, ziur nago irakasle askok arazo batean aurrean ez dituztela urrats horiek jarraituko eta zigorraren bidea ezarriko dute. Horrez gain, edozein taldera moldatzeko malgutasuna dudala konturatu naiz. Harremanak sortzea ez zait bat ere kostatzen. Beraz, irakasle berriekin edo ikasle berriekin lan egitean ziur nago arazorik gabe arituko naizela. Horrenbestez, gaur metodologia berri bat barneratu dut eta nire identitatean nuen abilezia batez ohartu naiz.

### INFORMAZIO GEHIGARRIA:

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

### 2011/03/04 ANIZTASUNERAKO NEURRI ARRUNTAK ETA LAGUNTZA SISTEMAK

Pasaden astearteko saioan, AOI estrategi metodologiaren urratsak barneratu eta aplikatu genituen. Gaurkoan, neurri arruntak eta laguntza sistemaren inguruko hitzaldi bat jasoko dugu eta 2.ikaskidetza saioarekin aurreko saioko arazoaren ebazpena egin eman.

Metodo hauen aurrean nire aurrezagutzak hutsak dira. Ez dut ez bata eta ez bestea ezagutzen. Hori bai, aniztasunaren gaia lantzen ari garenez, aniztasunarentzat positiboak izango diren neurriak direlakoan nago.

### EDUKIAK

**14.Saio** honetan, aniztasunari erantzuteko neurri arruntak eta laguntza sistemak hitzaldi baten bitartez jaso dugu. **Hitzaldi** hau ikasleok osatzen joan gara gure aurrezagutzekin. Joko handi eman duen diapositiba honakoa izan da:

#### “USTEAK...

- ▶ Aniztasunaren trataera aparteko egoerei baliabide bereziekin erantzutea da.
- ▶ Aniztasunari erantzuteko neurriak hartzea adibidez, Down Sindromea dutenentzako erantzuna ematea da.
- ▶ Gero eta neurri espezifikagoak hartu, orduan eta erantzun hobeto ematea da.
- ▶ Neurri orokorrak eta arruntak desberdinak dira.
- ▶ Laguntza Zerbitzuak aniztasunari erantzuteko arduradun bakarrak dira.

#### ...ERDI USTEL”.

Neurri arrunta eta espezifikoen artean eztabaidan egon gara zein zen bien arteko ezberdintasuna. Eta neurri orokorrak eta arrunten artean...

**Neurri orokorren baldintzak** ikusi ditugu hitzaldi honetan:

- **Ikastetxe mailakoak:**

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- Azpiegitura, antolaketa eta baliabideak.
- Praktikari buruzko gogoeta.
  
- **Hezitzaileen jarrera irekia eta baikorra.**
  
- **Lankidetzaren mailakoak:**
  - Tutoretza plana.
  - Irakasleen koordinazioa.

**Laguntza sistemen** inguruan honakoa azpimarratu digu irakasleak:

- **Kanpo zerbitzuak** (Foru aldundia, gizarte ongizate saila, guraso elkartetik sortutako zerbitzuak, udalak)
- Barne zerbitzuak:
  - Berritze gunea:
    - Heziketa premia bereziko aholkularia.
    - Eskolan HH eta LH.
  - Ohiko baliabideak:
    - Kontsultorea/aholkularia
    - Tutorea
    - Laguntza irakaslea
  - Hezkuntza Premia Berezia baliabidea (HPB)
    - Laguntza pertsonalak
    - Laguntza teknikoak

Honakoa izan da neurri arrunt eta laguntza sistemen inguruan jaso dugun hitzaldia. Hitzaldia amaitzean, ez-presentzian landu beharreko R.Mendiaren irakurgaiaren laguntzarekin, 2.ikaskidetzaren saio hasi dugu **aurreko saioko arazoa ebazteko** asmoz. Taldeka jarri gara eta lanean hasi gara.

R.Mendiaren irakurgai ikaste helburuekin lotu eta garatu. *(6-7.urratsak)*

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- Aholkulari, laguntzaile eta irakasle berria nola aurrera eraman lankidetzaz arazo baten aurrean.
  - o IHP, ICP eta GP harreman eduki behar dute eta momentu oro koherentziaz aurre egin egoera ezberdinei.
  
- Aholkularia:
  - o Lehen hezkuntzan eta irakasle bera da beste formazio batekin
  
- Laguntzailea:
  - o Beste irakasle bat gehiago da.
  
- Estrategiak nola erabili:
  - o Talde mailakoak
    - Lan proiektuak
    - Txokoak (Autonomia)
    - Tailerrak
  - o Banakakoak
    - Banakako lan plangintza
    - Kontratu didaktikoa
    - Programazio malguak edo norberak zuzentzeko fitxak edo materialak.

Arazoaren ebazpena gutxi gora behera amaitu dugunean, 2 talde arbelera irten dira eta bakoitzak ebatzitakoa aurkeztu dute. Ondoren, gainontzeko taldeek arbelean azaldutakoa osatu dugu.

### **METODOLOGIA**

14.Saio honetan jorratu ditugun edukiak nola landu ditugun azalduko dut atal honetan. Gaurko saioan ondorengo dinamiketan oinarritu da: Bakarkako lanketa, Hitzaldi parte hartzailea eta talde lana.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### 1. Bakarkako lana (Ez-presentziala)

R.Mendiaren irakurgaia landuta ekarri behar genuen. Gainera, irakurgaia taldekide guztien artean banatu genuen lan asko baitzen. Hala ere, planifikazio eskasarengatik, ezin izan dut irakurgai hau sakonki landu. Soilik begirada bat bota diot gainera.

### 2. Hitzaldi parte hartzailea

Saioari hasiera emateko hitzaldi bat jaso dugu aniztasunari aurre egiteko neurri arruntak eta laguntza sistemak azalduz. Hau power point baten bidez jaso dugu eta gure parte hartzeak hitzaldia asko aberastu du. Izan ere, gure aurrezagutzetik abiatuz gauza asko zalantzan jarri ditugulako eta horrela hobeto ulertu.

### 3. Talde lana

Hitzaldia amaitzean, arazoaren ebazpenarekin hasi gara. Aurreko saioan ezarritako helburuak osatzen joan gara irakurgaiaren laguntzaz. Taldekide guztion laguntzarekin arazoari ebazpena ematea lortu dugu.

## **HAUSNARKETA**

Jarraian saio honetako eduki, kompetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

Landutako **edukiei** so eginez, esan beharra daukat, landu ditugun neurri arruntak eta laguntza sistemak ez nituela ezagutzen. Hala ere, HPB ikasleen beharrak lantzean sakondu genuen. Horregatik, eduki berriak izanda aberasgarritzat ikusten dut nire jakintza mailarako. Hala ere, sakontasun handirik ez diogula eman uste dut. Hala ere, azalekoa bada ere garrantzizkoa ikusten ditut eduki berri hauek. Azken finean, irakaslearen inguruan lan egiten duen organigrama ezagutu beharra dauka irakasleak. Eduki hauek askoz ere aberasgarriagoak bilakatu direla uste dut, hitzaldia aurrera zihoan bitartean ikasleen parte hartzea eman delako nahiz aurrezagutza nahiz esperientzietatik abiatuz.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Gaurko saioan landu ditugun kompetentzien ikaste emaitzak aztertuz, ondorengoak landu ditudalakoan nago. **Kompetenzi espezifiko**en ikaste emaitzei dagokionean, jasotako hitzaldiarekin, aniztasunari erantzuteko aurreikusitako neurri arruntak ezagutu ditugu. Horrez gain, R.Mendiaren irakurgaiarekin, ikasleen parte hartzea bultzatzeko eta arazoak sortzen dituzten portaerak moldatzeko, taldeak kudeatzeko eta gela taldea dinamizatzeko estrategiak ezagutu ditugu. Bai taldekoak bai bakarkakoak. **Zeharkako kompetentzien (ikasten ikastea)** ikaste emaitzei begira bat emanez, esan beharra daukat ez naizela fin ibili. R.Mendiaren irakurketarako lan pilaketarengatik eta planifikazio ez egoki bategatik ez dut denborarik izan hau sakonki lantzeko. Beraz, autokritika eginez, esan beharra daukat hainbeste aurrera pauso eman eta gero aurreko saioetan gaurkoan nengoen bezala geratu naizela. Ez aurrera ez atzera. **Talde lana**, arazoaren ebazpena gauzatzean zoragarri jardun dugu lanean. Benetan lan kooperatiboa izan dela uste dut. Guztion parte hartzeak eta proposamenak kalitatezko ebazpen bat egitera bultzatu gaitu. Gaurkoan talde lanean oso gustura eta pozik aritu naiz. Noizean behin taldez aldatzea on egiten duela uste dut ikasleon jarreran eta lan egiteko eritmoan. Batzuetan eritmoa hobetuz eta beste batzuetan okertuz. **Komunikazioa** gaurkoan aurrekoan ez bezala eredugarri aritu garela esango nuke. Lehenik eta behin, hitzaldia ez delako irakaslearen monologo bat izan eta denok osatu dugulako. Horrek, irakasle ikasle arte komunikazioa hobetuz. Bigarrenik, nire taldean genuen giro onak komunikazio on bat erabiltzera eramán gaituela uste dut. Beraz, gaurkoan bai, komunikazioa eraginkorra izan dela esango nuke.

Gaurkoan **nire identitate profesionala** eduki berriez elikatzeaz gain. Oso positiboa ikusten dut edukiez aberastea eta beste hainbat aspektu barneratu ditudala uste dut. Gure irakasle asko fijatzen naiz nire identitatearen moldatzerako orduan eta gaurkoan bere jarrera hitzaldian ikasleak parte hartzera bultzatzea eta horrek parte hartzearen ondorioa izan dela konturatu naiz. Nire etorkizunean jarrera hori izatea gustatuko litzaidake edozein eduki lantzen nagoen bitartean. Hau da, gaur irakaslearen jarreraz kritikoak izatera bultzatu gaitu eta hori da nik nire identitaterantz gaurkoan eramaten dudán alderdietako bat. Beste puntu oso garrantzitsua izan da, irakasleak azaldu duen poztasuna gure jarrera hitzaldian ikusita. Horrelako jarrerak irakasle baten aldetik ikustean, ikasteko motibazioa pizten dit nire behientzat. Beraz, ahozko sari hauek etorkizun batean nire ikasleekin erabiliz gero ziur nago

## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

motibaturik mantenduko ditudala. Hortaz, beste aspektu bat nire identitatean txertatu eta erabiltzen saiatuko naizena.

### **INFORMAZIO GEHIGARRIA:**

#### **2011/03/08 2.MAILAKO IKASLEEN HITZALDIAK**

Aurreko saioan Iosu irakasle berriak zuen arazoari ebazpena eman genion, AOI metodologiaren urratsak jarraituz. Gaurkoan, beste eskakizun bat iritsi zaigu Sustraiak ikastolatik. Ikastola honek aniztasunari erantzuteko estrategien inguruan arazoak ditu. Horregatik, hemendik ikaste koadernoak bukatu arte eskakizun honi erantzuna ematen jardungo dut.

Aniztasunari erantzuteko estrategien artean, R.Mendiaren irakurketa ikusi dudana bezala taldekakoak eta bakarkakoak ditugu. Beraz, Sustraiak ikastolari estrategia bakoitzaren egitekoa zein den eta noiz erabili behar den azaldu beharko diogula uste dut.

### **EDUKIAK**

**15.saioa** dugu gaurko honetan eta aniztasunari erantzuteko estrategiei dagokionean, taldekoei erreferentzia eginez, ez-presentzian atalen banaketa egin genuen eta nire txokoa egokitu zitzaidan. Gainontzekoei, lan proiektuak eta tailerrak.

Honakoa da Sustraiak ikastolak bidali zigun eskutitza eta erantzun beharrekoa estrategia metodologikoak kontua hartuta:



## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### ESKUTITZA

**K**aixo lagun,

Sustraiak Ikastolako irakasle talde bat gara eta zuengana zuzentzen gara, kezkatu gaituen errealitate bat zuekin konpartitu eta honi soluziobideak bilatzen lagundu gaitzazuen eskatzeko.

Gure ikastetxe eta gelak anitzak dira oso, eta guztion arteko ezberdintasunak modu positibo eta aberasgarrian pentsatu eta bizi ditugun arren, askotan zenbait zailtasunekin aurkitzen gara gure eguneroko jardunean edo praktikan. Izan ere, aniztasun horri erantzuteko neurri eta estrategiak falta zaizkigula iruditzen zaigu. Ez daukagu baliabide nahikorik aniztasunari modu egokian erantzuteko, aplikatu ahal ditugun neurriak ez ditugu oso ondo ezagutzen eta estrategia berriak probatu nahi ditugu.

Beraz, aniztasunari erantzuteko neurri eta estrategia metodologikoen inguruko formazio saio teoriko- praktikoa jaso nahiko genuke zuen eskutik, badakigulako jakin, azken boladan gai hauetan sakontzen aritu zaretela. Neurri eta estrategia ezberdinak **ezagutu** nahi ditugu, hauek **zertarako** erabili ditzakegun, **noiz**, **gure zeregina** zein izango litzatekeen, eta baita estrategia hauek erabiltzeak ekarriko dizkigun **abantaila edo onurak**, eta **kontutan hartu beharreko aldagai edo faktoreak** zeintzuk izan behar diren. Gaiaren inguruan gure lanerako lagungarria izango zaigun **euskarri bat** izatea ere gustatuko litzaziguke.

Zuen erantzunaren zain,

Agur bero bat,

Sustraiak Ikastolako irakasle taldea.

---

**K**aixo lagun,

Asko poztu gaitu zuen berri izateak eta batez ere Euskal Herriko txoko ezberdinetako irakasleok antzeko kezak eta beharrak ditugula ikusteak. Gu ere duela urte batzuk hasi ginen aniztasunari erantzuteko neurri eta estrategia ezberdinen inguruan ikertzen, praktikan jartzen, hauek etengabe baloratu eta hobekuntzak egiten. Prozesu aberasgarria izan da

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

guretzat gai honetan murgilduta aritzea, eta gure ezagutza teoriko-praktikoak zuekin konpartitzeko prest gaude.

Hasteko, formazio saio txiki bat egitea proposatzen dizuegu.

Formazio saioaren izaera: Saio **teoriko praktikoa** izango da. Saioaren lehenengo zatian aniztasunari erantzuteko neurri arruntak zeintzuk diren gogora ekarriko dugu. Eta ondoren, zuen geletan aplika ditzakezuen estrategia metodologiko ezberdinak **aurkeztuko** ditugu. Saioaren bigarren zatia praktikoagoa izatea proposatzen dugu: horrela, neurri eta estrategien **aplikazioaz** arituko gara. Zuen **zalantza, kezka argitzeko tartea** ere izango dugu.

Saioa aurrera eramateko **euskarria** prestatu dugu, eta hau zuentzat eskuragarri egongo da, aurrerantzean ere erabili (osatu) ahal izateko. Saioa garatzeko lanerako egokia izango den leku erreserba zuen esku uzten dugu. Datu hau baieztatzeko geldituko litzateke. Eguna eta ordua zehaztuta dugunez, **Martxoaren 18an, Mintegian** elkar ikusiko dugu!

Ondo izan eta agur bero bat,

Aniztasunaren trataerarako Batzordea.

Eskutitz honi erantzuna emateko, **2.mailako ikasleen eskutik, 2 hitzaldi** bat jaso ditugu aniztasunari erantzuteko estrategia batzuen inguruan. Hain zuzen ere, txokoen inguruan eta motibazioa sustatzeko proiektuen inguruan. Honakoa azaldu digute:

### **ESPERIENTZIAN TXOKOA (Laiak eta Amaiak azaldu dute)**

- Beraiek bizitako esperientzian oinarritu dira eta beraiek ikusitako txokoak azaldu dizkigute.
  - o **Mahai jokoak**
  - o **Etxe txokoa** (Sozializazioa garatzen da)
  - o **Ordenagailuen txokoa** (Urtxintza proiektua = Jolas espezifikoak)
  - o **Moldaketa txokoa** (Plastikarekin lotutakoak, material ezberdina, haurren esplorazioa aurrera egiten du)
  - o **Liburu txokoa** (Irakaslearen rola garrantzitsua, haurrak aspertu ez daitezen)

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- **Tenpera txokoa** (5 urteko gelan. Txoko honetan gurasoak gerturaten dira beraien seme-alabek egindako lanak ikustera)
- **Eraikuntza txokoa** (Mutilak egoten dira gehienbat)
- **Margotegia** (Gai baten inguruan marraztu; urtaroak, Gabonak... jolas moduan.)

### PROPOSAMENAK

- **Sorpresa txokoa** (Gai baten inguruan lanketa eta guraso bat etorriko da azalpena ematera.)
  - Kirol txokoa
  - Natura txokoa (Txangoak, mendiak...)
  - Laborategi txokoa (Birziklatutako elementuekin)
  - Hondartza txokoa
  - IKT txokoa
- Irakaslearen rola, ikertzailea, behatzailea eta gidaria izan behar du.
  - Txokoen parte hartzea uztartu garapen integrala gerta ahal izateko. Txoko bakoitzal garapen mota bat bultzatzen baitu.
  - Ikasleak behatzeko irizpideak: Komunikazioa, nortasuna eta ingurunearen behaketa.
  - Desabantailak: Material urria eta espazioaren kudeaketa eskasa.

### MOTIBAZIOA SUSTATZEKO PROIEKTUAK

#### 2.Hitzaldia

- Hitzaldi hau beste gela batean izan dugu eta hitzaldi eman dutenak ere beste batzuk ziren.
- Topagunea: Proiektu ezberdinen lanketa da
- Animalien txokoa
- Irakasleak eginiko txokoa (Ile-apaindegia. Elementuak erostera joaten ziren) (Joko sinbolikoak = Medikua, polizia...)
- Beraien interesetik abiatu. Adibidez, erraldoiak.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- Erraldoiak aitzaki, hauekin buruketak egin, psikomotrizitatera gaia eraman, zein esperientzi izan duten azaldu (Hizkuntza landu).
- Iraupena 3 hilabete gutxi gora behera.
- Oinarria umeen interesetatik abiatzea.
- Proiektua antolatzeko haur guztien adostasuna lortu behar da.

Hitzaldi hauek 2.mailako ikasleen eskutik jaso ondoren, jasotako ideiak **talde handian** partekatu ditugu.

Ondoren, aniztasunari erantzuteko strategiaren irakurraia kontuan hartuz, **mintegietako taldean** bildu gara eta estrategia bakoitzarekin honako galderak erantzuten hasi gara:

- Zer dira?
- Noiz aplikatu?
- Irakaslearen egitekoa zein da?
- Abantailak/Desabantailak?
- Kontuan izan beharreko alderdiak?

Galdera hauek saio amaiera egiten hasi behar ginen baina ez dugu denborarik izan eta ondorengo saioan sakontasun handiago batez azalduko ditut.

## **METODOLOGIA**

Jarraian saio honetan edukiak lantzeko erabil ditugun dinamiken azalpena emango dut. Hauexek izan dira landu ditugunak: **Banakakoa, Hitzaldiak, Gela osokoak eta Talde lana.**

### **1.Banakakoa**

Txokoen atala egokitu zitzaidan eta leheni eta behin, irakurketa orokor bat egin nuen. Ondoren, ideia nagusienak azpimarratu nituen eta azpimarratutakoaren alboan nik ulertzen nuena idazten nuen.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### 2.Hitzaldiak

Bi hitzaldi jaso ditugu eta hitzaldi bakoitza 2 pertsonen bitartez eman dituzte. Hitzaldi bat solairu batean izan da eta beheko solairuan beste bat. Lehenengo mailako guztiok jaso ditugu hitzaldi hauek eta bi talde handi osatuz, txandak egin dugu. Hitzaldi hauek, pantaila handian azaldu dute eta beraiek egindako lana bertan argitaratu eta azaldu dute. Hitzaldi bakoitza amaitzean, 3-4 galdera egin dira bai irakasle eta ikasleen aldetik.

### 3.Gela osoan

Hitzaldiak amaitzean, talde bakoitza bere gelara joan da eta guztion parte hartzearekin, 2 hitzaldien ideia nagusiak partekatu ditugu. Irakaslea txandak kudeatzen joan da.

### 4.Talde lana

Saioarekin amaituz, eta hitzaldiak partekatu ondoren, mintegietako taldeetan bildu gara estrategia bakoitzari dagozkion galderak erantzuten hasteko. Taldekide guztion artean lanean hasi gara txokoen inguruan, galdera irakurri eta testuan aurkitu. Baina ez digu denbora eman estrategia guztiei dagozkien galderak erantzuten.

## HAUSNARKETA

Jarraian saio honetako eduki, konpetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

Gaurkoan landu ditudan **edukiei** begira esan beharra daukat hitzaldian jaso ditugunak oso interesgarriak egin zaizkidala, 2.mailako ikasleak bizitako esperientzia kontatzen ari zirelako. Horrez gain, hurrengo urtean beraiek bezala praktikak egin beharko ditugu eta hurrengo urtean topo egingo dugunarekin ezagutzeko dinamika oso baliagarria iruditu zait. Hau gutxi balitz, gure esperientziarako balio izateaz gain, Sustraiak ikastolako eskutitzari erantzuteko informazioa bazegoela iruditu zait. Honetaz aparte, taldekide bakoitzak egin dituen irakurgaiak eskutitza erantzuteko ere baliogarriak dira. Oro har, saio honetan eta ez-

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

presentzian landu ditugun edukiak oso eraginkorrak iruditzen zaizkit eskutitz horren erantzuna prestatzerako orduan.

Saio honetan landu ditugun konpetentzien ikaste emaitzei erreparatuz, **konpetentzi espezifikoei** dagokienean, irakurzaia eta hitzaldiekin, estrategia metodologikoak ezagutu ditugu 2.mailako ikasleen esperientzietatik abiatuz eta tutorearen eginkizunak gainetik ikusi ditugu. **Zeharkako konpetentzien (Ikasten ikastea)** ikaste emaitzei dagokienean, esan beharra daukat txokoen irakurzaia oso ondo eta sakon landu dudala. Lehenik eta behin, irakurketa orokor bat eginez eta ondoren eskema bat gauzatuz azpimarratuta nituen ideiekin. Hau guztia aurrera ateratzeko, asko lagundu nau toki aproposa aukeratzea eta asteko plangintzan lanketa honi tarte bat uztea. **Talde lanari** dagokionean, hitzaldiak amaitu direnean, lanean hasi gara. Baina kontuan izanda saioa amaitzeaz zegoela taldekide guztiok ez dugu ganora gehiegi jarri lana egiteko. Ondorioz, esango nuke gaurkoan, huts egin dugula talde lanari dagokionean. Hala ere, taldekide bakoitzak irakurrita ekarri behar genituen atalak ondo aztertuta ekarri ditugu. **Komunikazioari** erreferentzia eginez, hitzaldiak argi eta garbi azaldu dira eta entzuleok adi egon gara osotasunean. Baina bi hitzaldiak alderatuz, lehendabizikoa astunagoa egin zait bigarrena baina. Eduki gehiegi azaldu dituzte eta momentu batzuetan aditasun maila jaitsi egin da. Orokorrean, saioa ondo baloratuko nuke komunikazioari dagokionean.

Gaurko saiotik **nire identitate profesionalerantz**, interesgarria eta nire jakintza maila areagotzeko edukiez gain beste hainbat alderdi ikusi ditut garrantzitsuagoak eta barneratzekoak. Lehenik eta behin, nola sustatu behar den haur bakoitzaren parte hartzea gelako txoko ezberdinetan eta ez beti txoko berean mantendu. Bigarrenik, haurrak txoko ezberdinetatik ibiltzeko interesa piztea gogoko dituzten elementuekin. Esaterako, legoak, ordenagailuen ikaskuntza jokoekin... Azkenik, irakasleak bete behar duen rola aintzat hartu dut eta etorkizun batean egin behar hauetan oinarritzea. Hots, ikertzaile, zerbait arraroa gelan dagoenean susmoak xahutu, horretarako egin beharreko behatzaile lana burutu eta trabarik balego haurren artean beraien garapen prozesuaren gidaritza lanak egitea.

### INFORMAZIO GEHIGARRIA:

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

### 2011/03/11 ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO TALDE ETA BAKARKAKO ESTRATEGI METODOLOGIKOAK.

Aurreko saioan hitzaldien bitartez, aniztasunari erantzuteko estrategia batzuen oinarriko printzipioak jaso genituen. Gaurkoan ordea, bete betean sartuko gara aniztasunari erantzuteko estrategietan, aurreko saioetan azaldutako galderak jarraituz.

Hitzaldian jaso genuena, hainbat estrategien adibideak izan ziren gehienbat baina gaurkoan iruditzen zait askoz ere sakonago aztertuko ditugula. Hala nola, abantailak eta desabantailak bezala. Nire aurrezagutzetatik abiatuz esango nuke aniztasunari erantzuteko estrategiak bizi nituela txiki txikitatik. Adibidez, dendatxoa, etxetxoetara jolastea, plastilina, legoak... adin honekin ez nintzen kontziente hauen eraginaz baino orain arte jaso dudan informazioarengatik eraginkorrak iruditzen zaizkit aniztasunari aurre egiteko. Azken finean, elkar lana bultzatzen delako, sozializazioa...

### EDUKIAK

**16. Saio** honetan, taldekako aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoetan sartu gara eta **gela osoan** taldeko estrategien inguruan eginiko lana elkar jarri dugu eta honakoa izan da gure taldeko lana: **Txokoak, Tailerrak eta Lan proiektuak**

### TXOKOAK

#### -Zer dira?

Ikaslearen **garapen integrala** garatzeko metodologia da. Txoko bakoitza ikaslearen garapen mota bat garatzen du. Helburua, txoko guztietan parte hartzea, garapen osoa eman ahal izateko. Metodologia hau, **autonomian** eta haurren **interesetan** oinarritzen da.

#### -Noiz aplikatzen dira?

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Txokoak **2-6 urte** bitartean erabiltzen dira eta haurren garapenean aurrera pausoak emateko erabiltzen da. Ikasketa esanguratsu bat dela esan dezakegu eta zeharko garapen integrala moldatzen doazela esan dezakegu.



*Txokoen irudi bat. Margo txokoa.*

### **-Irakaslearen rola zein da?**

- Irakaslearen rola **ikertzailea, behatzailea eta gidari** izan behar du.
- Horrez gain, txokoetako parte hartzea orekatu izatea lortu behar du.
- Txokoak “jokoak” direla kontuan hartuta aztoratze egoera bat kudeatzen jakin behar du. Adibidez, tonu lasaia eta goxoa erabiliz, kanta lasai bat kantatuz...
- Ebaluazioari dagokionean, irakasleari ezinezkoa zaio haur guztien jarraipen zehatza egitea eta gainera horrek irakaslearen gidari lana mugatuko luke. Azken finean, gehiegi zentratuko zelako ikasle batean.
- Hala ere, ikasle batek bere ikaste prozesuan oztopatzen bada beti ere oso baliagarria da irakaslearen arreta zehatz hori izatea.

### **-Abantailak**

- Haurren garapenean oso lagungarria dela.



## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- Beste gelako kide batzuekin harramantzen dela.
- Irakasle ezberdinekin egotea ohitzen da.
- Autonomia bultzatzen da.
- Sozializazioa.

### -Desabantailak

- Material urria izatea
- Espazio gutxi.
- Espazioaren kudeaketa txokoak kokatzerako orduan.
- Txokoen parte hartzea kudeatu ezean, garapen osoa garatzeko arriskua.

### -Kontuan izan beharreko aldagaiak

Txokoetan irakasleak behatzaile lana egin behar du ikasleengan eta kontuan hartu behar dituen irizpidetako batzuk hauek dira: **Komunikazioa, nortasuna eta ingurunearen behaketa**. Hau da, ikasleen arteko komunikazioa nolako den eta beraien artean oztoporik ez dagoela ziurtatzea, ikasle bakoitzaren nortasuna zein den konturatzea eta hortik neurriak hartzen jakitea eta ikasleen testuinguruaren azterketa egitea. Hain zuzen ere, haurren jokatzeko era, etxean duten egoeraz asko esan dezake.

## **TAILERRAK**

### -Zer dira?

Bertan era ezberdinetako ikasleak biltzen dira eta hainbat gai lantzen dira modu praktikoan. Guztien artean gai bat lantzeko proiektu ezberdinak eramaten dituzte aurrera. Adibidez, bolumena lantzeko, tailer batean kaxa ezberdinak egiten dituzte. Honekin bolumena beste modu batera ulertzen dute eta era berean, beraien trebetasun ezberdinak garatzeko aukera dute.

### -Noiz aplikatzen dira?

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

**Edozein ziklotan** aplikatu daitezke baina gehienbat lehen hezkuntzan aplikatzen dira. Bertan trebetasun ezberdinak dituzten ikasleak batzen dira eta askotan ezberdinetako ikasleak izan daitezke.

### -Zein da irakaslearen rola?

Irakaslearen rola **behatzailearena** izan behar da baina era berean **laguntzailea** ere izan behar du. Talde osoaren **koordinatzailea** izan behar da eta markatutako helburuak betetzeaz arduratu behar da. Horretarako ebaluaziorako bitartekoak jarriko ditu.

### -Abantailak

Erritmo ezberdinak errespetatzen dira.

Besteen lanak baloratzen dira.

Trebetasun plastikoen ikaskuntza.

Denon artean zerbait txukuna egiteko gai garela sinesten da.

Beste kideek egiten dituzten lan ezberdinak baloratzen eta onartzen ikasten da.

Bata bestearengandik ikasten da eta horrela ikasleak elkarri laguntzen diote, kooperatibismoa sustatuz.

### -Desabantailak

Irakaslearen rola oso garrantzitsua da eta ondo ez betetzeak ondorio negatiboak izan ditzake.

### -Kontuan izan beharreko aldagaiak

Aniztasuna ezinbesteko elementua da, modu ezberdinetako ikasleak daude tailerretan. Inguruak eragin nabarmena dauka eta horren arabera aukeratuko ditugu landu beharreko gaiak zeintzuk izan beharko diren. Komunikazio eraginkorra ere garrantzitsua izango da eta horrela ikasleen motibazioa aurkitzea lortu beharko da.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### **LAN PROIEKTUAK**

#### **-Zer dira?**

Klaseko irakaskuntza edo apendizgoa antolatzeko modu bat bezala definitzen da. Beraz, proiektu honen xedea, jakintzen inguruko antolaketa estrategiak osatzean datza kontzeptu, prozedura eta informazioaren arteko erlazioan oinarriturik.

#### **-Noiz aplikatu?**

Arazo bat planteatzen den momentuan

#### **-Irakaslearen rola?**

Beharrezkoa ezagutzen egitura logiko bat ezagutzea hauen garapenerako.

Esperientzia ezin bestekoa da

Jarrera aktiboa eta malgua ikasleekin.

Irakasleak “orkestrako zuzendari bezala jokatu behar du taldeko irakasle baino.

#### **-Abantailak**

- Berrikuntza metodoak eskaintzen ditu
- Irakaslearen motibazioa bultzatzen du
- Erabaki garrantzitsuak hartzeko lagungarri
- Ikaslea etorkizunerako gertatzen laguntzen du
- Errealitatearen eta eskolaren arteko erlazioa bultzatzen du
- Eraikuntzarako aukera berriak eskaintzen ditu

#### **-Desabantailak**

- Dedikazio eta denbora asko eramaten du klasea modu honetan planteatzea
- Lan pertsonal handia eskatzen du

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### -Kontuan hartu beharrekoak

- Ebaluatzeko irizpideak
- Arazo potentzialak eta hauek kudeatzeko metodoak

Estrategia hauek ez-presentzian landu ondoren, saio hasieran mintegietako taldeetan jarri gara eta etxean landutakoa elkar jarri dugu. Elkar jartze hau egiteko, txokoen eta tailerren arteko ezberdintasuna antzeman dugu:

**Tailerra:** Prozedura batean oinarritzen da eta besteengandik ikasten da. Ikasteko zerbaitetan oinarritzen da. Ikasleen interesak kontuan hartzen dira.

**Txokoak:** Haurraren garapen integrala bultzatzea du helburu. Interesetan eta haurraren autonomia garatzean oinarritzen da.

**Lan proiektuak:** Tailerrak eta txokoak bateratu daitezke.

Eztabaida hau klasean landu ondoren, lanean hasi gara gainontzeko talde estrategiek. Taldekatze malguak eta talde kooperatiboak.

### **TALDEKATZE MALGUAK**

#### -Zer dira?

1950. urtean hezkuntza sistema aberasteko eta orokortzeko helburuarekin sortu zen eta aniztasunaren aurrean sortzen diren arazoei aurre egiteko erabiltzen den ikaskuntza heterogeneoa da.

#### -Noiz aplikatzen dira?

Dinamika hau, aniztasunaren ondorioz arazoak sortzen direnean aplikatzen da gehienbat, ikasleen ikaste erritmoak desberdinak direnean adibidez.

## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### **-Irakaslearen egitekoa zein da?**

Ikasleen aniztasunari aurre egitea, ikasle bakoitzaren jarraipena egitea, hauek izaten dituzten aurrerapenez jabetzeko eta metodologia honen arabera, ikaslearen arreta, parte hartzea eta ikaskuntza kooperatiboa bultzatzea.

### **-Zeintzuk dira abantailak? Eta desabantailak?**

#### **Abantailak:**

- Ikasleen garapena bultzatu
- Ebaluatzeko baliabide gehiago dituzte
- Irakasleek baliabide gehiago dituzte beraien lana antolatzeko eta koordinatzeko
- Ikasleek, ikasle desberdinekin lan egiteko aukera dute...

#### **Desabantailak:**

- Aldaketen ondorioz, ikasleak ez dira sentitzen talde batekin identifikatuta, eta horrek beraien identitate sozialean eragin negatiboa dauka
- Bestalde, homogenizazioa bultzatzen du, eta horren ondorioz, ikasle ezberdinez aberastea eta motibatzea oztopatzen du.

### **-Zeintzuk dira kontuan izan beharreko aldagaiak?**

Testuinguruak, ikasleen beharrak, egoera ezberdinak. Hiru hauek taldekatze malguak aberasten eta hobetzen dituzte. Gainera, taldea helburu eta berehalako hartzaile bezala hartu behar da.

## **TALDE KOOPERATIBOAK**

### **Berdinkideen arteko tutoretza**

#### **- Zer dira?**

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

**Ikaskuntza kooperatiboa** da non tutore ikasle harremana simulatzen da. Horrela, batak besteaz ikasten du. Rol asimetrikoak gauzatzen dira. Hau da, irakaslea maila altuago batean egongo da ikaslearekin alderatuz. Horrez gain, ikasleak ez du ikasten soilik, baizik eta tutoreak ere. Azken finean, ikasteko modu eraginkorrena beste bati irakastea da.

### -Noiz aplikatu?

Dinamika honen aplikagarritasuna, ikasle anitzen kasuan aplikatzen da eta jakintasuna maila ezberdinetan gehienbat, oraindik eta aberasgarriagoa izan dadin. Horrez gain, aplikagarritasun hau gauzatzen da gehienbat **praktika inklusiboa** bultzatzeko.

### - Irakaslearen rola zein da?

-Irakaslearen rola berdinkideen tutoretza hau gertatzen denean, antolatzailea, dinamizatzailea eta bitartekaria izan behar du.

-**Antolatzailea:** Bikoteak antolatu beharko ditu ahalik eta aberasgarriena izateko tutoretzan jardungo duen bikotearentzat.

-**Dinamizatzailea:** Tutoretza gertatzen den bitartean, bien arteko komunikazioa eta prozesuaren jarraipen egin beharko du.

-**Bitartekaria:** Komunikazioan zehar oztoporik izatekotan bikotearen artean, bideratzen jakitea.

### -Abantailak

- Elkar lana
- Gauzak partekatzea (kulturalak, linguistikoak...)
- Banakako harremanak
- Kooperaz

### -Desabantailak


## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- Statusak ikasle bat bestea baino gehiago izateko aukera pizten du.

Ikasle bikoteen arteko ikaskuntza da



Irakaslea

Ikaslea



Tutorea (Antolatzailea, dinamizatzailea, bitartekaria)

### **- Ikaskuntza kooperatiboa**

#### -Zer dira?

Ikaskuntza kooperatiboa, hezkuntza egungo aldaketa sozialen arabera egokitu ahal izateko funtsezko prozedura da eta, gainera, eskola-giroko elkarbizitza eta biolentzia hobetzen laguntzen du. Kooperatibismoa talde lanean oinarritzen da, non denon lana eta parte hartzea beharrezkoa da. Pertsona batek huts egiten badu, prozesua ez da kooperatibotzat hartuko.

#### -Noiz aplikatu? Arrazoiak.

- **Dibertsitatera egokitzeko:** Eraginkorra da etekina, ikasteko motibazio, erantzukizun sena eta tolerantzia hobetzeko, eta batez ere, elkarlanean aritzeko gaitasuna garatzeko eta testuinguru heterogeneoetan ikasleen arteko harremanak hobetzeko.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- **Elkarmenpekotasun positiboa, motibazioa eta ikaskuntza:** Ikaskuntza kooperatiboak emaitzak hobetzeko lanabes baliagarria da, egiaztatu denez, ebaluazioak bi baldintza betetzen dituztenak:
  - o 1) Lantaldearen lana saritzen denean.
  - o 2) Ebaluazioa taldekide guztien banan-banaka etekinen batuketan denean.
- **Talde-arteko kontaktuaren baldintzak, integrazioa eta tolerantzia:**
  - o Talde arteko harreman sendo eta luzea eraiki behar da.
  - o Taldearteko kideek antzeko estatusa agertuko duten esperientziak bizi behar dira.
  - o Talde desberdinetako kide horiek baterako helburuak erdieste bidean elkarlanean jardun behar dute.
- **Kooperazio eta elkartasunaren eraikuntza.**
- **Arrakasta eta sona jasotzeko aukerak banatzea:** ikasle guzti-guztiei arrakasta eta sona jasotzeko aukera berdina eskaintzea da.
- **Jardueraren osoak elkarrekin egitea eta ezagumenduaren sortze-zona aktibatzea:** Garapen gertuko zonak eskainiko dituzten interakzio sozialeko sistemak sortzea da. Baldintza hauek kontuan hartuz:
  - o Irakasten duen pertsona arazoa independentziaz konpontzeko gaia izatea
  - o Ikasten duenaren parte hartzea sustatuko duen ataza partekatua izatea.

### -Irakaslearen rola zein da?

- Era positiboan kooperatzen irakastea
- Talde bakoitzean eta ikasle bakoitzarekin gertatzen dena behatzea
- Lan talde den-denei arreta ematea, sor daitezkeen arazoak konpondu ahal izateko.
- Ikasle guztiei, eginiko aurrerakuntza ikus dezaten aukera ematea eta nori bere arrakasta aitortzea.

### -Abantailak

- Kooperazioa
- Elkar-lana



## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- Sozializazioa
- Ikasle guztiak arrakastarako berdintasuna
- Inklusibotasuna.
- Heterogeneotasuna = aberastasuna

### **-Desabantaila**

- Batek huts eginda kooperazioa ez litzateke gertatuko.

### **-Kontuan hartu beharreko aldagaiak**

- Ikaskuntza kooperatiboak bestelako ikaskuntzak osatu egiten ditu, ordezkatu gabe.
- Eredu nagusiak, hiru urrats dituzte:
  - o Ikasgela, hirutik sei kide arteko ikastaldetan banatzen da
  - o Klase horiek animatu behar dira
  - o Lantaldearen lanaren ondorioz erdietsitako etekinagatik saria ematen zaie.

Taldeko estrategiak aztertu ondoren, atsedenera joan gara eta atsedena ondoren, **bakarkako** estrategiei heldu diegu. **Lan plangintzak, Gelako hitzarmenak eta Kontratu didaktikoa.**

## **KONTRATU DIDAKTIKOA**

### **Zer da?**

Bi alderdien artean gertatzen den elkarriketa egin ondoren ezartzen den hitzarmen negoziatua da. Ikasleak bere iraganeko, oraingo eta geroagoko egoeraz beren buruari egiten dizkieten errepresentazioak hobetzen dituen estrategia didaktikoa da.

Bereizgarriak:

- Erabakitze askatasuna.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- Kontratuko elementuen negoziazioa.
- Erabakiak betetzeko konpromisoa.

### Noiz aplikatu?

Kontratu motak:

- **Errekuperaziozkoak:** Epe motz jakin baten ikasgai, sekuentzia, kreditu... jakin baten errekerperazioa lortzea da honen helburua. Negoziazioa indibiduala da.
- **Liskarrak konpontzekoak:** Jarrera edo jokabide alorreko arazoak edota liskarrak konpontzea da honen helburua. Kontratu honetan negoziazioa era askotakoa izan daiteke, indibiduala, taldekakoa nahiz gela osoarena.
- **Proiektu baterako:** Helburua proiektua egitea da non proiektuaren iraupenak ez duen axola, hala ere lanaren progresioaz jabetzeko komeni da epe labur batzuk zehaztea. Hemen negoziazioa indibiduala da nahiz eta gela osoan gestiona daitekeen.
- **Ikasgela kolektiboa:** Honen iraupena hiruhilabetekotik ikasturte osora pasa daiteke eta bere helburua gela osoaren helburu orokorra lortzea da. Gela osoaren helburua lortzean denez eginkizuna negoziazioa gela osoaren arten egiten da, adierazpen metodologikoak gela osoarentzat jartzen direlarik, hala ere gero bakoitzak kontratu indibiduala idazten du.
- 

### **Adibide batzuk→**

- o Ikasketa sekuentzia bat era indibidualean berreskuratzeko kontratua.
- o Ikasgela osoko kontratu kolektiboa: laborategi lana.
- o Kreditu bat era indibidualean berreskuratzeko kontratua.

### Irakaslearen rola?

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- Dibertsitaterako arreta suspertu behar du ikasleekin **negoiazioa**.
- Estrategia hauek lantzerakoan irakasleak **bitartekari lana** egin behar du.
- Ikasleei **motibazioa** piztu behar die
- Kontratuak betetzen dituzten ala ez **behatu** behar dute.
- Hauek betetzerako orduan bakoitzak berea egin behar badu ere, irakasleak **laguntza** bat eskaintzea ez legoke gaizki.

### Kontuan hartu beharreko alderdiak?

Negoiazioan hurrengoak hartu behar dira kontuan:

- Egoeraren gaineko azterketa
- Proposamenak egitea
- Programa antolatzea
- Konpromisoa hartzea.

Kontratu eskakizunak alderdi hauek:

- Egoeraz ikasleak eta irakasleak egin beharreko azterketa.
- Proposamen bat
- Hori onartu edo ez onartzeko askatasuna. Negoiazioa.

### Abantailak eta desabantailak

- Ikasleak motibatu
- Ikasleak iritzia ematen dute.
- Aukeratzeko askatasuna.
- Ikasketen auto-erregulazioa ikasten dute.
- Autonomia landu.
- Arauek erraztasun handiagoz barneratu eta ardura beraiegan erori.

### LAN PLANGINTZAK

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- ✘ Banakako lanean datza; bakoitzak bere interesen arabera Curriculum-aren barruan agertzen diren arloak jorratzen ditu.
- ✘ Ikasleek irakasleak aurkezturiko ariketen artean aukeratu dezakete
- ✘ Denbora jakin bat izaten dute.
- ✘ Irakasle eta ikasleak bilerak egiten dituzte lanaren bilakaera baloratu ahal izateko
- ✘ Ikasleen autonomia bultzatzeko metodo gisa erabiltzen da
- ✘ Lehen eta bigarren hezkuntzan erabiltzen da metodologia hau

### **GELAKO HITZARMENAK**

- Gelan bizikidetzan oinarritutako heziketa bat eraman behar da aurrera.
- Haurrak motibatuta izatea lehentasuna da.
- Hitzarmenaren eraikuntza prozesua:
  - Eztabaidarako markoak eraiki.
  - Diagnostiko komun bat adostu.
  - Erabakiak hartu(Curriculumaren inguruan).
- ✘ Adostu: gaia, jarduerak, irteerak, denbora, metodologia parte-hartzailea, ebaluaketa nola egin...
- ✘ Hau, delegatuek egin
- ✘ Horrela, ikasleak izango dira protagonistak eta hauspen fenomenoak gutxitu edo desagertuko dira
- ✘ Irakaslea izango da gidaria
- ✘ Ikasleak autokritikoak izan behar dira eta beraiek izango dute ikasgelaren autoritatea
- ✘ Konpromiso hauek denen artean adostu eta ondoren denek sinatu

Banakako estrategiak landuz amaitu dugu gaurko saioa.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### METODOLOGIA

Gaurko saioan landutako zein dinamikaren bitartez gauzatu dugun azalduko dut ondorengo lerroetan. Gaurko saioa aberatsa izan da dinamikei dagokionean eta **gela osoko** dinamikan **talde lanean** eta **bakarka** lan egin dugu.

#### 1. Gela osoko dinamika

Lehenik eta behin, aurreko saioan landutako taldekako estrategien artean eztabaidan egon gara, elkarren arteko ezberdintasunak aurkitzen. Elkarjartzea hau gelakide guztion artean egin dugu.

#### 2. Talde lana

Ondoren mintegietako taldeetan bildu gara eta taldekatze malguak eta talde kooperatiboak osatu ditugu jarraitu beharreko galderak osatuz. Talde bakoitzak bere galderak osatzean, 3 boluntario arbelera irten dira, egindako lana arbelean plasmatzera eta guztioi azaltzera.

#### 3. Bakarkakoa

Taldekako estrategiak azaltzen amaitu ditugunean, saioa amaitzear zegoen eta bakarkako estrategiak taldekideen artean banatu eta bakoitzak bere zatiaren irakurketarekin hasi da. Irakurketa egiteko ez dugu denborarik izan eta ez-presentzialean landu behar izan dugu.

### HAUSNARKETA

Jarraian saio honetako eduki, konpetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

Saio honetan landu ditugun **edukiak** benetan behar genuena izan da Sustraiak ikastolak zuen arazoari erantzuteko. Hain zuzen ere, aniztasunaren trataera osotasun batean. Horregatik, gaurko edukien lanketa pisu handiago dutela uste dut, eskola bateko arazoari

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

irtenbidea emateko prestatu garelako. Horrez gain, gaurko edukiek asko argitu didate aniztasunari erantzuteko estrategien inguruan nuen jakintza. Gaurkoarekin, sakonago ezagutzen ditut estrategia bakoitza eta bakoitzaren alderdi onak eta txarrak identifikatzeko gai naizela pentsatzen dut. Izan ere, oso ondo ulertu ditut beraien arteko ezberdintasunak. Oro har, esan behar dut gaurko edukiak oso garrantzitsuak izan direla egoera bati aurre egiteko eta nire aurrezagutzak estrategia hauen inguruan hobetzeko edota indartzeko.

Gaurko saioan landutako **konpetentzi espezifiko**en ikaste emaitzei erreferentzia eginez, ondorengo landu dugulakoan nago. Irakurgaien lanketarekin, talde lana eta baita lan eta ahalegin indibiduala sustatzeko estrategiak ezagutzea eta aplikatzen jakin izan dugu. Sustraiak ikastolako egoerari erantzuna emanaz. **Zeharkako konpetentzien (ikasten ikastea)** ikaste emaitzak aztertuz, esan beharra daukat bakarkako irakurketa egiten hasi garenean iskanbila asko zegoela saio amaiera baitzen eta ezin izan dut kontzentratu. Hala ere, tokiz aldatu naiz espazio baten bila. Badirudi irakurketa barneratzen nindoala baina ezin izan dut jarraitu. Ideia nagusi batzuk azpimarratu eta landu ditut baina ez osotasunean. Beraz, ez zen toki aproposa hau lantzeko eta etxean landu behar izan dut. **Talde lanari** dagokionean, oso ondo aritu gara taldekatze malguak eta talde kooperatiboen galderak osatzean. Baina gainontzeko estrategiak ez-presentzialen landu behar genituenak, taldekide batek ez ditu eginak ekarri eta ezin izan dugu lana borobildu. Beraz, esango nuke gaurko saiorako egin behar zen lana ez da kooperatiboa izan. Izan ere, taldekide batek huts egin digu. **Komunikazioari** dagokionean, talde lanean aritu garenean, oso ondo eta entzute aktibo batez jardun dugu. Horrez gain, parte hartzaile aritu gara guztiok taldekatze malguak eta talde kooperatiboak osatzen. Hala ere, saio amaieran desastre bat izan da. Bakarkako lanketa egin behar genuen momentuan, iskanbila handia sortu da eta lana ganoraz egiteko ez da aukerarik egon. Oro har, gaurko komunikazioa ez dut eraginkortzat hartu nahi.

Gaurkoan nire **identitate profesionala** indartu den bakarraz izan da eduki oso garrantzitsuak barneratu ditudala eta aniztasunari aurre egiteko balioko zaizkidala. Gainera, ohartu naiz bakarkako lan bat gelan egitea eta irakaslea aurrean ez badago ez duela zentzurik lan hori bidaltzea. Azken finean, arrazoi ezberdinengatik, egin nahi ez dutenek egin nahi dutenei lana oztopatzen dietelako.

### **INFORMAZIO GEHIGARRIA:**

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

**2011/03/15 → 2011/03/18** **II.MINTEGIA B.MULTZOARI AMAIERA.**

Aurreko saioan, aniztasunari erantzuteko metodologia estrategiko guztiak sakondu genituen. Gaur, lanketa horrekin, Sustraiak ikastolako irakasle batekin bilduko gara beraien eskutitzari erantzuna zuzenean emateko (Mintegia).

Honen lanketa egiteko bi azken saioak batuko ditut erlazio zuzena baitute.

### **EDUKIAK**

**17-18.Saio** hauetan aurreko saioetan eginiko estrategia guztien lanketaren ondorioz, eskutitza erantzuteko honakoa egin dugu:

Taldekatu estrategiak bakoitza, poster baten idatzi ditugu eskema moduan. Hau amaitu dugunean, bakarkako estrategiak power point batean prestatu ditugu.

Hurrengo saioarekin mintegiaren ordua iritsi da eta lehenik eta behin irakasleak mintegiaren nondik norakoak azaldu dizkigu. Honekin batera, mintegia egiteko taldeen ordena ere azaldu digu. Mintegian gainontzeko taldeak zeuden bitartean, hurrengo atal batean ebatzi behar dugun kasu bat irakurri eta planifikatu behar genuen.

Gure txanda heldu da eta mintegirantz goaz. Lehenik eta behin, eskutitzari kokapena eman diogu, esanez, aniztasunerako estrategiak landu ditugula eta zuen arazoari konponbidea emateko prest gaudela. Ondoren, estrategia guztiak azaldu ditugu, bai taldekoak eta bai bakarkakoak. Azalpena amaitzean, irakasleak Sustraiak ikastolan duten egoera baten aurrean ez dakite nola jokatu. Honakoa da egoera:

*“Down Sindromea duen haur bat dankagu eta ez dakigu aproposa izan litzateke berdinkideen arteko tutoretzan parte hartzea.”*

## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Guztion artean erantzun dugu eta baiezkoa eman diogu. Azken batean, aniztasunari begirako estrategiak aplikatu nahi baditugu ezin dugu inor kanpoan utzi. Honekin, heterogenotasuna bilatu nahi dugu eta nahiz eta guztiok ezberdinak izan, beti ikasi dezakegu besteengandik zer edo zer. Gainera, berdinkideen arteko tutoretzan nahiz eta edukien inguruan hitz egiteko gai ez izan, beti hitz egin daiteke zerbait kulturalaren inguruan, arlo linguistikotik zerbait ikasi daiteke... Horrez gain, kasu honetan, irakasleak izan beharko lukeen rola, behatzaile eta dinamizatzaile lanak, sakonagoak eta gertukoak izan beharko lirateke.

Mintegia amaitu dugunean, auto-balorazioa egin dugu eta ondoren irakasleak berak mintegian zehar izandako papera baloratu du.

### **METODOLOGIA**

Bi saio hauetan zehar edukiak jorratzeko landu ditugun dinamikak honakoak izan dira:  
**Talde lana, gela osoko azalpena eta mintegia.**

#### **1.Talde lana**

Eskutitzari erantzuna prestatzeko asmoarekin, talde lanean aritu ginen estrategia bakoitzaren posterrak osatzen. Poster bakoitza modu esanguratsuan osatu genuen horrela mintegian argiago azaltzeko. Posterrak amaitzean, ordenagailu batean, bakoitzak bere bakarkako estrategien inguruan zuen informazioa era labur batean diapositibetan osatzen joan ginen power pointa amaitu arte.

#### **2.Gela osokoa**

Talde lana amaitzean, hurrengo saioan mintegiarekin hastear geunden baina irakasleak hainbat ohar eman behar zizkigun. Lehena, mintegiaren nondik norakoak eta honen iraupena. Bigarrena, mintegia egiteko taldeen ordena azaldu zuen. Azalpen guzti hauek ahoz eta arbelaren laguntzaz burutu zituen.

#### **3.Mintegia**



## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

Gure txanda heldu da eta mintegiarekin hasteko sarrera bat egin dugu lehenik eta behin kokapen bat egiteko. Ondoren, bakoitza bere posterreko estrategiak azaltzen joan da eta aurkezpenarekin amaituz, power point baten bitartez bakarkako estrategiak azaldu ditugu. Aurkezpena amaituta, Sustraiakeko irakasleak beraiek bizi duten egoera bat planteatu digu eta guztion artean erantzun bat eman diogu. Amaitzeko, mintegiaren balorazioa jaso dugu banan-banan.

### HAUSNARKETA

Jarraian 17-18 saioetako eduki, konpetentzi eta identitate profesionalerantz emandako pausoak aztertuko ditut nire hausnarketa pertsonala eginez.

Gaurkoan landu ditugun **edukiei** erreferentzia eginez, oso baliagarriak iruditu zaizkit, aurreko beste saio batzuetan bezala, teoria praktikara eramaten dugulako. Esaterako, Sustraiak ikastolako irakasleak jarri digun egoera. Egoera hori kontuan izanda ikasitako edukiak egoerari egokitzen ikasi dudala uste dut. Horrez gain, estrategia metodologiko hauen lanketa aurretik egin genuen eta berriro ere poster eta power bidez plasmatea eta ondoren, aurkeztea azken finean edukiak birpasatzeko eta hobeto barneratzeko balio duela uste dut. Oro har, estrategiekin amaitzeko, eduki hauek egoera batean plasmatu eta denak lantzea oso aberasgarria iruditu zait gaiari amaiera borobil bat emateko.

Azkeneko bi saio hauetan landu ditugun konpetentzien ikaste emaitzei egingo diet lekua. **Konpetentzi espezifiko**en ikaste emaitzei dagokienean, azpimarratu beharra daukat, mintegian jarritako egoerarekin, baliabideak lortu ditugula zailtasunak dituen ikasle bati taldekide izaten laguntzeko. Azken finean, Down sindromea dutenak ere taldean integratu behar ditugu. **Zeharkako konpetentzien (ikasten ikastea)** ikaste emaitzei dagokienean ondorengo esango nuke. Bi saio hauetan ez dugu ez-presentzian ezer landu behar izan, baina posterrak eta power pointa prestatu ditugunean eskemak egiteko gai izan naizela ziurta dezaket. Behar honetan hasi aurretik, baliabide aurreikuspenak egiteko gai izan gara. Hau da, kartulinak, errotulagailuak eta power pointa erabiliz. Horrez gain, aurkezpena prestatzen nengoen bitartean, ikasitakoaren kontziente agertu naizela uste dut eta ziurtasun gehiagoarekin sentitu naiz. Hala ere, ziurtasun horrengatik agian eta aurkezpena prestatzeko

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.

Olaia Jimenez

---

denbora kudeatu ez izanak, ahoz azaltzeko gai izan naizela uste dut baina ez nire segurtasunaren barruan. Baizik eta pixka bat urduri ikusi dut nire burua. Irakasleak balorazioak egin aurretik gure iritzia jakin nahi zuen eta hemen nire buruari kritika egin diot ez naizelako bat ere fin ibili. Beraz, autokritika egiten gai naizela erakutsi dut. **Talde lanari** dagokionean, esan beharra daukat bi saio hauetan oso giro ona izan dugula baina guztion aldetik ez da konpromisorik egon eta aurkezpenak prestatzeko oso estu ibili gara. Hala ere, talde moduan mintegian ere, elkarri lagunduz, mintegi nahiko osoa burutu dugula uste dut. **Komunikazioari** erreparatuz, mintegian egingo dut geldiuenean. Nire ustez, nahiko eskasa izan da komunikazioa nire aldetik eta bai nire partaide batzuen aldetik. Lehenik eta behin, eduki dezente nituen azaltzeko, besteak ez bezala eta nahiko urduri jarri naiz. Horrez gain, irakasleari begira gutxi aritu naiz eta horrek urduritasun puntu bat transmititzen zuela uste dut. Nire urduritasunaren iturria, nire taldekide batzuen irriak izan dira, nik azalpena egiten nengoen bitartean. Honek asko urduritu nau eta nire azalpen zatiari amaiera eskasa eman diodala uste dut. Hala ere, gaurkoan nire planifikatzeko eskastasuna azpimarratuko nahiko nuke. Oro har, komunikazioa ez nuke eraginkortzat hartuko.

**Identitate profesionalari** helduz, gaurkoan ikasi dut, hitzaldi bat edota saio bat prestatzerakoan hobeto prestatu behar ditudala eta denboraren kudeaketa egoki bat eginez. Horrela, emaitza kalitatezkoa izan dadin. Horrez gain, mintegian hasi aurretik lasaiegi egon naiz eta horrek ez dakit nire ondorengo interbentzioetan kalte egin ote nauten. Hau gutxi balitz, gaurkoan ikasi dudak garrantzitsuena zera izan da. Irakasleok, etengabeko ikasketan egon behar garela, etorkizun batean gertatu daitezkeen hezkuntza alorreko egoerei aurre egiteko. Gaurkoan, gure egoerari aurre egin diogun bezala.

### INFORMAZIO GEHIGARRIA:

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### ONDORIOA

Nire uste apalean, ikaste koaderno hau egitearekin batera gauza asko barneratu ditut irakasle izango naizen bide honetan. Ikaste koadernoan, profesional on bat izateko, oinarrizko **edukiak** landu ditudala uste dut. Esate baterako, printzipio pedagogiko asko, motibazioa eta gatazka bezalakoak hainbat egoeretan aplikatzen. Horrez gain, estrategi metodologikoen azterketa sakona ere egin dut. Ikaste koaderno honek, erakutsi dit lanean hasterakoan, aniztasunari erantzuteko beharra. Azken finean ikasle bakoitzak bere ikaste erritmoa dauka eta erritmo guztiak errespetatu behar dira.

**Landutako metodologiaren** inguruan Hainbat metodologia landu ditugu gure etorkizunerako erabilgarriak izango direnak. Adibidez, talde lanean jarduten ikasi dugu, hau beharrezkoa dugu beste irakasle batzuekin lan egin behar baitugu, aurkezpen esanguratsuak egiten ikasi dugu horrela, gure etorkizuneko ikasleak edukiak hobeto ulertzeko, saioak motibaturik hasteko ahozko sariak jaso ditugu irakaslearen eskutik eta hori gure etorkizuneko saioetara emanez gero motibazioa transmitituko dugula pentsatzen dut. Metodologiaren inguruan, orokorrean, oso dinamikoa izan dela pentsatzen dut eta oso erabilgarria etorkizun hurbil baterako.

**Irakaslearen figurari** dagokionean, oso garrantzitsua den aspektu batekin geratu naiz. Aniztasunari erantzun behar zaiola eta etiketak, motibazioa eta gatazkak kudeatzeko prestatu garena. Gainera, haurrak motibatzekeo estrategia ezberdinak landu ditugu bai taldekakoak eta bakarkakoak eta horrek haurraren garapenean lagungarria dela ohartu naiz. Azkenean, denok gara hezigarriak eta denok daukagu eskubidea garapen integral bat jasotzeko. Honetaz aparte, saio guzti hauen zehar, geroz eta konpetenteagoa bilakatzen joan naiz bai konpetentzi espezifikoei dagokienean eta bai zeharkakoei dagokienean. Horrez gain, materia honetan taldeka aritu garenean, gauza asko ikasi ditut. Hots, taldekideak entzuten, euskalki berrietara moldatzen, taldeko lanak egitean jendea ez dela hainbeste konprometitzen eta lanaren pisua besteengan uzten dutela... azken finean, etorkizun batean beste irakasle batzuekin lan egitean beharrezkotzat ikusten ditut bai konpromisoa eta bai entzuten jakitea. Amaitzeko, esan beharra daukat, materia honetan, gauza berri bat deskubritu dudala nire izateko eran, hainbeste talde lan egin eta suertatu diren hainbat

## **Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak**

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.

Olaia Jimenez

---

egoera kontuan hartuta, konturatu naiz pazientzia uste baino gehiago dudala. Horregatik, pazientzia gabeko irakaslea izango nintzela pentsatzen nuen, baina orain pazientzia dezente dudala konturatu naiz. Hortaz, ardura bat gutxiago.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### BIBLIOGRAFIA

#### **1.FASEA A. MULTZOA (PRINTZIPIO PEDAGOGIKOAK)**

##### 1.Irakurgaiak

- Kerejeta, B. (2008). “Haurrek elkarren arteko gatazkak haien artean konpondu behar al dituzte? Kasu horretan jazarpenak izateko aukera handiagoa al da? Zer egin behar dute irakasleek?” *Hik hasi*, 125 zka, 2008 otsaila.
- Marchesi, A. (2004). *Qué será de nosotros, los malos alumnos*. 143-161 orr. Madrid: Alianza Ensayo).
- Morales, P. (1998). *La relación profesor-alumno en el aula*. 5-8 eta 109-113 orr. Madrid: PPC.
- *Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila*(2007). *Oinarriko Hezkuntzarako tutoretza plana egiteko orientabideak*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia.
- Cascón, P. (2003). *Educación en y para el conflicto*. Catedra UNESCO Paz y Derechos Humanos. Barcelona: UAB
- Batzuk (1993). *Motivaciones que tienen éxito*. Revista padres y maestros, 4-7 orr.
- Palacios, J.; Marchesi, A. & Coll, C. (1990). *Desarrollo psicológico y educación*. II. Bol.: *Psicología de la educación escolar*. Madrid: Alianza Editorial.
  - “Los cambios en la práctica docente” 204-205 orr.
  - “Estrategias motivadoras en el aula” 278-281 orr.
- Martínez, B. (1999). *Egungo gizartearen dauden estereotipoak eta eskolan duten presentzia mintzatu zaigu*. *Hik Hasi*, 36 zka, 17-23 orr.

##### 2.Hitzaldiak

- Jimenez, O. (2011). Pigmaleon efektua eta estereotipoak. Huhezi, Eskoriatzan, 2011/01/18.
- Jimenez, O. (2011). Hezkuntza begirada aldaketa. Huhezi, Eskoriatzan, 2011/01/21.
- Jimenez, O. (2011). Adimen emozionala. Huhezi, Eskoriatzan, 2011/01/28.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

- Jimenez,O. (2011).Gatazken kudeaketa.Gatazkaren ulermen baikorra. Huhezi, Eskoriatzan, 2011/02/04.

### 3.Filma

- Cantent,L. (2008). La clase. Frantzia.

### 4. Internet

- Kontsulta: 2011/01/14 Iturria: <http://www.youtube.com/watch?v=yaimGghfcpM>  
<http://www.youtube.com/watch?v=LXwCKwrXmoY&feature=related>

- Kontsulta: 2011/01/25 Iturria:

4.pasartea: <http://www.youtube.com/watch?v=D7p0RJC73Xs>

5.pasartea: <http://www.youtube.com/watch?v=VEYCJm3Qo6k>

6.pasartea: <http://www.youtube.com/watch?v=Y9JhQ5S796U>

- Kontsulta: 2011/01/28 Iturria: <http://www.youtube.com/watch?v=dA1ogXCwHmI>

- Kontsulta: 2011/02/11 Iturria: <http://www.youtube.com/watch?v=OVf1GhKDtW8>

## ***1.FASEA B.MULTZOA (ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO METODOLOGIA ESTRATEGIKOAK)***

### 1. Irakurgaiak

#### Taldeko estrategiak

- Albericio J.J. (2000). *Las agrupaciones flexibles, reflexión crítica desde la experiencia*. Aula de innovación educativa. 90 zkia., martxo 2000, 54-57 orr.
- Del Carmen M., Viera A.M. (2000). *La atención a la diversidad en educación infantil: los rincones*. Aula de innovación educativa. 90 zkia., 25-32 orr.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

- Durán Gisbert, D. (2004). *El aprendizaje entre iguales*. Aula de innovación educativa. 132 zkia., 2000, 75-76 orr.
- Hezkuntza Ministerioa. *Método de proyectos*. Iturria: [http://ntic.educacion.es/w3//recursos2/orientacion/01apoyo/op03\\_b3.htm](http://ntic.educacion.es/w3//recursos2/orientacion/01apoyo/op03_b3.htm)  
Azken kontsulta: 2011/III/16.
- *Ikaskuntza kooperatiboa* (testu moldatua). (d.g.). Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Mondragón Unibertsitatea. Eskoriatza.
- Monereo C. (2000). Instantáneas: Proyectos para atender la diversidad educativa. Edición Celeste. Madrid. III *Lanaspa y Crespines: Juntos pero no revueltos*.
- Monereo C. (2000). Instantáneas: Proyectos para atender la diversidad educativa. *Trabajo por ámbitos de experiencia*. Edición Celeste. Madrid.
- NorthWest Regional Educational Laboratory. (2006). *Aprendizaje por proyectos*. EDUTEKA. 2006 martxoa. Iturria: <http://www.eduteka.org/AprendizajePorProyectos.php> Azken kontsulta: 2011/III/16.
- Mendiá, R. (1999). *Aniztasunari erantzuteko neurri arruntak*.

### Bakarkako estrategiak

- Batzuk (2001). *Estrategias organizativas de aula*. Bartzelona: Graó.
- Luengo F., Moreno J.M. (2003). *El pacto en el aula. Una propuesta para afrontar la disrupción*. Cuadernos de Pedagogía. 331 zkia., 36-46 orr.
- Menoyo M.P. (1999). *El contrato didáctico o pedagógico los pactos*. Aula de innovación educativa. 83-84 zkia., 64-67 orr. Euskaratua.
- Pigrau T. (1999). El contrato didáctico en el “trabajo cooperativo”: un instrumento para la autoevaluación. Aula de innovación educativa. 83-84 zkia., 61-62 orr.

## Printzipio pedagogikoak eta Aniztasunari erantzuteko estrategia metodologikoak

Mondragon Unibertsitatea. HUHEZI Fakultatea.  
Olaia Jimenez

---

### 2.Hitzaldiak

- Jimenez,O. (2011). Neurri arruntak eta laguntza sistema. Huhezi, Eskoriatza  
2011/03/04.
- 2.mailako ikasleak. (2011). Txokoak eta motibazio proiektuak. Huhezi, Eskoriatza  
2011/03/08